

**Lexiko berrikuntza euskal hitzegigintza zaharrean: zenbait ikuspegi**  
*Joseba A. Lakarra* 3-40

**Telebista-albistegiak: *diversitas inter pares***  
*Edorta Arana* 41-54

**Heziketa-praxia, sexu-desberdintasunaren uste-sistemak eta genero-identitatea: haurtzarroan izandako opariek uste-sisteman eta genero-identitatean jokatzen duten errolari buruzko ikerketa enpirikoa**  
*J. Valencia, L. Gil de Montes, I. Arruti, A. Carbonell.* 55-64

**Schengeneko Europa Berria. Asilatu- eta errefuxiatu-estatutuaren eskatzaileen egoera**  
*Igone Urtizberea* 65-76

**Liburu aipamenak:** 77-84

**Historia de Euskal Herria, Tomo III**  
**El nacimiento de una nación** *Mikel Aizpuru*



# **Lexiko berrikuntza euskal hiztegitantza zaharrea: zenbait ikergai**

**Joseba A. Lakarra Andrinua**  
EHUko irakaslea

Lan honetan XVIII. mendera arteko euskal hiztegitantzak lexiko berrikuntzaz aurkezten dituen zenbait jakingarri miazten da, bereziki hitz-sorkuntza eta mailebaketan, horretarako Landucci, euskara-islandiera hitz zerrendak, Voltaire, Mikoleta, Pouvreau, Urte, Harriet eta Larramendiren adierazpen teorikoak eta jokabide praktikoa aztertuz.

The article analyses the lexical innovation of the Basque dictionaries until the XVIII century, paying special attention to the theoretical explanations and practical behaviors of Landucci, Voltaire, Mikoleta, Pouvreau, Harriet, Larramendi and some Basque-Icelandic lists of words.

Larramendiren hiztegegintzaren inguruan izandako hurbilketa oker eta huts faktualetan oinarrituriko iritzi, aitzakia eta usteketa zenbaiten ahultasuna frogaturik gelditu delakoan nago (cf. Lakarra 1993). Lan horretako oharrez landa, ondorengoetan miatu diren filologi alderdi zenbaitek Larramendi eta aurreko hiztegegintzaren alderdi batzuen ezagutza zehatzagoa esku-ratu digute, baina eginkizun dugu oraindik azterketa emankorrago baterako nahita nahiezko duguna, hots, XVIII. mendeko hiztegegintzaren etorkiak argitzen lagunduko gaituen hurbilketa berri baterako oinarriak jartzeara.

Larramendiren hiztegegintzarekiko ikuspegiari neurri batean aurrekoenaz genuen eskas eta desegokia islatzen zela azaldu nuen aurreko zenbait lanetan azterketaren puntu garrantzitsuetan (hitzberriak, mailebuak, horiek sortzeko eta onartzeko bideak eta beren erabilerak) haren aurka omen ziren hiztegegile zenbait, historiak gonbaraketarako biderik uzten digun izarian, kontra baino aldeago baitzuten; ikus Lakarra 1985, 1991, 1992a, 1993, 1994a-b, 1995a-b, 1996a-b-c-d edo prestatzen diren beste batzuk.

Gauzak honela, lan honen helburua xumea da: Larramendi aurreko hiztegegintza saioak –ahalik eta zabalenera harturik– deskribatu, lexiko berrikuntzaren ikerketaren aldetik egin dezaketan ekarpenari dagokionez; beste lan batean deskribakizunak bildu eta

sailkatu ditut, beren tipologia eta historiaren oinarriak jartzeko.<sup>1</sup> Batean zein bestean, arrazoi orokor eta partikularrengatik, atzerrikoekin erkatuaz ikertzea, ezinbestekoa ez denean, aberasgarri da oso; hemen ukitutako gai zenbait, lexikoaren eta gramatikaren arteko erlazioen deskribapenez haratago doana, Lakarra 1996e-n berrartu da.

### 1.a. Landucciren hiztegia

Agudekin batera 1958an hiztegi hau argitaratzean Mitxelenak jarri zion hitzaurre jakingarrian hego-mendebaleko hiri aski erdaldunduren batean, Gasteizen itxura guztien arabera, kokatzen du hiztegi honetako hiru eskuetarik nagusienaren (A) jatorria. A-ren mailebu (eta erdarakada gordinen !) kopurua B-rena baino askozaz handiagoa dugu baina baita haren hapax legomenena ere, mugako hizkera batean espero nola.<sup>2</sup>

Mitxelenak markatzen duen legez (1958: 39-41), zenbait erdarakada (*musloa* edo *estrellea*) galdetzaile tematsua gainetik kentzeko sasi-erantzunak balira ere, beste zenbaitetan neketsuago dirudi horrelakotan ibiltzeak euskarazko ihardespen jatorria eman ordez... hori berori ez balitz berderen erantzun zuzena: cf. "ladrillado suelo" *anguelu ladrilladua*, "lobo o loba" *lupua*, "obispo" *episticoa*, "arçobispo" *arçepisticoa*, "zanahoria" *chafayñoria*, etab.

\*. EHU-k eta Eusko Jaurlaritzak ordainduriko ikerketa-proiektuei esker egin ahal izan da lan hau. Gidor Bilbao eta Blanca Urgelli sor diet lana hobetu duen zenbait ohar.

1. Starnes-Noyes 1946-ko hitzaurrean ezin hobeki dator azalduz era honetako lan baten helburu eta jokabidea; Stein-ek (1985) antzeko metodoa darabil 1604 aurreko ingeles hiztegegintzarekin eta baita Starnes-ek (1954) latin-ingelesarentzat; Quemada (1968) ere eredu aparta da frantses hiztegi garaikide eta modernoekiko. Ikerketaren egungo egoeran euskal hiztegegintza zaharraz arduratuak gutxienezgoz asetu behar.

2. Cf. Orain Lakarra 1996f, 5. kapituluari *RS* eta Mikoletak islatu antzeko kasu batez.

Bestetan lekukotasunik ez duten, edota arraroak nahiz esanahi diferenteko diren hitz anitz ere bada: *yramon* “derribar”, *ysçego* “cabalgar”, *ayuibia* “alarido”, *oyñ errasabela* “planta del pie”, *çi(s)pia* “ponçoña”, *vearra* “culpa”, *ybaya* “abreuadero de bestias”, *pistia* “aue”, *çapoa* “escarabajo”, etab.

Mitxelenak (1958: 40) erdararen eragina ez soilik mailebaketan baina hitzen ordenan eta eratorpenaren garapen urrian ikusten du:

Es notable también, por más que la causa puede ser otra, la falta casi completa del sufijo *-(t)asun* que forma abstractos de cualidad a partir de adjetivos (*aytasuna* “parentesco” está aislado). En sustitución se apela a distintos recursos, ninguno de ellos muy bueno: adopción de sufijos romances (*durezea* “dureza”, etc), empleo del mismo adjetivo (*lasça* “aspereza”), de sustantivos verbales (*vequetea* “delgadez”, lit. “enflaquecimiento”) o de perífrasis con “ser” (*ederr yçatea* “hermosura”, lit. “el ser hermoso”).<sup>3</sup>

Izan, bada *cercenadurac* “acepilladuras” eta, batez ere, *çoçachoa* “cabañuela”, *jaquinduna* (*leguez*) “ábilmente” (eta “astuto”), *cusumosoa* “ascoroso”, *deadarrosoa* “bozingleiro”, *viçarduna* “barbado”, *yn[ca]sçaria* “carbonero” (eta atzizki bera hainbat lanbide-izenetan: “albañi de casas”, *carpentaria*, “albeytar”, *celataria* “atalaya”, *cabestraria* “cabestro”, *albeytaria*, “çestero” *çestaria*, edota

“çapatero” *çapataria*, “çapatería” *çapatari calea*), *jozquina* “costurera”.<sup>4</sup>

Alabaina, Mitxelenak berak ohartu legez, erromantzearen usadioetarik aski urruti diren konposaketa ohiturak gordetzen zituen; hala berak aipatu ondokootan: *ysçegaytaurea* “caualgadura”, hitzez hitz “animal de monta”, *mas parrac* “vides” edo (*jo*) *almerisma-noa[uin]* “majar con majadero”; gehi bitzez *basaaunça* “cabra montesina” (“cabrito de aquesta” *vasa aunchuma*, “cabrero” *aunsçaya*), *esçetreznea* “axuar de casa”, “aduenedizo” *juducastea* (eta “confesso” *juducumea*, “cachorro perro” *chacurrcumea*), *ansar saya* “ansarero”, *çenaruaguea* “biuda”, *emaztea uaguea* “biudo” (cf. *aunçarra* “cabrón”) eta Urteren batzuetarik<sup>5</sup> horren urruti ez diren *andra ezconçaria* “casamentera”, *andra dançaria* “bayladera” (“baylador” *dançaria*), *andra cantaria* “cantadora”.

Nagusi dira, nola ez, *centauroa* “centauro”, *axedreza* “axedrez”, *cardenalazgoa* “cardenalazgo”, *carne de membrilloa* eta Azkuek liokeen bezala “bere buruen itzulpen” direnak. Hauetariko gehienek arrasto eskasa utzi zuten euskal hitz-altxorrean.<sup>6</sup>

## 1.b. Euskara-islandiera hiztegiak

Nicolaas G. H. Deen-ek (1937) Kopenhageko Arnamagnaena Bibliotekatik argitara zituen lehendabizikoz Vestfirdir Islandiako iparmendebaleko

3. Perifrasiak Landucciren teknikaren oinarrian dira, cf. “adulterar” *vesteren emazteaquin esçin* edo “allegar” *onusç equin*, *lecu bat[e]rusç equin*; ezinutzizkoak dira hizkeraren ezagutzarako horrelakoetan Landuccik utzi eta Mitxelenak hain edeki ikertu aditz eta morfologi arrastoak.

4. “Bruxa” *xorguina*, “bruxo” *sorguinoa* ikusirik ballrudike genero mozioa erdararen eredura sartzen hasia zela.

5. Cf. *andragizajale* “cannibalis mulier” eta horren iruzkina.

6. Landucciren hiztegi gintzaren azterketarako ikus Mitxelena 1958, 1967 eta 1970; Lakarra 1991-n, 1993-n eta 1995a-n aztertzen da Larramendik Eraskinean egin zuen haren erabilera, haren hitz zenbaiten geroko iraupenaren ibi bakar 1958 arte.

herrialdean XVII. mendean idatzitako bi hitz-zerrenda: *Glossaria duo vasco-islandica*. Hiztegiñoon interesa ez da nolana hiko: 750 bat hitz baizen ez badira ere, eta ez beti argiegiak islandieraren fonetika eta grafia dela bide, euskal arrantzaleen eta islandiarren arteko harremana –bizia oso XVI eta XVII. mendeetan– ez eze beren artean sortutako pidgina ere islatzen digu. Euskararen etorkia Iparraldekoa dugu, izan ere handikoak baitziren batez ere hara eta Canadara zihoazen marinel gehienak Bakker 1991eko arrastoen azterketak erakutsi legez.

Zerrendok gaika antolaturik ditugu: ahaidetasuna, Jaungoikoa eta natura, lanbideak, untziko gauzak, jan-edanak, jantziak, elizako gauzak, gorputz zatiak, lanabesak, denbora eta eguraldia, untziko eta baserriko gauza eta animaliak, zenbakiak, adjetibo, partikula eta esamoldeak.<sup>7</sup> Egiturak badu Urteren gramatikako hiztegiaren eitea, han bezala *nominalia* eta gainerakoak bereizten baitira, azken hauetan, aditzak eta adjetiboak landa, zenbakiak kokatuaz.<sup>8</sup> Haatik, hauetan Urterengan ez bezalako esamoldeak –Islandian sortutako pidginaren arrastoak– aurkitzen ditugu (cf. Hualde 1991):

I 496 giarsæte, 501 svascamporat,  
508 bænustes, II 180 bazuriere, 193  
presenta for mi, 194 dizula, 196 bocata

for mi attora, 207 debruin semia, 208 hiffarnuin bego, 209 fenicha for ju, 211 sickutta samaria, 212 gianzu caca, 215 ungetorre sappelle gorre, 216 presenta for mi locaria, 217 ser ju presenta for mi, 218 for mi presenta for ju biskusa eta sagarduna, 220 sumbatt galsardia for, 224 Christ Maria presenta for mi balia, for mi, presenta for ju bustana, 226 for ju mala gissuna, 227 presenta for mi berrua usnia eta berria bura, 228a ser travala for ju.

Argitara ziren garaian argitara zirelako, ez ziren ezagunegi ikertzaileen artean Mitxelenaren zenbait lanetako aipuen salbuespenarekin. Hiztegiile eta hizkuntz-historialarien ezaxolak, ordea, ez du zuritze errazik; ikus bertan aurki daitezkeen hainbat hitzen lehen agerraldiak.<sup>9</sup>

I, 12 kontramaestruba [\*1745]  
I, 14 harporie [arpoilaria, 1975]  
I, 35 abessa [apaiz, 1665]  
I, 45 leppagua [lepoko, 1715]  
I, 49 galsaria eta I, 112 galtzardia  
[\*XVIIlea]  
I, 60 calica [kaliza, 1643]  
I, 75 giacha [jaka, 1643]  
I, 77 ccopeta [1715]  
I, 82 koccotsa [\*XVIIlea]  
I, 104 escomuturra [1656]  
I, 108 cocua “nuez de coco” [\*1745]  
I, 137 berinia [\*XVIIlea]  
I, 138 heratsa [hareatza, ~1800]  
I, 153 boneta [1657]  
I, 162 angeredera [\*XIXb]

7. Hirugarren zerrendak ez ditu guztira ere 11 hitzok baizik: *passamana* “borda”, *cikumuturra* “muñeca”, *brasa* “los brazos”, *baso cikunja* “el brazo derecho”, *bushúor* “brazo”, *udula*, *estomaka*, *silkhúa* “ombligo”, *suspira* “suspirar”, *goetta* “pensar”, *tinta*. Bigarren eta hirugarren zerrendan soilik azaltzen direnatarik ditugu *agorienta* (II 40), *aita* (85), *alua* (154), *amua* (61), *andria* (80), *ardia* (112, 148), *arduna* (41, 218), *arotsa* (77), *arrana* (70), *ascho* (179), *ascho balia* (128), *attora* (107, 196), *avarga* (115), *bacchaliua* (131), *bai* (181), etab.

8. Ikus Lakarra 1994b-ko Urteren iruzkinean antolakuntza honen kidetasunak beste zenbait tradiziotan. DeJongh-ek (1949: 29) «These earlier vocabularies [frantses eta ingelesentzako Errenazimenduko gramatiketakoak] were heavily weighted with nouns» diosku. Hala dirudi lehendabiziko ehun hitzak miatuaz bestelakorik ez aurkitzean; alabaina, bi zerrendetan akaburantz asko gehitzen dira aditzak, nagusigoa ere erdietsiaz.

9. Hitzon aldamenekoa *Orotariko euskal hiztegi*-koarekin gehienetan bat doan eta erabilterrazago den *HLEH*-an ezarri lehenaren data da; orobat eman ditut han aipatu hitzaren bestelako formak (hobetsiak zein aurretiaz dokumentatuak).

- I, 168 ferra [1642]
- I, 184 barricia [\*XVIIlea]
- I, 224 hestula [1664]
- I, 227 barbera [1643]
- I, 235 daffalia [\*XVIIlea]
- I, 236 cuilada [koilara, \*1745]
- I, 245 biperra [1657]
- I, 265 gimbeleta [\*XVIIlea]
- I, 273 iscilimba (eta I, 451 iscilinia) [\*XVIII]
- I, 288 irla [1677]
- I, 310 estalbia [\*1745]
- I, 320 gattogumia [katakume \*1905]
- I, 325 gastambara [\*1745]
- I, 326 gassura [\*1745]
- I, 336 baresaria [\*1745]
- I, 337 latta [\*1745]
- I, 385 ardiliuva [adrailua, ~1700]
- I, 405 fereca [1853]
- I, 422 laureinca [laur-oinka 1643]
- I, 433 buta [bota, 1656]
- I, 436 hiderra [gider, \*XVIIlea]
- I, 474 cartsol [karsoil 1643]
- I, 495 fesua [fetxo, \*XVIIlea]
- I, 510 gylia [gila, \*XVIIlea]
- I, 512 carela [1897]
- II, 29 lavonia [labain, \*1745]
- II, 36 letoia [\*1905]
- II 64 canua [kanoa, \*1745]
- II, 75 gabon [\*XVIIIlea]
- II, 119 hatia [ahate, 1657]
- II, 195-6 bocata [\*XVIIlea]

## 2. Hizkuntz eskuliburuen tradizioa

Ez da Etxepare izan, jakina, nazioaren eta nazio hizkuntzaren garapen eta egoeraren arteko desorekaz historian zehar ohartu den bakarra. 1727an Sewel-en holandera-ingeles hiztegi ezagunaren hirugarren argitalpenaren eskaintzan aurkikuntza bera egiten zuen, *mutatis mutandis*, Evert Visscher argitaratzaileak: merkataritza holandarraren egiteko nagusia izaki, eta haren bitartez auzokoen eta urutiagokoen

begirunea lortua izan arren, beren hizkuntza —«beharbada kristau herrietan mintzatuetaik aberatsena»— ez zen bere lurraldetik landa ezagun. Egoera horretan, besteak beste, aterabide nagusi bat zekusan: hiztegiarena, alegia.

Merkatalgorako zuen garrantzia bide da (cf. Osselton 1973: 14) Noël Berlaimont-en *Colloquia*-en Holandako edizioetan ingelesa agertzeko arrazoi nagusia. Frantses-flamendar itxuran hasi zen 1530ean Antwerp-en lehen-dabizikoz atera zenetik mende eta hiru laurdenez Europa osoan zehar zabaldu zen liburu arrakastatsu hau; alabaina, ehunetik gora edizio izaki, asma daitezkeen gonbinaketa gehienetan bildu zituen latina, gaztelera, italiara, portugesa, alemaniera, ingelesa, txekiera, polskera eta bretoiera ere, noiz binaka, noiz hiru, eta are lau, bost, sei eta zazpiko taldeetan.<sup>10</sup>

Markatu beharra dago Berlaimont-en liburuaren eta haren gisakoak aski txikiak izan arren, erabilzaileei ez zitzaiela zorrak pagatzeko nola eska edota gutunak, ordain agiriak eta antzekoak egiten soilik irakasten: eriden zitzaketan, orobat, “hamar pertsonatako afaria” zeritzan elkarrizketa ere, nahiz eta afaltiarak elkari beren lanbidearen gorabehera nagusienez galdetzen zioten merkatariek izan.<sup>11</sup>

Bourland-ek (1974: 289) markatu legez berehala ohar gaitezke Berlaimont-en liburuaren izena aski nahasgarri gerta daitekeela —Voltaire-rena bezala, bigarren argitalpenetik aitzina-koak, bereziki—: *Vocabulaire* (nahiz *Interpret* zein *Tresora*) hori merkatariek eta eskola-haurrentzako flamendar-

10. Ikus Osselton 1973, 14. or. 44. oh., Bouchard 1974, Gallina 1959 eta, batez ere, orain Stein 1989.

11. Mendeotan era honetako liburu gehienak merkatarientzako ziren arren, ez ordea guztiak (cf. Osselton 1973: 19).

frantses hiztegi praktikotzat eratua bazen ere, gai ñabardura handia da bertan: erabilera arrunteko hitzen hiztegiño orokorraz landa, zenbaki eta egun izenen zerrendak, hiru elkarrizketa, merkatalgo gutun eta dokumentu-ereduak, Gure Aita, Agur Maria, Fedeko artikulua, Mandamentuak, bi bedeinkapen, eta frantses ahoskerari buruzko ataltxoa, 42 folio eta bi zutabetako liburuxkan. Osoa da bi hizkuntzetan, salbu eta frantsesez den hizkuntza horren ahoskerazkoa. Gordezten den lehendabiziko argitalpena 1536koa bada ere, badakigu eredia 1530 (agian baita 1525) baino lehenagokoa izan zela. Arrakasta ikaragarria izan zuen eta Londres, Varsovia zein Venezian argitaratu zen hainbat aldiz. Beren artean hainurruti ziren hiri horietan hizkuntza atzerritarrik ikasteko zen beharraz landa, bere etengabe-ko iraupena liburuaren benetako balioari atxeki dio Bourland-ek (1974: 291): hots, egilearen pedagogizaletasunari, elkarrizketen errealismo eta bizitasunari, gaien antolakuntza eta hizkera herrikoari.

Euskal Herrian ere islatu zen, betiko neurri apalean baino ez bada ere, lexikografi eredu hau. Horren barnean kokatzen dira erosoerik Voltaire-ren *L'interprète ou traduction du François Espagnol & Basque (Hirur lengoajetan tresora)* eta haren familia, eta baita Mikoletaren *Modo breve para aprender la lengua vizcayna* ere.<sup>12</sup> Bata Donibane Lohizune eta Ziburuko euskaran («denik ederrenean») eta Bilbokoan bestea, orain arte esandakoaren bermegorik azkarren ditugu, XVII.

mendean Euskal Herrian ziren bi portu eta bi merkatal gune nagusiak izaki.

## 2.a. Hirur lengoajetan tresora

Vinson 1891-97ko 12. zenbakia dugu L'INTERPRET | Ou Traduction du François E[ ]- | pagnol & Ba[ ]que de VOLTOIRE | CONTENAT | *Plusieurs Parties ain[ ]sin qu'e[ ]t Contenu à la Table | Denier E[ ]crite. | (fleuron) | A LYON | PAR A ROVYER Imprimeur du ROY. (s.d.).*<sup>13</sup> XVII. mende osoaren eta, beharbada, XVIII.aren zati batez beste edozein lexikografi lanek baino bizitza iraunkor, ugari eta are nahasiagoa izan arren, Voltaire-renak ez du arreta apartekorik erakarri euskal lexikografo eta filologoaren artean. Gutxi aurreratu da bere ezagutzan Brunotek «Nul biographe n'a, je crois, fait mention de Voltaire, écrivain tout aussi peu connu jusqu'à présent que si jamais il n'avait existé» (1845: 3 *apud* Vinson 1891) eta «Voltaire a laissé deux ouvrages devenus d'une extrême rareté» (ibid.) zioe-netik. Ez da harrizkekoa, Brunot-ek berak ere zozotzat («niais») baitzuen eta bere lantxoaren helburua ez baitzen liburuaren edukina zenbait bibliofilo, etnografo eta paremiologilariri erakustea baizik, beren lanetan balia ahal bazezaketen. Obraren generoa bera ez da ezagutu, bertako dialogoei batzuetan, hitz zerrenda edota gramatikaxoei gutxienetan, eman baitzaie lehentasuna, alderdi eta ezaugarri guzti horiek beren osotasunean harturik baino ezin jabe gaitzkeen arren Europa osoan hedatu zen lexikografi

12. Tradizio zabala zela –Kroaziara ere iritsi zen– eta euskaraz ere bertakotua, Vinson-ek (1892: 97-99) argitaratu zuen baina ezagunegi ez den Pouvrearen zirriborro batek erakusten digu; cf. Lakarra 1995b.

13. Bidebatez, *Orotariko euskal hiztegi*-ko «Referencias bibliográficas» delakoan erabilitako alearen deskribapenean «probablemente 1620» badakar ere «Relación de textos despojados exhaustivamente"-n «Volt. (c. 1640)» dator, arrazoi ez azalpenik gabe.



ereduaren ordezkari honetaz (cf. Lakarra 1995b).

Izan dituen zailtasunen larria markatzen du hitzaurrean egileak: egitekoa bera ez da oso trebatuentzat baizik, eta ez soilik –arauemailerik ez duen– euskarak gehitzen duen oztopoagatik; ortografiak, esanahiak, esapideak ezberdinak dira hiru hizkuntzetan eta are hizkuntza bakoitzean alde batetik bestera urrunegi joan gabe; badaki, orobat, ezin emango dituela sortu diren eta egunoro ere latinetik eta grekeratik eratorriaz nahiz “izpirituen” ahalara atereak; halere, egin beza zeinek bere erara eta orduan mintzatu ahalko da orotaz:

[i] AU LECTEUR SALUT

AMY IE TE DIRAY en peu de paroles, comme j'estime que tu remarqueras pour le plus important en ce mien Interpret ou Traduction du François, Espagnol, & Basque, les difficultes, doubtes, & contrarietes qui se rencontrent & se touuent ordinairement, non seulement en particulier à ceste traduction Basque, mais en toutes aultres, tant pour la diuerssite, sens, termes, & façons de parler, que notammant de l'orthographe, apostrophes, punctuations, & aultres particularitez diceux à tout les trois langages, mesmes au Basque, qui n'a point heu de correction autorisée, [ii] ou emologuée comme les aultres.

Tellement que je te prieray de croire, que si j'auois à commencer cest oeuvre que ie ne voudrois pour ce qui est de plus precieux en ce mon de me remettre en lisse pour en voir la fin ou lissue que j'en voids maintenant.

Comme aussi j'estime cest essay n'appartenir q'ua personages fort capables & experimentez en ces affaires

traductifs ou interpretatifs, en ayant volla icy suiuant, poser pour la langue françoise quelques exemples, de certains mots ou diction, que neaulmoings estants plusieurs diceuls differends en lettres & sillabes ne signifient q'une mesme chose, ce que ie treuue presque de mesme à l'Espagnol & Basque, pour la grand quantité & source des propos, mots, paroles, diction & termes q'on à jnuenté, inuente, & peult inuenter journellement, deriuant & sortant de ces antiques langages, gregs, latins & aultres, ov de la subtilité & jnuetiô des esprits de maîtenât [iii].<sup>14</sup> De sorte que ie ne doute point que je n'aye des controleurs & discoureurs à cause de ce difficile ouurage.

Mais je leur respondray briuement, que lors qu'ils en auront fait aultant à leur mode, par apres nous pourrons deuiser du tout considere que ce que j'en ay fait, cest pour le bien & comode du public & pour la jeneusse auecq grand peine, labeur & frais, de quoy je me contenteray pour le present sans aultre, estimant que du moings Dieu cognoistra mon intention & volenté.

Tu auras aussi à remarquer ou considerer comme ordinairement de trois ou quatre lieues en distance de Terre ou Pais, il ce void & ce treuue changement de langage, presque par tous endroits, & quil est impossible de comprendre ou rapporter dung particulier vng general, tant y à que pour le Basque ie lay traduit tel quil se parle au melheur endroit des Basques, qu'est à S. lehan de Lus & Siboure, que te sera pour aduys, & pour le François & Espagnol, [iv] les capables & experimentez scauent les differences & difficultez que se treuuent en eulx, comme j'ay dict cy dessus. A DIEU.

Hitzaurrearen gibelean ortografia<sup>15</sup> eta ahoskerazko praktikak egiteko

14. Cf. «In one of the earliest German grammars (printed in 1573) Laurentius Albertus observes that each day new words are being created, familiar and old words are fast disappearing. Lexically, the sixteenth and seventeenth centuries are indeed for German a period of peculiar ferment, its workings still largely unexplored» (Jones 1991: 132).

15. "Fantasiosa" Vinsonen arabera eta hala izan ere ematen ditugun adibidetarik atera gabe ohar daitekeenez.

zenbait adibideren ondoren, (gogora Betolatzaren dotrinako paralelismoa) «adverbioen, prepozizionaren eta con-jonctionaren» zerrenda dator gaztelera, frantses eta euskaraz. Gramatika era-bat lexikoa da, kategoria eta akzidente diferenteen nola-halako bilduma ze-rrendatua; sintaxiaz, hitzon konbinake-ta ahalmen eta mugez ez da inongo oharrik; izan ere, horretarako dira libu-ruko 132. orrialdetik azkenera, 280.era, hedatzen diren hamalau elkarrizketak (*Colloques ou dialogues propres & necessaires en diuers negoces & affaires pour la dite traduction*).

41. orrialdean hasten da, 131.era arte, *Dictionnaire alphabetique depuis lettre A iusques à V pour compter & pour les iours, semaynes, mois & ans* delakoa. Bi hizkuntzatan, frantsesa ezker, euskara eskuin, 14 bat hitz orrialdeko, 1250 bat pasatxo guztira. Alfabetizazioari dagokionez, titulu- agindua baino ez da betetzen, hots A- eta B- edota F- dutenak, demagun, sail berezietan doaz, baina ez da zer espero ai- nahita nahiez aa- edo ab- baino lehenago joatea. Izan ere hara lehendabiziko dozena pareta: *aube du jour - aer - argent - argentier - aigné - allumer - aise - allaicter - aliment - affronteur - amy - amour - aymer - appeller - alors - auec - aucunesfois - aussi - aujourdhuy - auanthier - aage - abbé - abondance - abreger*. Honela gertatu arren gainerako letretan ere, badu joera ordena alfabetiko orokorra gordetzera. Nabari denez (cf. Lakarra 1995-ko edizioa), euskarazkoak ez dira frantsesekoen ordain besterik, ez haien definizioak. Halaber, ez da "hitz zailen" (*hard words*) tradiziokoak: cf. *enfant, enfer, ensemble, ennemy, entrer...* E-F letrak hartuaz kalkulu txiki bat eginaz, aditz proportzioa aski handia, ia %30ekoa, erideiten dugu: "efforcer *borçhatzea*", "emprisonner

*prezundeguyan*", "endurer *pairatçea*", "enseigner *irakastea*", "ensepuelir *ehorstea*", "entendre *aditçea*"... soilik lehendabiziko hamaiken artean.

Hara hemen bere hiztegitxoan aurki daitezkeen lehendabiziko lekukotasu- nak:

acholatçea, edoquitçea, soucier: [1893]  
 ahalqueguabea, deshonté: [1630]  
 aitaso, grand pere: [1889]  
 aiuta, clistere: [\*1905]  
 aldamyoa, galerie: [\*XVIIlea]  
 alfertaçuna, paresse: [1643]  
 amabitchia, maryne: [\*XIXb]  
 anguyra, anguyle: [\*XVIIlea]  
 argalçea, amaigrir: [1627]  
 armyerma, aragne: [\*XVIIlea]  
 arraba, auron: [1643]  
 arrança, pescher: [1627]  
 arretogña, rat: [\*1745]  
 arrosarioa, rosaire: [1627]  
 aste lehena, lundy: [1636]  
 astochoua, asnon: [\*1745]  
 aytoren semeaq, nobles: [\* ~1700]  
 aytsignatçea, attiser: [1627]  
 baccallaba, molue: [\*1653]  
 balea, balene: [1627]  
 balesta, arbaleste: [1712]  
 baratçhoria, aux: [1643]  
 barrache, petit à petit: [1635]  
 barriqua, barrique: [\*XVIIlea]  
 baza, boue: [1627]  
 berdyn, pareilh: [1627]  
 berotaçuna, chaleur: [1643]  
 berouna, plomb: [1627]  
 bianda edo hasqunxa, allaicter (eta hazqunxa, nourriture) [1627, 2.a]  
 biquya, poix: [1627]  
 birbilsea, arrondir: [\*XVIIlea]  
 bisaia, face ou visage: [1627]  
 biscotçha, biscuyt: [\*XVIIlea]  
 bitigña, cheureau: [1643]  
 bolbora, poudre à canon: [\*XVIIlea]  
 borunssalea, culiere: [\*1745]  
 daffalla, nappe: [\*XVIIlea]  
 denda, boutique: [1627]  
 doatçuquy, heureusement: [1627]  
 dohacabea, malheureux: [1627]  
 dohacabequy, malheureusement: [1627]  
 dostatzea, esbatre: [1643]

edalea, biberon: [1643]  
 ederquy, belement: [1627]  
 eltçaurra, noix: [1643]  
 elçaurondoua, nouyer, arbre: [1925]  
 eltzea, pot: [1643]  
 enada, arondelle: [1660]  
 epherra, perdrix: [1664]  
 erquatça, balay: [\*XVIIea]  
 escantzea, desdier: [1627]  
 escoularrouaq, guands: [~1640]  
 espantetzea, espouenter: [1627]  
 esqoa, cire: [1630]  
 esquilla, cloche: [1621]  
 estagnoa, estain: [1664]  
 fardela, bale de marchandise: [\*XVIII]  
 ferrastzalea, mareschal: [1642]  
 festa, feste: [1705]  
 flaquatzea, affoiblir: [1657]  
 flascoua, flascon ou bouteille: [\*XVIIea]  
 flasqoua, bouteille: [\*XVIIea]  
 gabia, hune de nauire: [1627]  
 galçaq, chauffes: [\*1745]  
 gasna, fromage: [1657]  
 gatilloua, escuelle: [1858]  
 gatua, chat: [1657]  
 gorra, rouce: [1627]  
 gorritzea, rougir: [1643]  
 guela, chambre: [1627]  
 guelaria, valet de chambre: [1657]  
 gueresia, cerise: [\*XVIIea]  
 guerrena, broche: [\*XVIIea]  
 haga, perche: [1657]  
 haïstorraq, cizeaux: [\*1745]  
 handitçua, appostume: [1643]  
 herbia, liepure: [1643]  
 herenegun, auanthier: [1660]  
 herssea, bouyaux: [\*1745]  
 hessurra, os: [1643]  
 higuýtsea, bouger: [1627]  
 honça, liere: [1643]  
 horma, galée, glace: [1643]  
 iaqua edo giponya, pourpoint: [1643]  
 iayotçea, n'aistre: [~1660]  
 icatzguylia, charbonnyer: [\*1745]  
 iðurdea, daufin: [1627]  
 iðurria, peste: [1627]  
 idortzea, sercher: [1643]  
 igueltzoua, plastre: [\*XVIIea]  
 ihistatçea, chasser: [\*1745]  
 ihyntza, rosée: [1630]  
 illoba, nepueue: [~1640]  
 iraçaquitcea, allumer: [\*XVIIea]

irrassagarra, coyns: [\*XVIIea]  
 isterra, cuysse: [1627]  
 itsanya, bouyer: [\*XVIIea]  
 lacouba, laq: [1627?]  
 languoaya, langage: [1643]  
 larangia, or: [\*XVIIea]  
 laratza, cramaliere: [\*1745]  
 leçiba, lessibe: [\*1745]  
 lema, gouuernail: [1627]  
 liçuna, sale grand: [\*XVIIea]  
 linbourtzea, pancher: [1627]  
 linoa, luy: [~1640]

Ohar bedi zenbaitetan agerraldi ab-  
 solutoaren aldaketa dela eta bestetan  
 soilik forma horrena, Sarasolak beste  
 bat hobetsi duenean oinarrizko sarrera  
 gisa. Liburu osoan, aitzineko gramati-  
 katxoan eta, batez ere, elkarrizketetan  
 ere ez da horrelakorik falta:

3. anartean (1627)
7. gaistoquy (1696)
10. edolaric (\*1745, ~1740)
11. ac habatzecoua "l'infinitif"
11. guelan (1627)
35. ihorçeria (ihortziri 1686)
132. biyaietan (bidaia 1852, biaia 1627)
134. barathé barathé (1635)
135. lequoa (1630)
136. lohixu (~1640)
137. liçunqueria (~1640)
137. idortassunaq (\*XVII.ea)
142. idiçagner (~1640)
142. astoçagner (astazain 1802, astazai \*1562)
142. errepiraq (1630)
142. epaillez (1664)
144. arribera (erribera \*XVII)
150. couragya (1635)
156. astocho (\*1745, ~1760)
156. baqucoa (baketsu ~1760, bakeso 1656)
157. requeitatuquo (errekaitatu 1643, errekeitatu 1571)
157. guernu (1643)
159. gançu(tu) (1630)
160. ferratua (1642)
160. ferraq (1642)
160. ferratçalia (1642)
162. fregituriq (frijitua 1809, frijidu \*1652)

162. gusturiq (1627)  
 164. heper (eper 1664)  
 164. escutu (1626)  
 167. brodatzalie (bordatzaille \*1745)  
 173. baquan (1643)  
 179. esco (1630)  
 179. lignoa (~1640)  
 179. bourdincho[u]ria (\*XIX ea., 1893)  
 179. leton harya (letoi \*1905, leton ~1640)  
 179. alçeiroa (altzairu 1627)  
 180. coubratuquo (kobratu 1630; kobradu \*1562, 1818)  
 180. veronna (berun 1627)  
 180. estagnua (estainu 1661, estañu ~1640)  
 180. gagneracoua (1729)  
 181. gaur "gau hau" (1630)  
 182. astiro (\*1653, 1656)  
 183. limoniaq (limoi \*1562, 1818; limoni ~1640)  
 183. lorangeaq (laranja \*XVIIlea, 1818; larenje ~1640)  
 183. hildoaq (1643)  
 184. elçaura muscada (1643)  
 184. costumaq "dretchouaq" (1571 "aztura, oitura" [sic])  
 184. dretchouaq (1626)  
 185. garabiq (1630)  
 188. banquerouaren (bankari 1973, bankero 1918)  
 196. laurden (1636)  
 197. hartera(tu) (1643)  
 197. gaistotaçun (\*1745, 1761)  
 198. fite (1621)  
 207. aistorraq (aiztur \*1745, 1930)  
 215. quecha "presa" (1627)  
 228. harceqoaq (~1640)  
 232. ydicoa (1627)  
 234. ahala "ahalmena" (1627)  
 238. desencusa (1643)  
 239. itaiçuran (~1640)  
 243. capelu[guy]liaq (~1640)  
 247. calçerdi (galtzerdi \*XVIIlea, 1808)  
 247. locariaq (1630)  
 249. fintaçuna (1643)  
 251. valiotaçun (1635)  
 252. grissa (~1640)  
 253. larangiatua (laranja \*XVIIlea, 1818, larenje ~1640)  
 255. carestyæguy (garesti 1683, garasti 1627)

259. quarestiatcen (garestitu \*1745, ~1860)  
 261. erreçognaisquo (arrazoi \*1745, 1802, arrazoin 1545, razoin 1571, arrazio 1621, arrazoa 1653)  
 264. gipogna (jipoi ~1860, jipoe \*1745, 1929, jipon ~1640)  
 264. cazaqua (kasaka \*1741, ~1860)  
 265. beroquy (1643)  
 267. botonyaq (botoi \*1562, 1896, botoin \*XVIIlea, 1912)  
 267. cotogna (kotoi 1977, kotoin 1627)  
 267. compay (~1640)  
 274. combidatcera (gonbidatu 1627)  
 280. goardian (~1640)

Eta hau guztia *HLEH*-n diren hitzak edota haien aldaerak harturik soilik kontuan; ez dira hor amaitzen, ordea, liburuaren aberastasunak eta Sarasolaren hiztegiak, halabeharrez, ezin eman dezakeen XVII. mendearen hasierako hitz altxorren irudi osoagoa dakarkigu:

2 *colpe batez,*  
 7 *vertutezquy,*  
 22 *datorqueen de[m]boraq,*  
 25 *deffendaçen* "en defendant",  
 140 *bruma, arriba(tu),*  
 142 *entressa* "adresse", *astoçagner,*  
*adargabe,*  
 145 *banitcen,*  
 152 *abançatu, prepaus* ("pláticas, devis"),  
 154 *arroxa* "huesped",  
 155 *guaratossa* "lestrille",  
 156 *establia,*  
 159 *ostatatcen,*  
 163 *clareta,*  
 164 *appetitoriq,*  
 166 *holçadarraq,*  
 167 *issar atory, bestitary,*  
 168 *aizynaq* "latrines ou privéz",  
*esperatu,igna,*  
 169 *hostalarrua* "ostatu jabea", *bortala,*  
 170 *herrata* "fusil",  
 172 *[t]raffiquatceco,*  
 174 *compagna batean, debidycequo,*  
 175 *honesta,*  
 176 *entrada,*

178 *diru contante, loiala,*  
 180 *fornituquo, coubratuquo, camelotaq,*  
*breynaq,*  
 181 *botigua, cambiatu,*  
 183 *espeçieria, caressimoquo frutua,*  
*gingebrea,*  
 184 *baletaquo, precio gorean, despen-*  
*dioaq,*  
 185 *carricacho, cordelierequin, aluna,*  
*anglez,*  
 186 *eschangequo lettra, assignatciones-*  
*quo,*  
 187 *emeaq, harraq, 188 courreterarena,*  
*commoditate,*  
 189 *depositean, hiliaguyn,*  
 190 *calçatu,*  
 191 *ançia,*  
 192 *asseguratcen,*  
 193 *auaricios, comyesionetan,*  
 195 *cambioco courreterez,*  
 196 *conciñesquo guissona,*  
 197 *credit,*  
 201 *maletan, postean,*  
 204 *ouassemyary, guisson guyñerebary,*  
 205 *çamaz, barquan,*  
 211 *embaladorea,*  
 212 *pochoua,*  
 214 *gabeta, faistaix edo itçayn,*  
 215 *embarquatu,*  
 218 *facturaryequin,*  
 220 *faççhuçada,*  
 224 *areta,*  
 227 *errentaçale,*  
 228 *arquillaq "alquiler",*  
 230 *prisondeguyan,*  
 231 *quyta(tu)[zorra],*  
 236 *arnegatçen dut, despitaçen dut,*  
 242 *oyhal sericoscoren,*  
 245 *veloueta, cramoisitua, damassa,*  
 247 *diamantaq, esmeraudaq,*  
 249 *oyhalçalea "drapier", venycesquo*  
*escarlata, oyhaltailu,*  
 251 *beheresquo, moïenesquo, goresco,*  
 252 *bruna, ferde, incarnatua,*  
 253 *estameta, bayeta,*  
 258 *errabachatons,*

267 *fourraduraq, fustanya,*  
 269 *orquogñaren,*  
 270 *biquya "pez",*  
 271 *desplaçer, corduana, lustratoriq,*  
 273 *empacha "estorueis",*  
 274 *bilhet, etab.*

## 2.b. Mikoleta

*Modo breue para aprender la lengua vizcayna compuesto por el Id. Rafael Micoleta, presbytero de la muy leal y noble villa de Bilbao* Londresko British Museum-en (Harl. 6314) joan den mendearen azken hamarkadara arte argitaragabe gordetzen zen liburuxka dugu. Bibliografian (cf. Villabaso 1913: 568-569 eta Zelaieta 1988: 136-137) behin baino gehiagotan aipatu izan da eskuizkribuaren aurkikuntza tokiak ematen duen Bizkaia eta Ingalaterraren arteko merkatalgo erlazio estuen lekukotasun hau. Izan ere 1639an Bilbon kokaturik ziren atzeritarr merkatarien —batez ere ingeles merkatarien— zerrenda aski luzea dakar Teófilo Guiard y Larrauri-k (*Historia de la noble villa de Bilbao*, Bilbo 1906, II, 297. or.); horietako batek, Samuel Sainthill artile saltzaileak, eraman zuen eskuizkribua Ingalaterrara.<sup>16</sup>

Dodgsonen (1898) eta Azkuek (1928)<sup>17</sup> deskribatu duten bezala, 28 x 12 zm.tako 15 folio dira, "modo breve de sauer declinar los nombres vascongados", "conjugación de los verbos vascongados", "diccionario breve de vocablos los más usados en vasquencce propio, puestos por horden alfabética", "modos de contar", "diálogos" eta "modo de la vizcayna poesía y sus

16. Apud Zelaieta 1988: 137. or., oh. Museum-era Robert Harley-ren bildumaren barnean joan zen eta hark sir T. Browne —zeinari eraman baitzion Sainthill-ek— bere arbasoarengandik zuen.

17. Ez dirudi Azkuek aurrekoaren lan hori (bai, ordea, Sevillako 1897ko edizioa) ezagutu zuenik. Ez da bestela ulertzen urte horretan oraindik esatea «¿No podíamos dar con el autor del original castellano de estos diálogos? Me inclino a creer no sean del mismo Micoleta, sino de algún autor no vasco» (Azkue 1928: 219). Testuan esan bezala galdera hori ihardetsia zuen Dodgsonen.

versos” atalez osatuak. Mikoletarenez landa, eskuizkribuan bilduak dira ondoren Leizarragaren<sup>18</sup> Gure Aita bat, Kredo eta Gure Aita islandieraz.<sup>19</sup>

Mitxelenak (1960: 66) dioen legez, gramatikako oharra ez dira “argiegiak”: 6 kasutako deklinabidea egokitzen dio euskarari (soziatiboa eta inesiboa ablatiboan bilduz); euskal hitzak *-a* (singularrean) eta *-ak* (pluralen) amaitzen direla mantentzean, izenak “azken silaba jan” egiten duela azaltzen du adjetiboa hartzen duenean; orobat, *-ea-z* amaitzen diren hitz batzuek *-e-* galtzen omen dute pluralen, ez guztiek ordea: «también se nota que en algunos nombres que se acaban en *ea*, v.g. *espateá*, *lançeaá*, en los plurales se come la *e*, como *espatac*, *lançac*, mas no en otros –como *ajeac*, *queac*– esto enseñalo el uso» (!). Liburuxkan diren bi poesiak (*Amoren contentuac / estaude yrauten* eta *Dempora baten on oynerechu / baya mudadu nindia*) Ibon Sarasolak (1983: 87-88) “poesía galante vizcaína de los siglos XVI y XVII” bataiatu sailekoa dugu.<sup>20</sup>

Elkarrizketei dagokienez, Mikoletak bakarra dakar gaztelerez eta euskaraz, ezker-eskuin:

Diálogo primero para leuantarse por la mañana y las cosas a ello pertenecientes; entre un hidalgo llamado don Pedro y su criado Alonso, y un su amigo llamado don Juan, y una ama / Pla-

tika lelengoa oerean xaygueteco goxean, ta ari dagocasan gausena essatari Peru xauna derechan vategas vere osseyñ Alonsoen artean ta bere adisquide derechala Joane xauna eta asso bategas.

Mitxelenak zioenez (1960 [SHLV]: 414) dialogook berri interesgarririk lukete –orijinalak balira–<sup>21</sup> XVII. mendeko Bilboko pertsonen arteko harreman, janzkera, jan-edan edo altzariez (ez da libururik ageri, ordea) eta goizeko bostetan jaiki arren zeregin handirik ez zuen eta emakumeak laketegi ez zituen aitonen seme baten egunoroko biziaz. Haatik, aspaldi dakigu (Dodgson 1901: 100) elkarrizketa horrek orijinalik gutxi duela: Jonh Minsheu-k bere *A dictionary in Spanish and English*-i erantsi zion *Pleasant and delightfull dialogues in Spanish*-eko lehendabizikoa dugu (Dodgson 1901: 99-100); ez da halabeharrez 1623ko ediziotik hartua, ordea, Dodgson-ek nahi bezala. Era honetako ekoizpen anitzekin gertatu bezala, elkarrizketon argitalpenen historia aski korapilatsua dugu: hasteko, 1623koa ez da 7. argitalpena baino (cf. Foulché-Delbosc 1919: 77-80); lehendabizikoa 1599an egin zen Londresen.<sup>22</sup> Geroztik 1608an eta 1611an Cesar Oudin-ek gaztelera-frantses bilakatzen ditu; orobat, ondoren Juan de Lunak 1619 eta 1621ean eta Cesar Oudin-en edizio berri bat dator Dodgson-ek aipatu 1623koa baino lehen. Gero ere italieraz jartzen ditu Lorenzo

18. Ez zuzenean *Paulus Morale Cosmographis* “o lo que sea” (Azkue 1928: 220) baten bitartez baizik; “lo que sea” hori P. Merula-ren *Cosmographia* ezaguna da, jakina (cf. Dodgson 1898: 38 haren zein ediziotatik hartua izan daitekeeen ikusteko).

19. Dodgson-ek markatzen duenez (1898: 35) «on the back of the volume at the British Museum containing the original, these words are printed *Italian & Biscayan Gramm.* [...]»; italierazkoak ez du, ordea, inork bestelako berririk eta enkuadernazio huts edota aldaketatzat hartu beharra dugu.

20. Ez nahita nahiez bereak; cf. Lakarra 1996f, 4. kapitulua.

21. Baldintza hori da, dirudienez, A. Irigoyenek ikusi ez duena “Biibo eta euskera” (*Euskera* 22, 1977, 389) Mitxelenari jazar egiten dionean.

22. Horren berri badu Sarasolak ere (1983: 188, 8. oh.) S. Martín Gamero-ren *La enseñanza del inglés en España*-ren bitartez (Madrila 1961).

Franciosini-k 1626, 1638 eta 1648an eta are italiara, alemana eta frantsesa gehitzen dizkio gaztelerari bigarren Oudinek, Antoine-k, 1650an, guztiak Mikoletarenaren aurretik. Hor-tik aurrera elkarrizketok gazteleraz, frantsesez, italiaraz eta ingelesez, hizkuntzok era ezberdinetan gonbinatuaz, XVII. eta XVIII. mende osoan argitaratzen dira oraindik (cf. Lakarra 1995b).

Hiztegiek 750 bat hitz dute, oro har alfabetikoki zerrendaturik, noiz edo noiz (*agra - agalla - agua; aguja - alfiler - aguçar - ahogar*) oso hertsiki ez bada ere. Asko eta asko dira beren artean lehen agerraldiak (*larguro, susculdu, quetu, cucu sagarra, uriolea, belleguia, exetu*, etab.) hapaxen bat ere falta ez delarik, behar bada.

### 3. Pouvreau

Pouvreauren lanaren balioa gorai-patu eta ondoko hiztegi-gileek dioten zorraren handia markatu arren akats bat aurkitzen zion Mitxelenak: «Erru bat du izatekotan: izan ditezkean itz erakariak, ez direnak bakarrik, sartu dituela zenbait aldiz, dirudienez beintzat.» (1961: 370). Lakarra 1995a-n astiroago azaldu zenez, berba gehienek ez dute ez itzulpen ez iturri markarik eta zenbait hurbilagotik miazten baditugu badirudi alor semantiko horretako bat edo beste aditu edo irakurririk gainerakoak euskal morfologiaz, atzizkien baliabideez zehazki, zekiena erabilirik osatuak direla. Mitxelenak P-ren “bekatu” hau arintzat edo hedatutzat jotzen zuen; ezaugarria, ordea, egileak

ez “damukizun” baina bere sistemaren (eta ereduaren eta garaikideen) oinarri-zat zuela ikusten dugu.

Mitxelenak esandakoaren aurka, P-ren hiztegia ez da –lehenago Covarrubiasena ere ez zen bezala– “de autoridades”;<sup>23</sup> Pouvreaux badu, haatik, Covarrubias-enetik funtsezko bereizkuntza testuen aipamenei dagokienez: Covarrubias-ek Scapula grekerarentzat, Nebrija-ren *Vocabulario*a berba teknikoaren latinezko ordainentzat, Calepino-ren hiztegia definizio eta aipu latinezkoentzat, Alunno italiarazko aipu eta etimologientzat, Tuscanella-ren hiztegia ordain frantsesentzat, Guadix eta López Tamarid etimologia arabeentzat, Bovelles eta Brocensea gainerako etimologientzat, Laguna botanikarako, Hortelius geografia izen-tarako eta Mariana, Morales, Pineda eta Garibai Espainiako historiako behintzat erabili zituen; Pouvreaux aitzindaririk eta lanabes egokirik ez izanik, gutxi edo asko, berak bilatu behar izan zituen hiztegian emandako definizioekin bat etor zitezkeen pasarteak. Covarrubias-engan, ordea, ez da honelakorik: «Covarrubias ne consulte jamais directement les textes classiques [asko badakar ere]» diosku Lepinette-k (1989: 299).

Larramendirekin lehenago eta gero Urterekin egindakoaren antzekorik (ustezko teoriaren eta benetako praktikaren arteko erkaketa) egin dut Pouvreaurekin (cf. Lakarra 1995a). Datuak adierazkor iruditzen zaizkit: 146 eratorri edo konposatuotarik 63 (% 43,1) ez dira HLEH-n; 27 (% 18,4) bada dira eta P-rengan ediren da hain zuzen

23. Ikus Lépinette 1989 Seco-ren aurka. Lépinette-k erakutsi legez Covarrubias ez da sail horretakoa zeren eta «ce concept d'autoridades –tel que nous l'entendons aujourd'hui et tel qu'apparemment Seco le conçoit, i.e. phrases exemplaires dont le rôle lexicographique est celui d'adjuvant dans un processus d'explicitation sémantique de la langue –espagnole ici– et en même temps, celui de réalisation modélisée dans un discours valorisé, est dans tous les cas, totalement étranger à Covarrubias» (Lépinette 1989: 301).

beren 1. agerraldia; 10-i (% 6,8) beranduagoko agerraldiren bat jarri zaio hiztegi horretan, nahiz eta P-k dagoneko delako hitz hori ekarri eta 46 (% 31,5) P baino lehenagotik lekukotasunen batekin dugu. Bestela esan, Pouvreauk berritu egiten du % 68,5ean eta, beharbada are gehiagotan.

Azaleko azterketa huts bat aski dugu ikusteko *HLEH* horretan P-rengandik hartuak duen pisua; A-I letretan

(osoaren erdian edo) P-rengandiko lehen agerraldiak 378 sarreratan aurkitzen ditugu, eta haren hiztegia da lekukotasun bakarra urte askoan. Bestalde, bada ikertu letrotan eta gainerakoetan ere hainbat sarrera non Sarasolak ez dituen P-ren aldaerak hobetsi euskara baturako (haien berri eman arren) zaharrenak izan edo ez eta, inoiz, aldaera horretan zein bestetan Sarasolak bere hiztegian sartu ez dituenak.

<i>abadetasun,</i>	<i>alamen,</i>	<i>azorria,</i>	<i>bia,</i>	<i>damnagarri,</i>
<i>abadetu,</i>	<i>alartze,</i>	<i>azpikotasun</i>	<i>bigarrendu,</i>	<i>deabrutu,</i>
<i>abadot(a),</i>	<i>alasa,</i>	<i>aztiketa.</i>	<i>bihurdura,</i>	<i>debekatzaile</i>
<i>abantailatsu</i>	<i>alatu,</i>	<i>babatu,</i>	<i>bihurkatu,</i>	<i>dirutu,</i>
<i>abatz,</i>	<i>aldamio,</i>	<i>bafa,</i>	<i>bihurritu,</i>	<i>diruzale,</i>
<i>abegi,</i>	<i>alderdi,</i>	<i>balakatzaille,</i>	<i>bijilia,</i>	<i>dixidari,</i>
<i>aberatsaile,</i>	<i>alferki,</i>	<i>baldatu,</i>	<i>bikeztatu,</i>	<i>dixidu,</i>
<i>aburska,</i>	<i>alka,</i>	<i>balditu,</i>	<i>bilaka,</i>	<i>dohakabetu,</i>
<i>adaki,</i>	<i>almute,</i>	<i>balezteri,</i>	<i>bilgor,</i>	<i>doilorki,</i>
<i>adelatu,</i>	<i>altxaldi,</i>	<i>baltsamu,</i>	<i>biligarro,</i>	<i>doilortasun,</i>
<i>adintsu (2),</i>	<i>ametz,</i>	<i>barrika,</i>	<i>bilur,</i>	<i>doilortu,</i>
<i>adoratzaile,</i>	<i>amezti,</i>	<i>beberin,</i>	<i>bilurtu,</i>	<i>dolare,</i>
<i>ageriki,</i>	<i>andazain,</i>	<i>bedatse,</i>	<i>biratu,</i>	<i>donabera,</i>
<i>agertzaile,</i>	<i>andegatu,</i>	<i>begietaratu,</i>	<i>biribildu,</i>	<i>dorpetasun,</i>
<i>agiri,</i>	<i>andura,</i>	<i>behatzaille,</i>	<i>biribilki (1),</i>	<i>dorpetu,</i>
<i>ahagozo,</i>	<i>anega,</i>	<i>bekulari,</i>	<i>biribiltasun,</i>	<i>dosteta,</i>
<i>ahaidetu,</i>	<i>anoa,</i>	<i>belatz (2),</i>	<i>biriteri,</i>	<i>dudatsu.</i>
<i>ahaldun,</i>	<i>antena,</i>	<i>beldurkor,</i>	<i>bitika,</i>	<i>ebakidura,</i>
<i>ahalegar,</i>	<i>antxo,</i>	<i>berdintasun</i>	<i>bixika,</i>	<i>ebakitzaille,</i>
<i>ahalkeriak,</i>	<i>apurtasun,</i>	<i>beregaindu,</i>	<i>bokata,</i>	<i>ehorzle,</i>
<i>ahalketi,</i>	<i>apurtu,</i>	<i>beregaintasun</i>	<i>bokateri,</i>	<i>elar,</i>
<i>ahalkor,</i>	<i>ardagai,</i>	<i>berina,</i>	<i>bokater,</i>	<i>elitzagor,</i>
<i>ahalusain,</i>	<i>ardai,</i>	<i>bermagune,</i>	<i>bolari,</i>	<i>elurtsu,</i>
<i>aharzat,</i>	<i>areatu,</i>	<i>berogarri,</i>	<i>bolbora,</i>	<i>elurtu,</i>
<i>ahats,</i>	<i>arkara,</i>	<i>berokeria,</i>	<i>bordari,</i>	<i>emalege,</i>
<i>ahazuri,</i>	<i>arpin,</i>	<i>berregin,</i>	<i>borratu,</i>	<i>emaztegai,</i>
<i>aheri (1),</i>	<i>arrabitari,</i>	<i>berrerosi,</i>	<i>bortazain,</i>	<i>erakarle,</i>
<i>aholkatu,</i>	<i>arrapo,</i>	<i>berrerosle,</i>	<i>bortiztasun,</i>	<i>erantzule,</i>
<i>aihertsu,</i>	<i>arrastelu,</i>	<i>berrerospen</i>	<i>bortxatzaile,</i>	<i>erdeinu,</i>
<i>ailis,</i>	<i>arrubi,</i>	<i>berritsu (1),</i>	<i>boska,</i>	<i>erdizka,</i>
<i>aingira,</i>	<i>artekari,</i>	<i>beruinatu,</i>	<i>botagile,</i>	<i>erkatz,</i>
<i>aio,</i>	<i>artezia,</i>	<i>berundatu,</i>	<i>botikari,</i>	<i>erlastu,</i>
<i>aipu,</i>	<i>aska,</i>	<i>beruneztatu,</i>	<i>burbuila,</i>	<i>ernatzaille,</i>
<i>akabo,</i>	<i>askari,</i>	<i>bestaberri,</i>	<i>burrumba,</i>	<i>erpil,</i>
<i>akelarre,</i>	<i>astalkatu,</i>	<i>beta (1),</i>	<i>buruxka,</i>	<i>erpiltasun,</i>
<i>akerki,</i>	<i>astalko,</i>	<i>betalde,</i>	<i>buruzagitasun</i>	<i>errape,</i>
<i>aketz,</i>	<i>atsegintasun</i>	<i>betezpal,</i>	<i>butoi,</i>	<i>errefera,</i>
<i>akuilu,</i>	<i>atsegintsu,</i>	<i>betierekotu,</i>	<i>buzoka.</i>	<i>erreferatu,</i>
<i>alababitxi,</i>	<i>auhendari,</i>	<i>betile,</i>	<i>dafaila,</i>	<i>erregagai,</i>



erregu (2), erreki, errentatu, erretortasun, erribera, ertangora, eskaintzaile, eskatima, eskupe, espal, estainuztatu, estalgarrri, esteka, estreina, estreinatu, etxezain, ezagutzagabe ezarian, ezkabia, ezkabiatsu, ezkerdo, ezkoztatu. fededun, fetxo, fetxoki, fetxotasun, finkotasun, floka, frankotasun, fruitutsu. gainditu, galerna, galgo, galkor, galtzerdi, ganga, gantz,	gantzu, gapoin, garabi. garaitiko, garatosatu, garba, garbatu, garbigarrri, garlopa, garraiatzaile, garranga, garta, gata, gateatu, gatzagi, gatzontzi, gaziki, gaztainondo geheli, geinatu, gerba, gerezi, gereziondo, gerren, geurtz, gidatzaile, gider, gila, ginbalet, gindax, girgil, girtain, gogalgin, gogoramendu goibeldura, gordintasun, gorgoina,	gorgoinatu, gorringo, gorritasun, gurbil, guretu, guriki, guritasun, guritu, gurutzefika, gusu, gutiziagarri. habailari, habirakoi, halatsu, handizki, hankor, hantura, hargintza, harilkai, harilko, harizkando, harpa, harpiko, harrigarri, harrigarriki, harrigarritasun harritsu, hasbeheratu, hasgorapen, hastiatu, hastiotasun, hauskortu, haxelari, hazaita, haztamu, hegi, heldura,	helzakitza, herabetasun, herabetu, herauts, herenkusi, herexa, herren, herskailu, hezurki, higadura, higidura, hikatu, hildura, hisiti, hizkatu, hiztegi, hordigarri, horitasun, horni, hornidura, horratu (2), hostope, hur, hurrondo, hurrupari. ibi, ibilbide, ibilketa, idiki, idortasun, idorte, igeltsu, igeltsuztatu, igerikari, igerikatu, igeriketa, ihardesle,	ihardespen, ihinztatu, ikasgo, ikastun, ikusle, inauteri, indardun, inurritu, iraka, irakurle, irasagar, irasagarrondo iratzargarri, iratze, iraungidura, irazki, irazkitu, iraztor, iresle, irribera, irrigarriki, irrits, irritu (2), istape, istildu, isun, itsape, itsuski, itzain, itzaingo, izartegi, izengoiti izipera, izokin, izur.
---	--	---	--	--

A letran lehen hamar orrialdeetako eratorri eta konposatuak biltzen badira 101 sarreretatik *HLEHn* ez dira P-ren 42, dagoeneko harengandik (hiztegitik nahiz testuetarik) batuak ziren lehen agerraldi bezala beste 17, 10 itzuri egin zaizkio hiztegiileari P baino beranduagoko lekukotasuna eman baitzaie eta, azkenik, 32 P baino lehenagokoren batengandik jasoak zituen. P-k ez zuen aurreko inorengan irakurri ahal izan hiztegiaren zati honetan agertzen den eratorri eta konposatuen % 68a

eta, agian, areagokoa dugu berak lehendabizikoz paperean jarriaren kopurua. Zifra hauen antzekoak dituzkegu hurrengo letran egin saioan: 86 sarrera aztertuetarik 33 (% 38,3) ez dira *HLEHn*; 8 (% 9,3) agertzen dira eta P da bertako lehen agerraldia; beste 16 kasutan (% 19,6) P baino beranduagoko lekukotasunen batekin datoz eta 29tan (% 33,0) lehenagoko lekukotasunarekin. Berrikuntza portzentaia ere oso gertu dabil orobat, % 67tik gora.

Pouvreuren hiztegiko zenbait sarrera hurbilagoetik miatzen badugu badirudi delako alor semantiko horretako hitz bat edo beste aditu edo irakurririk gainerakoak euskal morfologiaz, atzizkien baliabideez zehazki, zekiena erabilirik osatuak direla: cf. Bilbao 1992-n *bakarra, bakoitza, deskonsolazionea, desohoratzea, doillorra, dolua* eta beste askoren hitz-familiak adibide gisa. Bada Bilbaok egindako C-ren edizioan Pouvreuren lan egiteko moduz ikas daitekeen haboro: oinarriak ezkerretara eta gainerako eratorriak barneraxeago sartuak ikusten ditugu; argitaratzaileak dioskunez «hiztegi etimologikoetako gisara, multzoka antolaturik daude bi eskuizkribuak [A eta C]; sangratuaren bidez adierazi ditugu guk multzoak, multzo bakoitzeko lehenengo hitza gainerakoak baino ezkerretarago emanaz» (Bilbao 1992: 349).<sup>24</sup>

A eta B hiztegi kopiak erkatzerakoan kopien arteko ezberdintasunei, erdal iturriari eta hiztegi osoaren ekoizpenari dagokion puntu axolazkoa –«B-n ez dagoela A-n (*añua*-raino nahikoa usu, eta hortik aurrera noizbehinka, baina amaieraraino) agertzen diren gaztelaniazko definiziorik, ezta erretraurik ere»– gaztigitzen digu Kerejetak (1991: 868-9). Dirudenez P-k goitik-beherako ikustaldi bat egingo zion bereari aldamenean gaztelaniazko hiztegi bat zuela, hauek guztiak erantsiz. Garai batean Covarrubiasen *Tesoroa* erabil zezakeela pentsatu zuela aitortu arren, erkaketa baten ondoren ez hori baina Cesar Oudin-en *Thrésor des deux langues française et espagnole (... Reueu, corrigé et augmenté d'une infinité d'omissions, additions, locutions, phrases, proverbes,*

*sentences & recherches tirées du Trésor de Covarrubias)* du Kerejetak Pouvreauk erabilitako gaztelerazko ordainen iturritzat.

Oudin erabili duela ezin argiago agertzen zaigu gaztelerazko ordain zenbait astiro miatuz gero. Eta honen ertzean direnek argiro erakusten dute Pouvreauk egiten duen Oudinen erabilera zabala. Izan ere erabilera horrek ez gintuzke harritu behar, Gili Gaya-k (1949: xxii) «su influencia fue tan grande que puede decirse que todos los diccionarios bilingües y plurilingües deben algo al *Thrésor* de Oudin, y algunos se limitan a copiarle o traducirle con pocas alteraciones» dioenetik. Bere hiztegia osatzeko Oudinek Pallet, Hornkens eta Covarrubias erabili zituela erakutsi zuten Cooper-ek (1960a, 1962a) eta Verdonk-ek (1979); beranduago Guerrero-k (1988: 502hh) Nebrija gehitu du haren iturrien zerrendan, izan ere Pallet, Hornkens eta Covarrubiasen Nebrija-rengan jaso ez zituztenak hartzen baititu Oudinek. Guerreroren analisiak badakarke P eta euskal hiztegien ikerketarako ere ezinutzizko den aitzinamendurik. Beste lexikografoenarekin egin legez, Nebrija-ren obra Oudinek nola egokitu duen aztertzerakoan hiru sail egiten ditu Guerrerok: lehenengoan Oudinek Nebrija-rengandik, isilpean edo aitorrarrekin hartutako hitzak dira; bigarrenean (gutxienak) Nebrija-rengan ziren eta Oudinek ezabatzen dituenak. Goian ikusitako P-ren Oudinen hiztegiaren erabilerearen ondoren, gehien axola zaiguna hirugarren saila dugu zalantzarik gabe:

El procedimiento seguido por Oudin para añadir palabras consiste funda-

24. Badirudi Pouvreuren hiztegiari ere (orobat beranduago honen zordun den Lhanderenari) ongi dator kiola von Gemmingen-ek (1992) Covarrubias-en *Tesoro de la lengua española*-ren makroegitura aztertzean aurkitu eta, seguru asko, beste hainbatetan ere betetzen dena; cf. Lakarra 1995a.

mentalmente, como ha señalado Cooper, "en aumentar el número de artículos fabricando, por así decirlo, derivados a partir de voces procedentes de alguna de sus fuentes (Hornkens, Pallet y otros)". Hemos podido comprobar que Oudin es el lexicógrafo –entre los estudiados– que forma más derivados a partir de vocablos existentes en Nebrija. *Algodonadura*, *algodonar*, *algodonado* derivadas de *algodón*, *aliuiado*, *aliuiador*, *aliuiamiento* a partir de *aliuio* o *aliuiar*, *aliñado* de *aliñar*, *almejal* y *almejero* de *almeja*, *almenar* y *almenado* de *almena* [...]. De un total de 3781 entradas contabilizadas en la A de Oudin, frente a las 2437 en la A del vocabulario nebrisense, 1216 vocablos, que suponen 1432 entradas, el 37,88 % son comunes, otros 168 más, que suponen 182 entradas, el 4,82 %, están de alguna manera en Nebrija; y 2059 vocablos, que suponen 2167 entradas, el 57,30 %, son no comunes, aunque, mucha de ellas, resultan derivadas de vocablos existentes en Nebrija. [...] De todas maneras, Oudin no se limita en modo alguno a plagiar a sus predecesores, sino que teniendo en cuenta estas fuentes, tuvo la habilidad de construir un diccionario que podemos considerar el de mayor originalidad de los diccionarios bilingües (Guerrero 1988: 505-506).

Guerrerok gogoratu zigunez (1988: 506) Oudinen hiztegia hiztegitile anitzen (Sobrino, Franciosini, Vittori) iturri izan zen; ikusi dugunez, baita hark aipatzen ez duen Pouvreurena ere. Baina guretzat gertakari honek Guerreroren zerrenda gehitzeaz landako garrantzia du; delako iturri baten erabilerak ematen digu berririk hiztegi batez,<sup>25</sup> honen eraikuntzan erabilitako metodo eta erizpideez, egituraz, helburuez... Lépinette-k (1989: 264) espainiera-italiera eta italiera-espainiera lexikografiako lehen

bi hiztegitileak (Cristóval de las Casas [1570] eta Franciosini [1620]) erkatzerakoan zera zekusan:

Franciosini fait figurer d'une manière exhaustive, les dérivés d'une même famille (incluant même parfois les diminutifs non lexicalisés d'adjectifs et de substantifs): dans notre échantillon, *ocasión* est accompagné –si nous omettons la phraséologie– de *ocasionar*, *ocasionadamente*, *ocasionado*, *ocasionador*, alors que Las Casas présentait *ocasión* et *ocasionado*.

Bestetik, Cooper-ek (1962a: 319) Pallet eta Oudin-en erlazioez ikusia:

Ciertos artículos de P[alet] faltan por completo en O[udin]. El cotejo de unas treinta páginas de P (o sea un total de 2.000 artículos) con las correspondientes de O me ofreció algunos resultados interesantes: Oudin elimina 46 artículos de P, 26 de los cuales son derivados en *-or*. Parece ser que Palet formaba mecánicamente esos derivados definiéndolos mediante una oración de relativo (*desfamador* "qui diffame", etc). Muchos de ellos son seguramente creaciones caprichosas que no se debieron usar nunca en la lengua viva (*degotador* "qui dégoutte", *desarrugador* "qui desride", *desatador* "qui deslie", *descaminador* "qui fait esgarer", *desembravecedor* "qui aprivoise", *desgreñador* "qui escheuèle", *despegador* "qui destache", *desvirgador* "qui despuçelle", *embrocador* "qui passe quelque chose par un trou", *empeorador* "qui empire", *empuxador* "qui pousse"), y nada de raro tiene que Oudin los haya rechazado.

Baina ez bedi inor nahas; Oudin-ek kasuan kasuko eratorriak, hemen bezala inoiz edo behin delako atzizki batez eratuak oro ezabatzeak ez dakar aitzindari(ar)en, sistemaren beraren

25. Ikus, hurrenez hurren, Lakarra 1991 eta 1996a Harriet eta Larramendiren hiztegiez, eta L-ren Eraskina eta RS-ez; testu-iturri berreraiketa berezi batez (RS eta Hernán Núñez-en bildumak) ikus Lakarra 1996f-ko 2. kapitulua.

aurka egotea. Hasteko Lepinette-k (1991: 35) erakutsi legez «Oudin complète les séries de dérivés et place toujours en tête de l'une d'elles, le verbe de la famille». Eskuarlean dugun kasuan ere hiztegiak iturrian (Oudin-engan) zituen gero berean oinarritzat ikusten ditugun hitz-familiak; usu iturriarenak progotxatuaz eraikitzen ditu bereak eta, iturriak bezala, morfologiaz eta eratorpenaz dakiena baliatzen du hitz-familia horietan kokatzen dituen berbak, zaharrak eta berriak ematean.<sup>26</sup> Izan ere, zergatik ez gogora egilearen hiztegi honen aurrean diren gramatikazko ohar ezezagunegietan<sup>27</sup> askorekin nagusigoa zerk daraman? Bertako "adibideak" mia bagenitza oso ondorio markagarriak genituzke: 51 eratorritik 23 ez datoz HLEH-n, 7 Pouvreaurengandik hartuak ditu eta gainerakoak lehenagoko testuetarik; hots ia % 60a da berrikuntza.

### 3. Urte

Oraindik Urtek berea egiteko erabili zuen latinezko hiztegia zein zen zehazki ezagutzen ez badugu ere, badi-rudi handitara egina zela, azpisarrera eta fraseologia aberatsaz hornitua. Euskarazko ordainak ere ugari dira; *acceptabilis* "hargarria, agradagarria, maitagarria, onhetsgárria" dugu; *aueruncandus* "urrundu, khendu, aldartu, apartatu beharra, debecaturicacoa, esmaratu(ricacoa), pategatu(ricacoa), sossegatu(ricacoa), khassatu(ricacoa), urruntcecoa, [id gainerakoe kin], urrundu behar dena [id gainerakoe kin]"; ez dira bakan, arau baizen. Urkizuren Urtereri buruzko lanaz geroz orain haren bizitza eta lanaz lehengo aldean zehaztasun eta berri haboro

izan arren, funtsean ez dirudi haren hiztegi gintzazko irudia aldatu denik. Larramendiri helburu garbizaleengatik hainbat hitzberri asmatu beharra leporatuz eta garbizalekeriaren gaitzez mintzatu ondoren, «Urtek erdaratik hitz pila bat hartzen du, Leizarraga beskoiztarrak baino areago oraindik» kontrajartzen dio Urkizuk (1989: 107-109), «argi eta garbi ikusten da inongo aurre-iritzirik gabe, nondikan zetorren hitza gutxi axola zaiolarik zerabiltzala Urtek hitz guzti horiek, eta horrela jokatzekeo arrazoi bakarra bere sorterrian eta hazerrian, Donibane Lohizunen, horrelaxe erabiltzen zituztela, duela» ere gehituaz eta *abade*, *abadesa*, *abandonatu*, *abantail*, *abarizia*... adibidetzat emanaz (1989: 438).

Donibanen maileburik zatekeenik eta han ikas U-k ez dut nik ukatuko; zalantza gehiago dut, Mitxelenak aipatu eta Urkizuk berak askozaz zabalago ikertu U-ren bizitza ibiltaria ezagutu ondoren, guztien etorkia hangoa denentz. Urkizuk Larramendiri han-hemen kontrajartzen dion U-ren herrikoitasuna, ordea, beste alderdi nagusi batetik ere pitzatua dugu: hiztegiak "jatorrei" kontrajartzeko asmatua dirudien Larramendiren irudi zabalduak ez du oinarririk; orain dihoakigun mailebuen arloan erka bedi U-ren mailebuekiko eskuzabaltasuna Hirukoitzaren lehendabiziko orrialdeetan (gainerakoetan jaidura ez da aldatzen) eriden daitekeen ustezko jazargo eta garbizalekeriarekin.

Behin baino gehiagotan ukitzen ditu Urkizuk Urteren hiztegian ageri diren hitz konposatu eta eratorriak; *kontr*-dela eta «askotan azaltzen da eta oso herrikoia da» diosku adibideok hauta-

26. Ikus Lakarra 1995a honek Pouvreauren lekukotasunekiko suposatu zalantzez.

27. Ikus bitez Vinson (1892)-n; ez dirudi, bidenabar, Vinson finegi aritu zenik iruzkinean (cf. Lakarra 1995a, 1996e).

tuaz: *kontragaitz, kontrapasio(ne), kontrapozoin, kontraparte, kontrapisu, kontrasorgin, kontregin, kontrintresa, kontrusantza...* (1989: 111); Mitxelena eta Villasante aipatuaz euskarak *desaurrizkia* duela erabili gutxietan emankortasunen bat lortu duena markatu ondoren Urkizuk Urterengan aurkitua damaigu:

hona hemen guk Urteren baitan idirendako adibide guti batzu, zerrenda luzeagoa *125-tik gora* [etzana neurea, J.A.L.] nahi duenak berregituratu, aurreragoxeago aurki dezakeelarik:

DES: *desagradagarria, desaitorra, desaltagarri, desamarratu, desandregaitu, desanimatu, desaprobatu, desaproposki, desarrazoin, desabazartu, desegarritu, desuzartu...* (1989: 110-111).

Aurrerago *alkimista* ez baina, «hobeki», *alkimigile, alkimigin* darabilela; *aitzin-, atze-, basa-, ber-, bertzen-, ema-, erdi-, ez-, haz-, lehen* eta *ugaz*-erakusten zaizkigu Urteren lekukotasun aipatu ohi den euskararen aurrizki eskasiaren faltari aitz (1989: 115; ikus bertan adibideak); hitzen eraketari dagokionez «jator, herrikoï eta bizi agertzen zaigularik hemen ere» aurkezten zaigu (1989: 124), etab. Alabaina, orain arte bildutako datuek ez dute U-ren herrikoitasuna bermatzen Urkizuk nahi bezala; bera da, bestalde, 129. orrian Azkue eta Lhanderen hiztegietan agertzen ez diren eta Larramendirenak «bezain egoki *asmatuak*» diren hitzak aipatzen dizkiguna,<sup>28</sup> eta 134.enean «gure uste apalez Urte Larramendi bezala edo antzera ibilia izango zen ere Lapurdi eta Xuberoa aldeko belardi, zelai, soro, mendi, eta baserrietan galdezka eta bilduaz arloan

hitz sailak, eta horrela bildutako izendegiez baliatuko zen dudarik gabe latin hiztegia itzultzeko eta hitz bakoi-tzari bere ordaina emateko» esaten bada ere, handik aurrera biltzen den zenbait alor semantiko begiztatu ondoren neke zaigu hori hertsia-hertsian sinestea.

Hor diren *arimegoitza, arrazoinlari, basajainkotasun, bataialari, desaitorra, erdijainko, fraidetegi, katikisatzailen kronikiskribalari, oroiltliburu, ostiatoki, obrasmatu, obrasmatzaille, bankarrutgile, bizerrege, dirutoki, parlamentegi, parlamentetxe, dirubankazain, harrimorroilgile, merkaturiazain, eta hiztegian eriden daitezkeen dozenak (abuaztagarri, adarbestiadi, adiskidea-razgarri, aflijgarri, agradagarritasun, ahantzarazgarri, aitzinguardia, akusagarri, akusalari, alarguntasun, aldaron-tasun, etab.) horrela ote?<sup>29</sup> Etorkiaren itzulpenean ere badira 1 *ethórquiã, heddurabat, egozquia, 2 herrestacibill-quiã, 5 agradagárria, guticiagarria, 6 etssáitassuna, 10 crueltassun, bihurqueriez, 11 luçetassuna, 12 hegaldun, 14 gaztarrassunetic, 15 orhoitçapéna, 114 sariçáleac, 115 lehensorthúen, orhoitçapéna, 129 guiçaescláboa, emaescláboa, 130 ohoinquéria, emasorguina, imaijnadoratçáillea...* (cf. Lakarra 1994b).*

Eta asmaketa ez da Gramatikako hitz zerrendetan ere baratzen: badira zenbait Donibaneko (nahiz bestetako) hizkera herrikoitik jasoak begitantzen ez zaizkidanak: “redempteur” *errescatatçaillea*; “ciel empiré” *ceru goréna*; “l’orgueil” *superbioa* ou *urguillutassuna*; “luxure” *lohitassuna*; “paresse”

28. “cometa” *suizar, sulamargizagi, “arctophilas” hartzzaina, hartzguardargizagi* dira asmatutzat emanak.

29. Orobat *abamita* “aitabrahirassoaren arreba”, *abavus* “aitassoren aitassoa, aitabrahirasso”, *abavia* “amabrahirasso, amassoren amassoa”, *abavunculus* “amabrahirassoaren anája”.

*naguitassuna*; “graisse” *guiçentassuna*; “seicheresse” *idortassuna* eta beste hainbat eta hainbat *-tasun* eta *-keria* baliatuaz sortuak. Bi atzizkiok ez dira, ordea, bakar ez nagusi hiztegian. Har bitez Urkizuk eman euskara-erdara ordenan bihurturiko hiztegiko A letrako eratorriak: corpus eraikuntzan izan daitezkeen hutsak gora behera, esanguratsu iruditzen zaizkit emaitzak: 44 *-tzaile*, 29 *-garri*, 26 *-tasun*, 18 *-(l)ari*, 17 *-dun*, 13 *-gile*, 11 *-keria*, 10 *-(n)tz(i)a*, 10 *-mendu*, eta kopuru txikiagoekin<sup>30</sup> *-toki*, *-keta*, *-ki*, *-di*, *-lario*, *-men*, *-zko*, *-os*, *-kizun*, *-tegi*, *-zio*, *-ki* eta *-gin*. Hots, testu arrunt gehienetan (egilearen itzulpenetan urrutiago gabe) askorekin nagusi den eta noiznahi hitzunari erabilterrazen zaion *-tasun* ez da lehena, hirugarrena baizik. Kopuru batetik aurrera gertakari hau halabehar hutsak agortzen ez duenez, nahita nahiezko dugu zer edo zer azalpen saio gisa aurreratzea. Urteren hitz sorkuntzarako grina, bestetara baino lehen, ez bide zaio inori zalantzarri irudituko; ondotik, atzizki horiek eta ez bestelakoak erabiltzerakoan ez ote eraginik itzultzen duen latin hiztegian aditzen –eta horietarik sortu lehenaldiko zein orainaldiko partizipio– eta adjetiboen ugaritasunak?

Alabaina, erabilitako ereduak inposatu bazion Urteri hitz sorkuntza eta are hitzberria nolakoa ere, ez ote dagokio berari konplituago Larramendirentzat eraiki irudi zabalduena? (cf. Lakarra 1994b eta han aipatu lehena-goko lanak; 1994c Gramatikako hiztegitxoaz).

#### 4. Harriet

Lakarra 1994a-n aurki daiteke *HLEH*-ko lehen hiru liburukiekin egindako fetxa aurreratze saioa; ikus daitekeenez badira hitz dozena batzuk zeinen lehen agerraldi urtea hiztegi horretan emandakotik aski aitzina daitezkeen, are –ikus Lakarra 1991a–Harrieten hiztegia erabili zuen Larramendi denean *HLEH*-ren lehen lekukotasuna:

EF

adarailua, [adreilu 1970, adarailu 1879]  
aitaso, [1870]  
aitaguiñarriba, [1859]  
ampola, [1804]  
amabitxi, [\*XIXb]  
arrançatcea, [\*1745]  
arratoiña, [\*1745]  
auçapeça, [~1883]  
bakhotchia, [\*XIXb]  
bakanki, [1749]  
behorkha, [behoka \*1745]  
bercenaz, [bestenaz \*XIXb,  
bertzenaz 1896]  
birla, [\*1745]  
deseiñua, [1750]  
deusez, [1750]

FE

abian, [1751]  
adarailuztatcea [adreitatu \*1970]  
aditçaillea, [aditzaile 1855]  
agortassuna “sterilité”, [1855]  
ahaidetassuna, [1827]  
ahogoçoa, [\*XIXb]  
ainxiquabetcea [antsikha-betu \*XIXb]  
aiuta, [\*1905]  
aldaquça, [\*1745]  
aleguia “sous pretexte que” [1852]

30. Txiki baino esanguratsuak; ohar bekie *-di* atzizkiaz sortuei. Ez dut hiztegikoen artean izan daitezkeen lehen agerraldiak bildu baina aurreko hiztegitaleekin ikusi eta Urteren jaiduretara hurbilduz geroz ezin pentsa uzta urria genukeenik.

alegrancia, [alegrantzia 1802]  
 alporchac, [\*1745]  
 amarrua, [1809]  
 amarruxua, [1827]  
 antolamendua, [\*1745]  
 antolatcea, [\*1745]  
 aranhondoa, [\*XIXb]  
 arbaso, [XKb]  
 arguitxua, [\*1745]  
 arronqui [arrunki 1860]  
 arrontassuna, [arrantasuna 1809]  
 atchiquitcea, [1749]  
 atbeçaiña, [\*1745]  
 bahiqundea, [1777]  
 baiaduna, [1749]  
 baitezpada, [1809]  
 bardinquña, [berdinkuntza \*XIXb,  
 bardinkuntza \*1755]  
 barla, [\*1745]  
 barnatcea, [\*1745]  
 beharriacoac [belarritako \*1905, 1912;  
 beharritako 1755]  
 beharsu, [-1760]  
 behiçaiña, [behizain \*1905, 1916, beizai  
 \*1745, 1930]  
 beilaria, [\*1745, 1885]  
 beilla ( \_\_, botua, "voeux"), [\*1745,  
 1885]  
 bekhoscoa, [\*1745, 1808];  
 bercerencea, [besterendu \*1745]  
 berçorduz, [bestorduz 1935]  
 berezquña, [bereizkuntza 1957,  
 berexkuntza 1809]  
 berriquetaria, [1871]  
 biçarguillea, [\*1745, 1802]  
 billaquña, [bilakuntza 1802]  
 bitgi "drole", [1858]  
 burcoitassuna, [\*1745]  
 burubilcea, [1847]  
 deitura "nom de famille" [1831], "conom  
 ou surnom" [1775]  
 dutchulo

«Tan lógico es que todos los diccionarios sean, en parte, originales, como el que los lexicógrafos se sirvan unos de otros. Cada lexicógrafo, apoyándose en las creaciones anteriores, amplía el léxico o suprime vocablos, apropiando su obra al estado de lengua de su época» diosku Guerrerok (1988: 471) Nebrijaren hiztegiek

espainiar hiztegitantzen izan duten erabilera aztertzean. Ez dirudi, halere, ideia horretatik litezkeen ondorioak oro atera direnik. Ingeles hiztegitantzaren historian aspaldi garatu ziren hiztegien arteko erlazioak eta batzuek eta besteek dituzten hartzekotasun eta menpekotasunak (cf. Starnes & Noyes 1946); katalan tradizioak ere lortu du horretarako oinarri sendorik (Colón & Soberanas 1985). Gaztelerazko tradizioan, Cooper-en aspaldiko (1960, 1962) ikerketen eta Gili Gaya-ren (1960) lanabes amaitugabe baina ezinutzizkoaren ondoren ez dira bukatu historia hori idazteko beharrezko liritekeen aurrelanak, azken urteotan Lépinette-k asko aurreratu arren. Euskal Herrian, *corpora* eta loturak anitzez laburragoak izan arren, ikusten ari gara beren historia eginkizun dela.

Bestalde, Guerreroren perpausan adierazi legez, delako ekoizpen lexicografiko bat aurrekoek eskuratua eta mementuko baldintza eta eskakizun edo beharren arteko nolabaiteko konpromezutat har badezagu, hurbilketa horrek eman diezaizkigukeen etekinak agortzetik urruti dira oraindik. Izan ere, hitz berrikuntza eta iraupena, gehiketa, aldaketa, ezabaketa... ikerzteaz landa, hiztegitantza metodo eta azturen euren historia bilaka dezakegu ikergai. Orobat, eta ez zait interesgabe iruditzen, garaian garaiko hizkuntzaren hitz altxorrerako hurbilketa eta hiztegien funtzio, egiteko eta helburuena.

Berezia da hiztegi eleanitzen –areago hauen barnean elebidun zuzenbideanitzen– tokia hiztegitantza orokorraren barnean, dela kronologia-gatik, dela ekoizpen kopuruarengatik, dela iraupenagatik, dela –berezikierabili teknikengatik; bestalde, erabil-tzaileek eta helburuek ere garbiro sail-

katzen dituzte 1550-1580 geroztik.<sup>31</sup> Bereztasun guzti horiei hiztegian erabili hizkuntzen arteko erlaziotik datozkeenak gehitu behar. Ezaguna denez, nekez aurki dezakegu, XVIII. mendean, lehenago zein beranduago hizkuntzak parekotasun osoan dakartzanik; dela sarrera kopurua, direla batean eta bestean eman zehaztasunak, ia beti dituzkegu A eta B hizkuntzak hiztegian.<sup>32</sup>

Atal honetan aztergai dugun Harrieten hiztegirako zurubi gisa, jakingarri gerta liteke gaztelerazko tradizioan aspalditik aipu diren Nebrijaren *Diccionario latino-español* (1492) eta *Vocabulario español-latino* (1495?) delakoekin jazoa. XVI. mendetik bertatik espainiar lexikografiaren gailur horiek bata bestearen bihurtatzen jo izan diren arren, begi zoliagoz eta hurbilagorik miatzean bestelako irudia osatu dute Colón eta Soberanas (1979), Acero (1985) eta -batez ere- Guerrero-ren (1988) lanek.

Eran de temer, en el trasiego de elementos de una obra a otra, varias incongruencias y desventajas. En primer lugar, que éste se llevara a cabo de una manera mecánica, dando sencillamente la vuelta a cada lema; por otro lado, que se perdieran o desaprovecharan muchos de los materiales, porque los métodos de trabajo de aquel entonces quizá no permitían una labor como la que se podría realizar hoy con ayuda de máquinas. Hemos de confesar que el cotejo de ambos vocabularios nos ha

revelado una admirable maestría en el orillar posibles obstáculos. Si la ordenación del *Vocabulario español-latino* está pensada a partir del castellano, la del *Lexicón* (= Diccionario) lo está desde el latín: no hay ni siquiera sombra de que Nebrija se haya entregado a una tarea meramente automática (Colón & Soberanas 1979: § 2).

Acero-k eta Guerrero-k Colón & Soberanas-en ondorioak berretsi eta hedatu dituzte, zehaztasun garrantzitsu batean haiekin bat ez badatoz ere: Nebrijaren bigarren hiztegiaren benetako edukin lexikoa aberatsagoa dela erakusten dute, nahiz eta lehendabizikoak ia 6.000 sarrera gehiago izan (28.000 / 22.500).<sup>33</sup>

Harrieten bildumak erabili dituzten artean FE-ren aldeko isuria nabaria izan da:<sup>34</sup> Lakarra 1994a-n hiztegi-ileen aukera honen atzean tamainak berak -FE-k EF-rena halako bikoia du-edota hizkuntzen ordenak ezartzen dituzten baldintzez (edota aurkeztu aukerez) atetiko arrazoiak direla erakutsi nuen. Arrazoion artean nagusia EF eta FE-ren arteko diferentzien handia eta ekoizpen prozedura ezberdintasunena litzateke. Bi hiztegi-tako A eta E letretako hitzak eman nituen erkagai -halaber, FE-ren bihurtetak letroi dagokienez- aski iruditurik joera nagusien nolakoa eta zenbatekoa antzemateko eta are sailkatzeko. Ondoren F, H eta P letren azterketa gehitu nuen hirurek aurkezten baitituzte zenbait bereztasun gaine-

31. Irakurle landua, hizkuntza ezagutu arren, hitz abstrakto eta zailak elebkarretan, arruntenak eta egunorokoak eleanitzetan. Cf. Quemada (1968: 40-41).

32. Gertakari honek, ordea, ezin eraman gaitzake Andersonekin hiztegi beraren alderdiak bi hiztegi bailiran tratatzera: «In cases of bidirectional works... were considered as two separate dictionaries» (1971: 5).

33. Batez ere latin-gaztelaniazkoan hain ugari diren toponimo eta izen propioak baztertu ondoren; Acero-k (ikus 1985: 17-18, bereziki) % 11,18an zenbatzen du bigarrenaren nagusigoa.

34. Cf. Lakarra 1993ko 4. kapituluaz aztertu Larramendirena, Lakarra & Urgell 1988-n Lécluserena edota Urgell 1992-ko Añibarrarena.



rakoetan aurkitzen ez direnak. Erka-  
ketaren emaitzak esanguratsu begitan-  
du zaizkit: guztira 238 hitz edo hitz-  
multzo zenbatzen ditudalarik euskara-  
frantses hiztegian (EF), 139 dira fran-  
tses-euskara hiztegian (FE) gordetzen  
direnak, 104 sarrera nagusi bezala eta  
15 bigarren sarrera gisa; beste 7 hitz  
gehi dakizkieke ortografi diferentzia  
txikiren batekin gauzaturik agertu arren  
FE-n: cf. *akhusatcea* *accuser* / *accu-  
ser* *acusatcea*, *gaineguitea* edo *akhe-  
rra* *bouc*, m. / *bouc* *akerra*, etab. la-ia  
beste horrenbeste (108) dugu FE-n  
gordeko ez dena, 94 sarrera nagusi  
eta 14 bigarren sarrera. Honakook  
ditugu gorde direnen artean: *arabera*,  
*eredura*, *abendoa*, *aberastea*, *açala*,  
*açotea*, *açucrea*, *achala*, *adarailua*,  
*adarra*, *adiña*, *adisquidea*, *adisquideta-  
ssun*, *aditcea*... Galdutakoen artean,  
aldiz, besteok: *abandonatcea*, *abon-  
dancia*, *frangancia*, *acceptatcea*,  
*accordatcea*, *aise*, *aisequi*, *amicionea*,  
*amoiña*, *aperencia*, *aprobatcea*, *arbo-  
la*, *arraça*, *arroganta*, *avariciosa*.

FE-ra bihurtzen bagara orain, 139  
dira gordetako sarrerak (126 sarrera  
nagusi eta 13 bigarren sarrera), 13  
gehiago gehitzen badira EF-ekoekiko  
ortografi diferentzia txikiren batekin  
agitzen diren 12 sarrera nagusi eta  
bigarren sarrera bat. Halako hiru dira  
ia FE-n gehituak: 226 sarrera berrietan  
(191 nagusietan eta 34 bigarrenetan),  
37 gordetako sarreretan gehitutako  
hitzak (7 sarrera nagusietan eta 30  
bigarrenetan) eta 107 lehen ziren  
sarreretan oinarrituaz moldatu edo sor-  
tutakoak (100 nagusietan eta 7 biga-  
rrenetan).

Hara gordetakoetarik adibide zen-  
bait: *agorienta*, *aguercea*, *ahanztea*,  
*ahoa*, *aila*, *aitabitchia*, *aitaguiñarriba*,  
*aitasaindua*, *aitaso*, *aitciñean*, *aitciñez*  
*aitciñ*, *aitcitic*, *aitorensemea*, *akha-*

*batcea*, *alaba*, *alchatcea*, *alchatua*,  
*aldagarria*, *aldarea*, *aldatcea*, *alderat*,  
*alfer*, *alferra*, *alkhabuça*, *ama*, *ama-  
bitchia*, *amaguiñarriba*, *amaiçuna*,  
*amexa*, *amurraiña*, *anaia*, *ancea*,  
*andrea*, *apeça*, *aphoa*, *apirilla*, *arana*.  
FE-ko sarrera berrietan datoz besteok:  
*ahurpeguia*, *arindua*, *arrau*, *aularie*,  
*asantua*, *asantuz*, *asco*, *axeguiña*,  
*abrea*, *acordua*, *aierua*, *aldarria*, *al-  
detcea*, *alimatcea*, *alimua*, *allegrencia*,  
*antolalatcea*, *arguiçaguia*, *arincea*,  
*arkha*, *arraso*, *arriba*, *ahizpa*, *arron-  
qui*, *arrantassuna*, *arthea*, *asinuca*,  
*aspilla*, *atrebitcea*, *au,coa*, *amulsua*,  
*abrequeria*, *abudoa*, *acencioa*, *acome-  
tatcea*, *acordua*.

FE-tiko sarreretan gehituatarik ditu-  
gu hauek: *achita*, *achiqui*, *almutea*, *an-  
datcea*, *alocaríoa*, *atcea*, *ausart*, *agu-  
rea*, *arraxaldea*. Azkenik, EF-ean  
zirenetan oinarri harturik eratuak bes-  
teok: *ahalguea*, *amodioxua*, *aitciña*,  
*arthaxua*, *aisia*, *aisian da*, *azpicoa*, *az-  
quen aldian*, *aberatxa*, *aberaxtassuna*,  
*abian da*, *abiatcea*, *abiatu da*, *aço-  
tatcea*, *adarailuztatcea*, *adarratcea*,  
*adimendua*, *aditçaillea*, *agorcea*, *agor-  
tassuna*, *aguerdura*, *ahaidetassuna*,  
*ahalic beranduena*, *ahalic lasterrena*,  
*ahanz orduan*, *ahogoço*, *ahotara*,  
*aitcinecoa*, *aitciñaldea*, *aitciñamendua*,  
*aitciñatcea*, *akhabança*, *akhabatu hu-  
rren du*, *alchadura*, *aldaquença*, *alferric*.

Ikusi dugunez, orokorra eta handia  
da EF-etik FE-ra ematen den aldaketa.  
Eman berri ditugun aldaketen kopuru  
eta adibideen atzean legerik edo joera-  
rik den galdetu beharra dago. Gorago  
ikusi dugu FEra igarotzen ez diren  
hitzetarik portzentaia garrantzitsua  
dela (% 41,81 A-n, % 54,00 E-n, %  
44,44 F-n, % 40,44 H-n eta % 50,00 P-  
n) partizipio edota adjetibo eta ize-  
netan frantsesezko genero eta, inoiz  
edo behin, bakar / anitz diferentziak

gauzatu asmoz lehendabiziko hiztegi-  
gian sortu sasibikoteena. Gainerako  
galeren zatirik nagusia ere azal  
daiteke FE-rako bidean Harrietek  
egindako garbiketaren arabera. Izan  
ere berehalakoan nabari daitezke bo-  
rondate horren ondorioak (cf. Lakarra  
1991a, 1994a): *abondancia, fragancia*,  
*abondance / abundance, fragancia*;  
*abandonatcea, largatcea*, *abandonner*  
*/ abandonner, largatcea*, etab. Hots,  
22, EF-etik FE-ra bidean desagertua-  
ren % 20,17. Orain arte aipatu bi saile-  
tan sartzan ez direnak eta ordain age-  
ririk gabe desagertutakoen honda-  
rrean ondoko hauek ditugu: “*abiadura*,  
*joanhara cours, m.*”, “*acta, patua acte*,  
*contrat, m.*”, “*adardun cornart, m.*”,  
“*affarma bail*”, “*aliaqua passetemps*”,  
“*apartatcea écarter*”, “*arçapezpicua*  
*archevêque, m.*”, “*armada, jendeostea*  
*armée, f*”, “*artea art, m.*”, “*ardita liard*,  
*m.*”, “*azpia jambon, m.*”, “*asteleguna*  
*jour ouvrable*”, “*avocata avocat, m.*”  
eta “*ausiquitcea, mordre*”. Batek edo  
bestek material iraulketan hiztegi-  
gileari itzuria dirudi (hiztegi osoari  
begiratuaz % 1-2); gainerakoek mailebu  
larriegiak iruditurik baztertuak.<sup>35</sup>

Gogoan izaki 93 direla ezabatuak  
orotara eta 192 EF-eko hitzen kopu-  
rua, % 13,03 litzateke gehienez ere  
FE-ra igaro ez den edukin lexikoa;  
oraindik ere beste hiruzpalau sarrera  
kontu honetatik at utzi beharko geni-  
tuzke, ordea, mailebu gordinegiak irudi-  
turik kanporatuak bide direnez gero,  
eta aztergai hartu ditugun gainerako  
letretan ere ezabatua goiko azalpena-  
ren bidetik doa.

Hiru sail egin ditut FE-ko gehikete-  
kin: sarrera berriek osatzen dutena,  
lehengo sarrerei egindako gehiketena

eta lehengo sarreretan oinarriturik  
sortutakoena. FE-ko berrikuntza edo  
aldaketak oro izateko gehiketa hauei  
EF-ekiko kenketak erantsi behar; na-  
hiago izan dut horiek aurreko atalean  
aztertu argitasun gehiago lortu asmoz.  
Alabaina, bien produktua da EF-etik  
FE-rako bide osoa. Sarrera berrietako  
gehiketena da A, F eta P letretan atal  
honetako sailik handiena: 228 / 369,  
41 / 54 eta 129 / 153, hurrenez hurren;  
E eta H-n ere sarrera berrietako gehi-  
ketak badira baina ez dira nagusi: 184  
/ 404 eta 135 / 276. Bigarren gehiketa  
moeta, txikiagoa eta txikiena guztietan,  
ziren sarreren “hobekuntza” dugu  
hauetan: EF-en zen hitza –mailebua  
gehienbat– ez da ezabatu, baina haren  
aldamenean beste berri bat gehitu da  
hura baino garbiago edo zehatzago,  
edota haren aberasgarri gerta zitekeen-  
a. Horietarik ditugu *airatcea*, *voler /*  
*voler, avec ailes, hegaldatcea, airatcea*;  
*akhusatcea*, *accuser / acuser, acu-*  
*satcea, gaineguitea; akhabatcea*,  
*achever, finir / achever, neitcea, akha-*  
*batcea; finir, akhitcea*.

Aurreko atalean ikusi emaitzak ezin  
hertsia loturik dakuskit Gramatikako  
467. orrialdean eta hurrengo orrialdee-  
tan Harrietek “gonbaratiboez”, hots,  
funtsean eratorbide sistema osoaz,  
emandako oharrekin.

Par mot *khoia*. *Onkhoia*, amateur des  
bons. *arnokhoia*, adonné au vin. *ema-*  
*khoia*, adonné aux femmes, &c.

Par mot *cara*. *Handicara*, tirant au  
grand. *churicara*, tirant au blanc. *gorricara*,  
tirant au rouge, &c.

Par mot *teguia*. *Arnotegua*, chai au  
vin. *oguitegui[a]*, grenier à froment.  
*belhartegua*, grenier à foin.

Par mot *caria*. *Eguincaria*, facile à faire.  
*emancaria*, facile à donner. *harcaria*,  
facile à apprendre, &c.

35. E- letzan ere badira garbiketaren arrasto nabarmenak: *errefusatcea*, *refuser / refuser, eza*  
*ematea; erreguelatcea*, *regler / regler, chuchencea, amainatcea*. Ikus Lakarra 1994a.

Par mot *txua*. *dirutxua*, rempli d'argent. *arnotxua*, rempli du vin. *oguitxua*, rempli de froment, &c.

Par mot *dia*. *Ondia*, quantité de bons. *guiçondia*, quantité d'hommes. *harridia*, quantité de pierre, &c.

Par mot *tarra*. *Ontarra*, preneur, partie des bons. *gaistotarra*, preneur, partie des mechans. *handitarra*, preneur, partie des grands, &c.

Par mot *garría*. *Handigarría*, qui aide à agrandir. *edergarría*, qui aide à embelir. *onexgarría*, qui aide à aimer,

[472] Par mot *corra*. *Emancorra*, qui donne facilement. *irricorra*, qui rit facilement. *erorcorra*, qui tombe facilement, &c.

Par mot *bera*. *Egosbera*, facile à être bouilli *bihotzbera*, misericordieux. *siñexbera*, credule, &c.

Par mot *gorra*. *Bihotzgorra*, cruel. *egosgorra*, difficile à être bouilli *siñesgorra*, incredule, &c.

Par mot *duna*. *Diruduna*, qui a de l'argent. *ontassunduna*, qui a du bien. *etcheduna*, qui a des maisons.

Par mot *bidea*. *Salbidea*, debit. *erosbidea*, commodité pour acheter. *minçabidea*, occasion à parler,

Par mot *diña*. *Emandiña*, tant qui se peut donner. *ekhardiña*, tant qui se peut porter. *errandiña*, tant qu'on pent dire, &c.

Par mot *tiarra*. *Handitiarra*, qui est souvent avec les grands. [473] *edertiarra*, qui est savant avec les beaux. *eliçatiarra*, qui frequente les Eglises, &c.

Par mot *guiçuna*. *Erranquiçuna*, critique. *eguinquiçuna*, l'action de faire. *emanquiçuna*, l'action de donner, &c.

Par mot *guna*. *Handiguna*, un peu de grandeur. *onguna*, un peu de bonté. *ederguna*, un peu de beauté, &c.

Par mot *squia*. *Cuiçonsquia*, l'homme de peu de merite. *handisquia*, grand de peu de merite. *onsquia*, bon de peu de chose, &c.

Par mot *squilla*. *Etchesquilla*, la maison de peu de valeur. *lursquilla*, la terre de peu de valeur. *baratcesquilla*, le jardin de peu de valeur, &c.

[474] Par mot *kharca*. *Çalhukharca*, à qui sera plus souple. *ikhaskarca*, à qui apprendra mieux. *cantakharca*, à qui

chantera mieux.

Par mot *gueia*. *Etchegueia*, material pour bâtir. *uncigueia*, material pour faire des navires. *oihalueia*, étoffe pour faire du drap, &c.

Par mot *caria*. *Makhilacaria*, qui bat à coup de bâton. *ezpatacaria*, qui bat à coup d'épée. *harricaria*, qui bat à coup de pierre.

[475] Par mot *quidea*. *Adinquidea*, qui est égal en âge. *icenquidea*, qui est de même nom. *handiquidea*, qui est égal aux grands, &c.

Par mot *ostea*. *Jendeostea*, troupe de gens. *diruostea*, somme d'argent. *ardiosten*, troupe de brebis, &c.

Par mot *gua*. *Adisquidegua*, la raison, d'amitié. *exaigua*, la raison, d'inimitié. *samurgua*, la raison, de querelle, &c.

Par mot *guiña*. *Harguiña*, qui menage les enfans. *etcheguiña*, qui menage les maisons. *çamalguiña*, qui menage les chevaux, ou maquignon, &c.

Par mot *tara*. *Ahotara*, bouchée. *orgatara*, charretée. *uncitara*, ce qu'un navire parte une fois, &c.

Par mot *queta*. *Diruqueta*, chercher ou porter de l'argent. *arnoqueta*, chercher ou porter du vin. *haraguiqueta*, chercher la viande, &c.

[476] Par mot *quetaria*. *Diruquetaria*, celui qui porte de l'argent. *arnoquetaria*, celui qui porte du vin. *haraguiquetaria*, celui qui porte de la viande, &c.

Par mot *galea*. *Logalea*, l'envie de dormir. *goragalea* l'envie de vomir. l'envie de grater, &c.

Par mot *guia*. *Guiçonquia*, masculin ou de l'espece de l'omme. *emastequia*, feminin ou de l'espece de femme. *ardiquia*, de brebis ou de l'espece de brebis.

Par mot *aldia*. *Janaldia*, tour de manger. *edanaldia*, tour de boire. *erranaldia*, tour de dire, &c.

Par mot *giuro*. *Belharguiro*, le temps propre pour croître les foin. *mahaxgiuro*, le temps propre pour croître les raisins. [477] *oguigiuro*, le temps propre pour croître les froments, &c.

Par mot *thirian*. *Eliçathirian*, aux environs de l'Eglise. *etchethirian*, aux environs de la maison. *eguerdithirian*, vers le midy,

Par mot *ança*. *Diruança*, ressemblance de l'argent. *urreeança*, ressemblance de l'or. *guiçonança*, ressemblance de l'homme.

Par mot *çatpena*. *Oguiçatpena*, abondance de froment. *arnoçatpena*, abondance de vin. *sagarçatpena*, abondance de pommes, &c.

Hiztegietako jokabidearen eta gramatikako dotrinaren artean den lotura begibistakoezia da hemen luzatu beharrik izateko. Antzekorik lehenago ere kausitu ahal izan dugu Pouvreau edo Urtez aritu garenean; Larramendirenganaino garamatzen bidean Harrietek suposatzen duen urratsaz ohartzeko aski bekik hemen *-di* atzizki aipatuan dakuskigun hiru eratorriz ohar-tzea: *Ondia*, *guiçondia*, *harridia*. Esan beharrik ba ote hirurak direla lehen-dabiziko agerraldi?<sup>36</sup>

## 5. Larramendiren hiztegiko hitzberriak

Har ditzagun Azkuez geroz hain ospe eta omen txarra duten hitzberriak, "neologismoak".<sup>37</sup> Usu azaldu ohi da idatzirik hiztegiko erdal egokitzapenak betetzeko asmo hutsez asmatuak direla, *pour épater*, azken finean. Baina ez da horrelakorik; berak baitu aitortzen, aldarrikatzen hobe, —eta gazteleraz aldarrikatu ere, etsaiek ulertzeko moduan— "voces facultativas", hots, orain "hitz teknikoak" deituko genituzkeen horiek, guztiak asmatu dituela (*HH*, xljx). Hori, dirudie-

nez, garai hartan gero baino hobekia-go ikusia bide zegoen; hona, bestela, bide berdintsutik abiatu zen Etxeberrik zer zioen: «cilhegui bada erraitea *gucurtatcea* cergatic ezta erranen *eguiatzatcea* ? eta *handizatcea* ?» (Urquijo 1907: 102) edota, pixkat aurrerago, orokorki hitzegiten duelarik, hitzberriak sortzeko ahalmena, hain zuzen, hizkuntzaren askatasuna lortzeko eta morrointza apurtzeko beharrezkotzat edukiaz, hitzberriak ez ezagutzearren gaitzesten dituztenen kontra (guztiak ere ezin ezagut daitezkeela markatu ondoren) haiek euskara oraindik den baino gatibuago bilakatu-ko bailukete (ibid.; cf. Lakarra 1996b).

Ez dira gauza bera, jakina, Larramendi bezala, hiztegi orokor bat egitean kultur berbak oro asmatzen ihar-dutea premiak berdintzeko eta, noizean behin, bat edo beste sortzea mementuko beharrari aurre emateko euskaraz idatzi zutenek —trebetasun eta ausardia ezberdinez—<sup>38</sup> egin legez; alabaina, bi joerak ditugu, azken finean, hizkuntz maila landu baten erai-kuntzaren lekuko. Badirudi, gainera, hiztegitale zaharrak ere, Pouvreau kasurako (ikus gorago), aritu zirela Larramendi baino lehen beren hiztegietako hitz berriak asmatzen hitz arruntei atzizki edo aurrizki emankorrek ezarriaz. Ez da, beraz, Larramendi bide honetatik abiatu zen bakarra, ez lehen-a, inor baino urrutiago joan bazen ere bertan barrena. Larramendi eta Etxeberri irizkide ditugu:

36. Azterketa zabalago baterako eta hitz berriketan erabili gainerako atzizki, posposizio eta aditzetarako ikus Lakarra 1994a-ko edizioa.

37. Ohar bedi mende hasierako garbizalekeriaren eragina erabat, inoiz uste bezala, uxatua balitz, hitz honek gure artean ere beste zeinnahi garai eta herritan adierazi duena adierazi behar zukeela; ez da horrela, ordea, ongixko dakigun bezala. Ordez edo, badirudi mailebuak ez direla sartzen "hitzberrien" artean. Ez naiz hemen gertakari diferente hauentzat eta ingurukoentzat deitura berriak sortzen saiatu, beharra larria bada ere, izenaren aurretik izanaren gakoa bainekusan.

38. Ez naiz hemen arituko Larramendirenaz —ez baitzait arlorik interesgarriena iruditzen—, nahiz eta azken atalean oharren bat izan horren ikerketa bideratu asmoz; ikus Azkarate 1992 ere. Cf. «los estudiosos suelen coincidir asimismo en un hecho de importancia en relación con ese "privilegio

El bascuence ha conservado la virtud de fabricar voces nuevas, compuestas de sus fecundísimas raíces, y el derecho de apropiarse y adoptar como suyas otras muchas de diferentes lenguas para significar nuevos objetos y ser riquísima entre todas (DT, xxix)<sup>39</sup>

Saratarrarekin bat datorrela honetan ere, ez du onartzen hiztun arrunt eta landugabearen usadioa hitzberrien epailetzat; izan ere ez dira harentzat sortuak eta, gainera, pixkanaka-pixkanaka ezagutuko ere ditu (gogora Mendibururi egin gutuneko «Etzaitzátela tóntotzarren eráusiasac ozpindú...»):

Dirán que esas voces no se entienden. Lo 1º no son voces del vulgo, sino facultativas, y basta que las entiendan los profesores de las ciencias, y es también lo que sucede a las voces griegas y latinas correspondientes. Lo 2º importa poco que no se entiendan al principio, porque con el tiempo y la repetición se entenderán fácilmente. Lo 3º aun para el vulgo son más perceptibles estas voces bascongadas, *jaincoquindea*, *izarquindea*, *ceruquindea*,

*eraquindea*, que no las correspondientes *teología*, *astrología*, *uranología*, *cronología*, porque en estas nada les suena a bascuence y en aquellas sí. (DT, xlv)<sup>40</sup>

Ez mailebatzez baina bertoko erroetarik –jatorrizko zein bertakotuetarik– hitzberriak sortzeko arrazoioak ez dira meziprezagarriak edo haren eta ondoko garbizalekeria itsuak halabeharrez erakarri ondorioa, bibliografian ikus daitekeenaren aurka; ezer izatekotan Larramendiren proiektuaren, kultur proiektuaren, aldeko lekukoak genituzke, zalantzarik gabe (cf. Lakarra 1985).<sup>41</sup>

Larramendiren helburua hizkuntza guztiek jakintza eta teknologiaren aurrerapenen oihartzun eta isladapenik agertu nahi edo ahal duten neurrian sentitu ohi duten behar eta premia, hots, hitzberriena, asetzea dugu:

Además del lenguaje vulgar y de sus voces pongo en este Diccionario las voces que pertenecen a las Facultades,

---

profesional" de que habla Guilbert. Me refiero al reconocimiento, también bastante generalizado, de las muy "peculiares libertades" ejercidas sobre el código de la lengua por parte de los escritores en la acuñación de nuevas formaciones léxicas. En opinión de algunos autores, tales libertades pueden llegar en ocasiones a trascender, cuando no a violar de forma manifiesta, el límite de potencialidades toleradas —y tolerables— por el propio código» (Mayoral 1988: 381).

39. Bai bataren eta bai bestearen idazkietako baieztapenetan geuk bereizi behar dugu, beraiek ez baitute hori beti ohartzen, noiz ari diren euskararen *botereaz* eta noiz *egoeraz* (cf. Lakarra 1995a, 1996b). Argi dago azken finean bigarren hau lehenengoari egokitu nahi diotela, horretarako euskaldunak zeutzan lozorro eta trebetasun faltatik altxatuaz.

40. Ematen duen azken arrazoia (4.a) 3.aren antzekoa da: «ninguno hay que explicada una vez la voz bascongada no se quede con ella, y esa su significación, v.gr. *jaincoquindea deritza jaincoaz, ta jaincoaren gauzaz hitzeguiten duen jaquindeari...*» Ikus honetaz beherago atzerriko zenbait kidesan.

41. Bestenaz, batez ere esango nuke, aztertzaileren edota kritikoen ezagutzan ez ote bide horren arrarotasun edota desegokitasuna? Badirudi parekoak bilatzen neke edo saio gutxi izan dela eta erkagai interesgarri ezagutu beharrak aipatzeke direla literaturan. Izan badira, ordea, eta hizkuntza finougrioeak, suomiera eta hungarierak aipatuki badute beren lexiko berrikuntzaren historian (eta oro har beren historiaren hainbat alderditan) euskararen kasuan argigarri gerta daitekeenik. Ezer baino lehen, komeni da markatzea hizkuntza "txikiak" direla, familia eta tradizio nagusietarik atetikoak, berantiarrik ofizialtasun eta estandarizazioan, literatur produkzioan ere ez euskara baino goiztarrago suomieraren kasuan, gai eta generoei dagokienez euskaraz tratatuetarik beste edozein baino hurbilagoko ditugu. Gainera, beren gramatika egiturak (eransle atzizkiberak, ia aurritzigabekoak) gonbaraketa arrazoizkoago bilakatzen du, beste inguruko eta urrutixeagoko zeinnahirekin egin daitekeenaren hainbatean gutxienez; cf. Sauvageot 1971 eta 1973.

Artes, y Ciencias. En quanto a estas en un sentido puede decirse que el bascuence es pobre y que no tiene voces ningunas suyas, y en otro sentido puede, y debe, decirse que tiene todas las necesarias propias de sus raíces y origen. En el primer sentido el bascuence no ha necesitado de voces propias ni ajenas, porque ninguno ha hablado ni escrito en bascuence en las Facultades y Ciencias, ni ha pensado que sea lengua oportuna para hablar en ellas. Aora está en otra disposición el bascuence y en punto para hablarse en cualquiera Ciencia y Facultad; y es la ocasión de buscar las voces oportunas que hasta ahora no ha tenido o tomándolas de otras lenguas, o inventándolas, o formándolas de sus fecundas raíces, según lo que dice Cicerón. (DT, xlii-xliii).<sup>42</sup>

Euskararen kultur gaietako tradizioezaren kexua, jakina, goragotik zertorren, Etxepareren («nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propioaren faboretan heskuaraz zerbait obra egitera») eta Axularren («Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez...») eta kontrajarri ohi zaion Tartasen («hanko euskarak dü ogena eta ez euskaldünak») obrak berme.<sup>43</sup> Hau, jakina, ezin da betikoz asetu, Fenixa bezala suntsitzen ez den izaki horietakoa baita; alabaina, mende eta garai batzuetan besteetan baino

gorriago da, hain zuzen ere hizkuntzan islatu nahi diren aurrerapenak edo aldaketak larriago diren neurrian.

El P. Esteban de Terreros y Pando (1707-1782), jesuita, como es bien sabido, tradujo el *Espectáculo de la naturaleza* de Pluche, no sin pocas dificultades, pues no siempre encontraba los términos necesarios para poner en español los que empleaba el francés. Como el mismo explica, ello le llevó a tomar la determinación de formar una especie de índice o vocabulario donde estuvieran contenidos esos términos. Los inconvenientes con que se tropezó Terreros no deben sorprendernos por cuanto la falta de léxico científico es un mal que arrastra nuestro idioma desde el Renacimiento hasta nuestros días.<sup>44</sup>

Ez da esan beharrik nolakoak izan zitezkeen kultur gaietan berri eta arrotz zen Larramendiren garaiko euskararen. Premia horri eman zion aurre Larramendik, bere erara eta bere ahalaria, eta hor dute beren oinarri eta azalpen haren neologismoek.

Larramendiren hiztegiak mintzatzean hitzetik hortzera azkar etorri ohi denez gero hitzberrien aipua, konpli da noiz, nola eta zertarako asmatzen eta sartzten dituen hitzberri horiek ikustea. Ikerketa faltaz edo, ahaztu edo gutxie-

42. Ikus Lakarra 1992a-n aipatu Baldiri Rexach Catalunyako lekukotasun baterako. Kikero eredu zen hemen eta landa, cf. Barber (1976: 33) Ingalaterrako adibideekin.

43. Cf. «[...] en este sentido no puede el bascuence llamarse lengua erudita, sino con restricción; porque exceptuando los pocos libros, de que luego voy a hacer mención, no tiene otros en que se ayan enseñado o escrito las Artes y Ciencias. Esta no es culpa de la lengua, sino de los que no han querido hablar en ella [...]» (HH, xxxjv, oihartzun nabarmenarekin). Etxeberriek Axularren hitzak errepikatzen ditu ia oso osoan (ikus aurrerago) eta bere aldetik eransten ezen «hainitz gauça hitzcuntça arrotzen itçalaren azpian guretçat ehortciric ceudecinac, Sarac escuaraz arguitara emanic, eraguin tuela Escual-herritçat: non arraçoinequin erran baiteçaquet, Escual-herrico Athenas Sara Lauuridin» (Urquijo 1907: 152).

44. Manuel Alvar Ezquerro, "Presentación" v-vi in *Diccionario castellano con las voces de ciencias y artes y sus correspondientes en las tres lenguas francesa, latina e italiana: su autor el P. Esteban de Terreros y Pando*, Madril 1786 (facsimila 1989). Terreros-ek gazteleraren errumestazuna (eta, bidebatez, frantses eta ingelesarena) salatu baino lehen aspaldiko *topos* den —Larramendik ere badakar hitzaurrean— latinarena markatzen du (ij). Lázaro Carreter-ek bere liburu ezagunean (1949: 276) Terrerosen hiztegia itzulpenaren eta "casticismo"-aren arazoarekin lotzen duela markatu ondoren

tsi egin da *HH*-ak garai hartako eta lehenagoko euskarari buruz eman lezakeen lekukotasuna, Mitxelenak (1961, 1970) aztertu eraskinez landa. Alabaina –eta hau garbiago agertzen da euskara-gaztelera hiztegia dazagunetik– *HH*-an gutxiena da asmatua eta gehiena herritik eta autoreetatik bildua. Jadanik Caro Barojak markatu zuen bere aberastasuna itsasgaiei dagokienean; ez dut uste beste sailetan ere urriago datekeenik, eta oparoa dugu arkaismo eta are hapaxetan. Bere hiztegian lehenik onartzen dituen hitzak ezagutzen zituen liburuetan irakurriak eta herritik jasoak dira; bi sailotan, gainera, euskalki guztietarik hartuak, batekoak bestekoaren osagarri izan litezen eta erdara alperrik eta berba jatorren kaltetan jo beharrik izan ez ledin (*DT*, xxviii-xxlviii; honetan ere Etxeberriekin (399) bat dator). Egoera hau gainditzeko jartzen ditu hiztegian, inolako euskalki bereiztasunik gabe, bildu ahal izan dituen euskarazko hitz guztiak, Euskal Herri guztietara zabal litezen eta denetan ezagut. Hauen ondoren erdaratiko mailebu bertakotzak sartzen ditu eta, azkenik, soilik zientzia eta tekniketarako, berbak asmatzen. Hauek bai, guztiak asmatzen ditu, euskara gai horietan oraindik saiatu eta trebatu gabe baitzen: «El bascuence no ha necesitado...».

## 6. Hitz berriak sortuaz

Ez da, dakidanez, Mitxelenak Eranskinean egindako iturri bilaketa *Hiztegi Hirukoitza*-ren gorputzean burutu, ez eta gehiegi aitzinatu ere (cf.

orain Urgell-prestatzen). Horrelako eginkizun baten berezko zailtasunez landa, nago bazela horren falta zuritzen zuen aurreiritzirik: hots, *HH*-ean azken finean iturri nagusia ez litzateke L-ren beraren Minerva baino, dena edo gehiena asmatu baitzuen. Lakarra 1994a-n Harrieten adibidearekin erakutsi dudanez –eta alorra ez da inondik ere agortua– *HH*-ean ere iturriak, ahozkoak eta idatziak, erabili ziren eta filologo lanerako gogo faltak edo baino ez du azaltzen (ez zuritzen) zabal eta zehatz horko sarreren iturburuak aspalditik ez ezagutua. Hemen, ordea, besterik zait axolazko. Ia segurtasun osoz, Harrietengandik hartutako hitz anitzen artean dira hurrengo eskukadak:

L : H

acto, eguiña, *eguintza*: action, *eguiña*.  
 adolescencia, *gaztetasuna*, gazte-dembora, gazteera, gazteenera: adolescence, *gaztetassuna*.  
 amor, *amodioa*, amorioa, *naicundea*, amaera, maitaera, amorea, oneguna, onirizcoa: amour, *amodioa*, *nahiqundea*.  
 amoroso, maitatia, maitatsua, onestia, *amodiotsua*, biotzutsá, amutsua: amoureux, amodiosa, *amodioxa*.  
 anciano, anciñacoa, agure zarrá, *adintsuá*, adinandia: ancien, çaharra, *adinxua*.  
 austeridad, mortificación, *hildurá*, illerazqueta: appesantissement, *hildura*.

Hitz eratorriak, konposaturen bat halaber, ditugu hartutakoen artean. Euskal hiztegegintza historikoaren egoera hitsak –eta *HH*-aren eraikuntzaren inguruko aurreiritziek– eraman gaitzakete bere aldetik asmatzeko

---

honela jarraitzen du Alvar Ezquerria-k: «El repertorio de nuestro lexicógrafo es una sorprendente conjunción de la amplitud de criterios para acoger términos acuñados fuera de nuestra lengua junto a voces patrimoniales del idioma. Quiero insistir en este aspecto, pues la idea generalizada que se tiene del diccionario es que se trata de un vocabulario científico y técnico, cuando, en realidad, es un diccionario general de la lengua enriquecido con cuantos términos específicos de las artes, ciencias y técnicas pudo allegar el autor.»

gogo gehiegirik gabe hor ezarri hitz zenbait L-ri leporatzera *HLEH*-an egin bezala. Ikusia dugunez, ez hari ez euskal hiztegitik zaharrei beharbada zama nekosoia ez iruditu arren inoren hitzena, are inoren asmakizunena, benetan gertatua ez da hori, dakigunez. Segidan datozenak ere Larramendik *HH*-ean egiten duen H-ren erabilerari dagokionez parekagarri dira eta eredu hura erabiliak baino ez dakar andoaindarrarenean azaltzea:

L	:	H
abatimiento, <i>beeratzapena</i> (id s.u. baxeza), beeratzea: abaissement, <i>beheramendua</i> .		
abundancia, ioria, iyoria, ioritasuna, iyoritasuna, ugaría, ugaritasuna, naraó, narotasuna, <i>francotasuna</i> : abondance, <i>fragancia</i> .		
abreviatura, <i>laburrera</i> , chaburrera: abbreviation, <i>laburqunça</i> .		
acomodar, componer, maneatu, compondu, zucendu, <i>onguitu</i> : acommoder, <i>onsatcea</i> .		
aseguración, segurutzea, <i>segurundea</i> , bermea, bermegoa: assurance, <i>seguramendua</i> .		

Ikus daitekeenez, L-k oinarriak onartu arren, atzizkiok (*-mendu* agerriki) ez bide gogoko, eta bestez ditu aldatzen. Hertsian hitzberriok L-ren sorkuntza

direla esango bada ere, zehaztasunak moldaketa baino ez direla kontuan hartzera garamatza: *frankotasuna* (\*XVIIe.a., 1809) eta *ongitu*-ren (\*XVIIe.a., 1782) historian (eta lekukotasunen balioaren epaiketan) garrantzia poxia duela deritzot *franganzia* eta *onsatu*-ren H-ko ereduak.<sup>45</sup>

Idazkera landuaren tasun markagarrienerarik delarik atzizkien erabileraren ugaltzea ezagun denez,<sup>46</sup> eta ez izaki atzizki bakoitzaren zedarriztapen tinkoegirik, usadio bereziak aurki daitezke egileen artean bai atzizki hautapenari eta baita atzizki bakoitzaren balioari doakionez. Honela bada idazlearen artean, areago haien zabaltzaile diren hiztegitagileenean. Eginkizun emankor dugu atzizkiak arrasto edo aztarna gisa erabiliaz ondutako euskal hiztegien azterketa historikoa. Oraindik behar bezala xurgatu ez den iturri honen balioaz jabetzen gaitu *E* eta *H*-en azterketak: ikus *-kuntza* eta *-katu* atzizkiez Lakarra 1991. Nekez azal daiteke alde larri hau –eta gertakari beraz ohartzen gara gainerako deribazio atzizki garrantzitsuenei (*-ada*, *-ara*, *-ari*, *-bide*, *-dura*, *-(k)eta*, *-gabe*, *-garri*, *-gin*, *-go*, *-kor*, *-kuntza*, *-lari*, *-men*, *-mendu*, *-ntza*, *-pen*, *-tasun*, *-tsu*,

45. Testukritika liburuetan (cf. Lakarra 1988, 1991 eta erreferentziak) ez da eriden ohi gauza handirik hiztegiez. Hertsian hertsian, ez dira *testu* (hizkuntz historialariek, gure artean *HLEH*-ak edo *OEH*-ak, esaterako bereizi ohi dute testuen lekukotasuna eta hiztegitatikoa), eta beraz, ez dagokie testukritikalariei haien azterketa. Alabaina, pentsaketa apur batek erakutsi liezaiguke nekez onar dezakegula honelakorik. Hasteko, edizio eta eskuizkribu diferenteen arteko ezberdintasun anitz hiztegi arazoak dira, hitz aldaerak, sinonimia arazoak, arkaismo eta berrikuntzak, etab.; bestetan kopiagile, moldatzaile edo argitaratzaileen batek delako testu bat prestatzeko halako edo holako hiztegia erabili du. Azkenik, ez da zaila ikustea hiztegien azterketa filologikoak badituzkeela lexikografia hutsez landako emaitzak (iturriak zehazteko orduan, esaterako); ez bide da ezinezko, bestalde, hiztegien azterketan testukritikaren ariketatik ateratako ezagutzaren bat edo beste interesgarri izatea, eta are, seguruenik, alderantziz. Huts bateratzaile eta irakurketa hobeen erizpideez gainerakorik erants dezakegulakoan nago eskuartearen ditugun azterkizunetarik abiatuz.

46. Bere laburrean ezin argiago da honetaz Sarasola 1986; hurrengo aipua § 3.etik hartu dut: «Ez dut hau aukerarik egokiena literatur hizkuntza baten aurrerabidea baldintzatzen duten alderdi guztiez aritzeko. Baina bada bat euskal literatur hizkuntzaren bilakaeran ene ustez frogaharri gertatzen dena, orain arte egin zaion hutsaren hurrengo jaramona gorabehera. Euskal atzizki-sistemaren bilakaera eta aurrerabidea da. Izan ere koerlazio guztiz garaia bide dago literatur euskalki baten eratzearen eta bertan gertatzen den hitz eratorrien kopuruaren artean».



-*tzaile*, etab.) doakienez— soilik bi zation tamainan oinarrituaz, EF bestearen erdia pasatxo baita, gramatikako 268-323 eta 324-440. or., hurrenez hurren. Berariazko borondatea kausi dezakegu FE hiztegian atzizkibidezko deribazioz sortzeko EF-n peitu ziren hizkuntza jasoago baterako berbak.

Lakarra 1985 eta 1992a-n erakutsi bezala, ezin jar daiteke zalantzan Larramendiren asmoa edo “seriotasuna” berak (edo jarraitzaileek) Hiztegian asmatutako hitzberriak erabili ez zituelako, edota hainbatetan aipatu Hiztegiaren egituragatik (erdarareuskara). Iritzi guzti hauek akats bakarra baina larria dute: ez datoz datuekin bat. Testuez landa, bihur gaituzen L-ren euskara-gaztelera hiztegiara: *HH* egin ondoren —“hutsuneak nola edo hala betetzea» bazen helburuzertarako sar ondorengo zerrendakoak?

desaguertu, desaparecer  
desizurritu, desapestar  
desaguiria, desaguerria, desaparecimiento  
deserruquitua, desapiadado  
desbecerotu, desaparroiquirese  
desoincastu, desapiolar  
desitsascuna, desapego  
desarreta, desapicación  
desprestatu, desprevenido  
desalpegoa, desapoderamiento  
desprestamena, desprevención  
desalpetu, desapoderar

Ezin esan aurizki horren bitartez sortuak salbuespen direnik: *darraicoya* “circunstante”, *darraicotu* “circunstanciar”, *daquireguia* “colegio, casa de ciencias”, *daquireguitarra* “colegial”, *daquireguitua*, *eleiza* “colegiata”, *damuquidatu* “condolerse”, *dauquidatu*

“contener, incluir” bata bestearen segidan dira (Altuna 1967: 266) eta baita *arartequida(goa)*, *araudea*, *arauquida(tu)*, *arrendea*, *cicoiznaitia*, *contuteguia*, *contuquintza*, *contragoyaquindea*, *contraegosgarria*, *contraegotu*, *contraera*, *contraantea*, *comentuarquea*, *ciazaldea*, *ciazaldaria*, *ciamartea*, *ciamartu*, *ciazaldu*, *equidaria*, *equidaquintza*, *equiñartaria*, *goaditu*, *goadia*, *goaditsua*, *gorputzquidea*, *gozagaindu*, *hirurquia*, *hirurbana*, *hirgantia*, *hirgaña*, *hitzaurquea*, *hitzerosa*, *hitzerostu*, *hitzaquida* eta beste hainbat eta hainbat (ikus Lakarra 1985 eta 1992a L-ren testuetakoez).<sup>47</sup>

## 7. Mailebuak

Larramendik “sabindarrekin” dituen ezberdintasunak ez dira soilik hitzberrietara mugatzen, jakina. Garbizalezen Larramendi, noski, eta behin eta berriz iharrosi ohi zituen halako ahuntzerdara, euskara, gaztelera eta beste hizkuntzen nahaste mordoiloak, lehenago Etxeberri egin bezala. Horrelako anitz eriden daitezke, ez soilik hiztegiaren hitzaurrean, baina baita *Corografía*-n edota Mendibururi egin hitzaurre-gutunean ere. Haatik, ezin har dezakegu bere pentsamoldea eta jokaera garbizalekeriaren lekukotzat. Gure artean garbizaleek azkenotan arrakasta ez begiramen handirik izan ez dutenez gero, komeni da garbitasuna eta garbizalekeria bereizten hastea L-k —lehenago Etxeberri bezala— ez baitu ezer bigarrenetik. Mitxelenak (1983: 21) ohartarazi duenez, Akademien garaian bizirik, halabeharrez zatekeen garbizale euskara hizkuntza landuen sailean sartzeko.

47. Testuko zenbait pasartetan eriden daitekeenaz landa, hitzberrien eta kultur edukinen artean den lotura zuzenez aritu naiz Lakarra 1985 eta 1992a-n; orobat Larramendi eta “ondoko garbizaletasunek” dituzten ezberdintasunez, euskal tradizioaz (lexikoaz zein zabalagoaz) duten ikuspegiaren aldetik.

Ongi zekien L-k *irriscatu*, *arrimua*, *arrimatu*, *arroba*, *arrogancia*, *arrojua*, *arte*, *artemisia*, *asma*, *asaiatu*, *cerraztu*, *estandarte*, *ibero* eta beste hainbat eta hainbat hitzi euskal etimologia eman arren latinetik eta erromantzeetarik berba anitz zuela euskarak; pentsatzekoa da, gainera, euskal etimologia ez ote zien emango taktika maltzur bezain eraginkor batez, «zorrak hartzeko bihurtuaz» Mitxelenak definitu legez (1983: 22, 1984a: 14), euskaldunek beren lanetan erabil zituzten haien etorkiez axolatu gabe; bada honen aldeko frogarik bere jarraitzaileengan (Egiategi, Lore Jokoetakoak, Iztueta, etab.). Pagolak dioskunez (1984: 55) «esta fidelidad a Larramendi permite además utilizar con toda tranquilidad palabras caste-llanas legitimadas por él, cuyo uso en purismos posteriores sería impensable». Kontu honetan agertzen duen jarrera ezin garbiagoa da eta lekukotasunak ugariak: har dezagun, esaterako, Mogelek luzaz eta hitzez hitz bere lehen liburuan —eta Orixek 1929ko hitzaldi famatuan— aipatuarren zorigaitzez ezagunegi ez den testu batetik, Mendibururi hitzaurre-gutun bezala bidali zion testu hain eder zein interesgarritik. Ez dut uste inola ere mezpreza daitekeenik hone-lako aldarrikapenik; belaunaldi horretako idazlerik garrantzitsuenaren lehen obraren aitzinean eta belaunaldiaren aitapontekoak egina dugu. Gai berbera ukitua zuen jadanik, eta bi aldiz gutxienez, Hiztegiaren hitzaurrean; bata, han sartu hitz arrunten berri ematean:

Entre las voces vulgares del bascuence, pongo muchas que en propiedad no son bascongadas ni de origen suyo, pero que las ha hecho propias suyas por el uso y por la virtud que como lengua viva tiene de apropiárselas y adoptarlas.<sup>48</sup>

Hauen artean, ordea, bereizketak egiten ditu, eta oso zuhur egin ere: guztiz onartzen ditu beste hizkuntzetan bezala gauza berri edota kanpotik etorriei dagozkienak, baita *santu*, *pena* eta holakoak, hots, beren euskal ordaina izan arren jadanik hura baino hedatuago eta ezagunago direnak; haatik, kanpo uzten ditu sermolari txarren eta elebidun baino euskaldun gaiztoago ziren mihietan entzun ohi erdarakadak. Hitzaurrearen aitzinean ere, hiztegiaren eskaintzan bertan, ukitzen du erdaratik hitzen kontu hau:

Esta incorrupción o inmortalidad del bascuence no nace de estar el sitio escondido a los ojos humanos, como el del paraíso... Pero ni aun ellos mismos [los guipuzcoanos] aunque suelen volver a su patria imbuidos de otros idiomas, aciertan a alterar la constancia de su nativa lengua. Si algunos vocablos forasteros se han introducido en el bascuence, sólo es en la forma y ritualidad con que tal vez algunas personas extranjeras obtienen naturaleza en esta provincia, probando hidalguía y sujetándose a las leyes del país en un todo: al modo que en otro tiempo los romanos dieron naturaleza a varios nombres griegos y de otras naciones, sujetándolos á la inflexión latina y enriqueciendo su lengua sin mudarla.<sup>49</sup>

48. Gogora bedi Mendibururi egin gutuna eta gonbara bitez Ibarren epaiketa zorrotzegiarekin: «preocupado él mismo [Larramendi] por el "aspecto visual" de las palabras —único perceptible a los *inquisidores extraños* que interesaba confundir— no sólo supeditó a esta preocupación el *Diccionario*, su obra más trascendental, sino que por el ascendente de su autoridad dejó enquistado el funesto prejuicio en las inteligencias de una infinidad de discípulos» (Ibar 1936: 120). Orix ongi konturatu zen, aldiz, Mendibururi egin gutunak zuen garrantziaz eta bai 1927 eta baita 1930ean ere aipatua zuen.

49. Dotrina bertua dago Etxeberriengan, gizarte metafora gabe. Gramatika erregelek hiztegi hitzen aurrean duten lehentasuna nabarmen azaltzen da; cf. Lakarra 1996-b eta prestatzen-a.

Lakarra 1985-ean erakutsi nuen da-goeneko ez zela zuzena Aranaren aitzindaritzat joaz Larramendi garbizaletzat izatea hari buruz zenbaitetan irakurri legez: «primera raíz del carácter teórico y purista que siempre se ha dejado sentir en el tipo de idioma utilizado por la literatura vasca meridional», «arraigando en el sentimiento vasco la semilla –y plaga– de los puristas de principios del XX». Hitzberriak zertarako nahi zituen ezaguturik eta orobat gainerakoetan eskatzen duen erdiko bidea, zail egiten da pentsatzea L-ren hiztegian “usain jatorra” mantendu asmoz mailebuak ez direla izango pentsatzea. Lehendabiziko orrialde dozenan eta begi kolpe arin batez hauek aurkitu ditut esaterako: *abadesa*, *abadesea*, *abadia*, *abadearen barrutia*, *banderaduná*, *banderatua*, *abaninoa*, *abarcatu* (“abarcar”), *abeceá*, *abetoa*, *bezatu*, *abiatu*, *bigoteduna*, *abilidadea*, *testamentu bague*, *bizcochatua*, *ablativoa*, *abollatu*, *abollatzallea*, *abollantza*, *abollatzea*, *bolsatua*, *botiñatua* (“abotinado”), *botoitu*. Azkueren galdera ikurrik ez antzeko salatzailek gabe dira, orobat, “cielo” *cerua*, “iglesia” *eleiza*, *eliza* “ley” *legue* eta beste. Izan ere L-ren usadioa aski urruti gelditzen da XX. mende hasieratik zabaldu diren, baina ez bakar ez lehen diren, (ustez bederen) ezagunagoetarik. Garbizale izan arren ezin L garbizalekeriaren eredutzat jar eta Mitxelenak (1983: 21) ohartarazi duenez, Akademiaren garaietan bizirik, halaber, izan zatekeen garbizale euskara hizkuntza landuen sailean sartzeko. Akademiak gogoratzen zaizkigunez gero garaiko giroaren erakusgarri, komeni bide da Gili Gaya-k (1963: 18 hh) Espainiakoaren lexikografi lanaz esandakotik zer edo zer hona ekartzea:

(...) hay que tener en cuenta que la preocupación académica esencial en aquel momento era el *casticismo*, entendiendo esta palabra en su sentido rigurosamente etimológico de *castizo*, lo que pertenece a la *casta*, lo patrimonial o lo que es claro y propio. Por no ser claras ni propias se desechaban las extravagancias no castizas del último barroco. Este concepto de *casticismo* pertenece sobre todo a la primera mitad del siglo XVIII, y no debe confundirse con el *purismo* que sobreviene por la lucha antigalicista en la segunda mitad del siglo, y dura buena parte del siglo XIX. El *purismo* surge del *casticismo*, pero es un concepto más restringido y polémico.

Hor egin bereizkuntzak eta horren ondorioek (dialektoetatik eskuzabal hartu hitzez, esaterako) badukete interesik gure XVIII. mendeko hiztegitzaren eta hizkuntz ideien inguruko eztabaidetan, noizbait azterketa patsadatsuagorik egin baledi, bederen; nolana ere, banago lanean zehar aipatu diren eta beren lanetan bil daitezkeen hainbat pasartek Etxeberri eta Larramendi Gili Gaya-ren jatorzaletasun (“casticismo”) horretan errazago kokatzen dituztela bestetan baino.

Garbizaletasunen bat, mailebu gordin eta premiagabeen aurkakoa eta hitz jator eta eskurakoien aldekoa besterik ez bada ere (cf. Lakarra 1985) izan zen, ordea, eta L aurretik euskal idazle landuen eta are hiztegitzilerik arrunten artean ere. Garibairekin hasten eta Mogeekin oraindik jarraitzen zuen arren Bilboko euskara erdalduaren ospe gaiztoak; hara Mikoletak bere hitz zerrendaren aurretik jarri zuena:

Pondremos aquí un vocabulario breve de los nombres que más exquisitos

son en nuestra lengua, porque hay muchos que con el mismo sonido y significación del romance se vascuencen, como "sermón" *sermoea*, "considerar" *consideradu*, etc. Esto es lo que más puede enseñar la teórica: la práctica es la que más obra en la demostración de nuestro idioma como en los demás, pero más en éste, etc.

Goian ikusi ditugu Harrieten gramatikako EF eta FE hiztegietan hitzberrien maiztasun eta eraketaz bikoiztasun markagarriak ere. Nabarmena da bigarren hiztegian lehendabizikoan Léclusek salatzen zituen (cf. Lakarra & Urgell 1988) gehiegizko erdarakadak ezabatu nahi izan direla, ordain jatorrak edo mailebu errotuagoen bitartez. Kasuren batean euskara-frantsesean izanik dagoeneko euskal hitz garbia, mailebu gordina ezabatu egin da besterik gabe; beste batzuetan garbizaletasun bera islatzen zaigu; mailebuak desagertu ez arren, ezarri da besterik ere haien aldamenean bigarren hiztegian. H-en gramatikan 506-507 hutsegiteen zuzenbidearen aurretik erdiezkutaturik egileak ezarri zuen «Escualdunei gomendioa eta Abisua» hura ere aipatu dugu. Bertan, besteren artean, ez du ahazten prestatuturik zuen «liburu chumetto» bati propaganda apur bat egitea:

baita berce liburu bat bi partetan, lehenbicoa escuaratic verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen khenceco, hala nola *nago*, *noha*, *darasat*, &c. horlaco haiñitz erreguela gabe dire, eta erreguelacoac dire *egoten naiz*, *goaten naiz*, *erasten dut*, &c. berce parte da escualdunec berce hitzcuncetatic hartuac dituzten hitcen khenceco, hala nola

<i>Intencionea</i>	<i>chedea</i>
<i>inclinacionea</i>	<i>pendura</i>
<i>inquietatcea</i>	<i>khechatcea</i>
<i>ingrata</i>	<i>esquergabea</i> , &c.

Lehenbicoac berce hitzcuncetatic dire eta berceac escuara dire.

Ohar daitekeenez, *pendura* eta *khechatcea* ere «escuara bait dire», Harrieten ez bide zen muturreko garbizaletasuna; Larramendi, ordea, ez zen horrenbestearino ere iritsi.

## 8. Ondorioak

Lan honetan XVIII. mendera arteko hiztegiak lexiko berrikuntzaz aurkezten digun zenbait jakingarri miatu dugu.

§ 1.ean Landucci-ren hiztegia (A) eta euskara-islandiera (B) hiztegiek biltzen duten hitz altxor ezohizkoa eriden genezake, garaiko (eta inguru berezi bateko) egoera, teknika eta lanabesekin. Mailebuak ugari dira, eta horien artean baita lehen agerraldiak ere; frango dira euskararen historian errotu gabe gelditu direnak ere eta eskas, batean zein bestean, eratorpenez sortuak. § 2.ean ere antzekorik daku-sagu, Tresora (A) eta Mikoletarekin (B), hauetan elkarrizketak ere hiztegi berrikuntzarako baliatzen direlarik. Nolanahi ere, ardua berezia dugu lexikoaren aldaketaz eta sorkuntzaz *Tresora*-n eta mailebuen kopuru eta egokitasunaz *Modo breve*-an.

§ 3-4.etan Pouvreau eta Urteren hiztegiak laburtu dit mailebaketa eta hitz-eraketari dagokienez. P-ren hiztegia ez da "autoritateena" baizik eta -Alemanian Schottelius eta besteren antzo- jatorrizko zein mailebuzko oinarrien gainean eratutako hitz-familia bilduma. Berrikuntza portzentaiak (eratorpenaren bitartezkoak) handiak dira oso, eta ezin lepota dakizkioke *HLEH*-n aurretik lekukotasun erkagai gutxi izateari baizik eta -hiztegi aitzinean kokatu sormenari buruzko oharrak adibide- berariazko borondateari. Urtek ere, jaioterrian

ikasi zituenez landa bestelakoak, frango mailebu ingelesetikoak, anitz berak sortu hitz berriak, kokatzen ditu bere hiztegieta. Bai batuk eta bai besteak, beren idazkietan, beharren izarian, lexiko berri honen erabileraren lekukotasun anitz utzi digute.

§ 5.ean Martin Harrieten Gramatikako hiztegiak aztertzen dira. Eraketa berri ugari (batez ere frantses-euskara alderdian) eta mailebu bertakotu frango kausitzen dira. Aipu berezia merezi dute, alde batetik, gramatika barnean azaldu hitz berriak sortzeko atzizki zerrendak eta, bestetik, mailebu gordinegiak ezabatzekeo saioek, isilak (euskara-frantses hiztegitik frantses-euskara bidean) zein aipatuki (liburu amaieran) burutuak. Berebiziko ga-

rrantzia dute ezaugarri guztiok euskal lexikografiaren historian Larramendik Harrietekiko duen zor larria ezagutu ondoren.

§ 6. eta 7.ean Larramendiren hizte-gigintzan mailebuek eta hitzberriek duten tokia zehazten da: bata eta bestea kultur proiektu baten erantzun orokorraren ataltzat agertzen zaizkigu, aipatuki "erdiko bidea" proposatzen digularik egileak, garbizalekeria agorretarik eta zabarkeria eta ustelketatik urrunduz batean, eta euskalki orotako aberastasunak erabili ondoren peitu diren hitz teknikoetara mugatuz, bestean. Batean zein bestean, Larramendi tradizio zaharrago baten partaide dugu, Euskal Herriko aitzindariak zein gure mugetarik atetikoei so eginaz.

## Bibliografia

- Acero, I., (1985): "El *Diccionario latino-español* y el *Vocabulario español-latino* de Elio Antonio de Nebrija: análisis comparativo", *Anuario de lingüística* 1, 11-25.
- Altuna, P., (1967): "Larramendiren iztegi berria", *Euskera* 12, 139-300.
- Anderson, J. D., (1972): *The development of the English-French, French-English Bilingual Dictionary: A Study in Comparative Lexicography*, Ph. D. diss., Baton Rouge, Louisiana State Univ. (Ann Arbor Univ. Microfilm).
- Azkarate, M., (1992): "Larramendiren hitz-eraketa", in Lakarra (arg.) 1992b, 207-219.
- Azkue, R. M., (1928): "Manuscritos vascos en Inglaterra", *Euskera* 9, 218-227.
- Bakker, P., G. Bilbao, N. G. H. Deen & J. I. Hualde, 1991, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, ASJU-ren gehigarriak, 23, Donostia 1991 (= ASJU 25/2. 315-467).
- Barber, Ch., (1976): *Early Modern English*, André Deutsch, London.
- Bilbao, G., (1992): "Pouvreuren hiztegi laukoitza", *ASJU* 26/2, 341-389.
- Bourland, C. B., (1974): "The *Spanish schoole-master* and the polyglot derivatives of Noel de Berlaumont's *vocabulaire*", *Revue Hispanique* 81, 283-318.
- Bray, L., (1988): "La lexicographie bilingue italien-allemand et allemand-italien au dix-septième siècle. L'exemple des dictionnaires de L. Hulsius et de M. Kramer" in Snell-Hornby, 199-206.
- Colón, G., & A.-J. Soberanas, (1979): "Estudio preliminar" in *Elio Antonio de Nebrija. Diccionario latino-español (Salamanca 1492)*, Puvill-editor, Bartzelona, 9-36.
- \_\_\_\_\_, (1985): *Panorama de la lexicografía catalana*, Encic. Cat., Bartzelona.
- Cooper, L., (1960): "Sebastián de Covarrubias: una de las fuentes principales del *Tesoro de las dos lenguas francesa y española (1616)* de César Oudin", *BH* 62/4, 367-397.
- \_\_\_\_\_, (1962): "El *Recueil* de Hornkens y los diccionarios de Palet y de Oudin", *NRFH* 16/3-4, 297-328.
- de Jongh, W. F. J., (1949): *Western languages manuals of the Renaissance*, The Univ. of New Mexico Press, Albuquerque.

- Dodgson, E. S., (1898): "The Biscayan grammar. Vocabulary and bilingual dialogues of Rafael Micoleta (Bilbao 1653)", *RLPhC* 31, 35-41.
- \_\_\_\_\_, (1901): "Quelques manuscrits basques biscayens", *RLPhC* 34, 85-101.
- Foulché-Delbosc, M. (= "Marcel Gauthier"), (1919): "Diálogos de antaño", *Revue Hispanique* 45, 34-238.
- Gallina, A., (1959): *Contributi alla storia della lessicografia italo-spagnola dei secoli XVI e XVII*, Olschki, Firenze.
- García Macho, M. L., (1988): "Estudio comparativo entre dos ediciones del diccionario latino-español de Elio Antonio de Nebrija", in Ariza et al. (arg.) *Congreso de historia de la lengua española*. Madril, Arcos, 845-858.
- Geckeler, H. et alii, (1981) (arg.): *Logos semantikos. Studia linguistica in honorem Eugenio Coseriu*, Gredos & Walter de Gruyter, Madril, New York, Berlin.
- Gili Gaya, S., (1960): *Tesoro lexicográfico (1492-1726)*. I, A-E, C.S.I.C., Madril.
- \_\_\_\_\_, (1963): *La lexicografía académica del siglo XVIII*, Cuadernos de la Catedra Feijoo 14, Univ. de Oviedo, Oviedo.
- Guerrero, G., (1988): *El léxico en el Diccionario (1492) y en el Vocabulario (¿1495?) de Nebrija*, Doktorego tesia, Málaga Unibertsitatea. Mikrofitxetan argitaratua.
- \_\_\_\_\_, (1990): "Nebrija, autoridad en el Tesoro de Covarrubias", *RFE* 70. 133-141.
- Hartmann, R. R. K. (arg.), (1986): *The History of Lexicography. Papers from the Dictionary Research Centre Seminar at Exeter, March 1986*, Benjamins, Amsterdam.
- \_\_\_\_\_, (arg.), (1989): *Lexicographer and their works*, Univ. of Exeter.
- Hausmann, F. J., (1988): "Les dictionnaires bilingues italien-allemand / allemand-italien au dix-huitième siècle" in Snell-Hornby, 207-216
- Hayashi, T., (1978): *The theory of English lexicography, 1530-1791*, Benjamins, Amsterdam.
- Hualde, J. I., (1984): "Icelandic Basque pidgin". [Orain *ASJU* 24: 2, 1990]
- Ibar (=J. Mocoora), (1935): *Genio y Lengua*, Tolosa.
- Jones, W. J., (1991): "Lingua teutonum victrix? Landmarks in German lexicography", *HEL* 13: 2, 131-152.
- Kerejeta, M<sup>a</sup> J., (1991): "Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegia", *ASJU* 25/3, 865-899.
- Kibbee, D. A., (1986): "The Humanist period in Renaissance bilingual lexicography" in Hartmann (arg.), 1986, 137-146.
- Lakarra, J. A., (1984): *Euskal Thesauruserako Gaiak: Hegoaldeko Testuak (1700-1745)*, tesina argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- \_\_\_\_\_, (1985): "Larramendiren hiztegitantzaren inguruan", *ASJU* 19/1, 9-50.
- \_\_\_\_\_, (1988): "Testukritikaz: I. Stemmarantz" in id, (arg.), *Hiztegiak eta testuak*, EHU-ren Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, (1991): "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi", in id, (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, (*ASJU*-ren gehigarriak, 14), Donostia, 217-258.
- \_\_\_\_\_, (1992a): "Larramendirekin aurreko hiztegitantzaren historiaz: aztergai eta gogoeta", in Lakarra (arg.), 1992b, 279-312.
- \_\_\_\_\_, (1992b) (arg.): *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala et alii, Andoain.
- \_\_\_\_\_, (1993): *XVIII. mendeko hiztegitantzaren etorkiez*. Doktorego tesi argitaragabea. EHU-Gasteiz.
- \_\_\_\_\_, (1994a): *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, "*ASJU*-ren Gehigarriak", Donostia.
- \_\_\_\_\_, (1994b): "Euskal hiztegitantzaren historiarako: II. Gogoetak Urteren hiztegitantzaz", *ASJU* 28:3, 871-884.
- \_\_\_\_\_, (1994c): "Euskal hiztegitantzaren historiarako: III. Urteren Gramatikako hiztegiak", *ASJU* 28:3, 885-914.
- \_\_\_\_\_, (1995a): "Gogoetak Pouvreauren hiztegiez eta hiztegitantzaren historiaz", *ASJU*-n argitaratzeko lana.

- \_\_\_\_\_, (1995b): "*Hirur lengoaietan tresora: hiztegitintza historia eta tipologia*", *ASJU*-n argitaratzeko lana.
- \_\_\_\_\_, (1995c): "Landucci Larramendiren hiztegian", argitaragabea.
- \_\_\_\_\_, (1996a): "Iturrien erabilera eta tamaina zehaztuaz: *E eta RS*", *Uztaro* 16, 21-55.
- \_\_\_\_\_, (1996b): "Etxeberri eta Larramendi hiztegitintzaz", eskuizkribua.
- \_\_\_\_\_, (1996c): "Hegoaldeko lexikoaren historiaz", eskuizkribua.
- \_\_\_\_\_, (1996d): "Iparraldeko lexikoaren historiaz oharrak", eskuizkribua.
- \_\_\_\_\_, (1996e): "Lexikoaz eta gramatikaz", eskuizkribua.
- \_\_\_\_\_, (1996f): *Refranes y Sentencias (1596): Ikerketak eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, (prestatzen-a): *Sbarbi-Urquijo hiztegia*.
- \_\_\_\_\_, (prestatzen-b): "Arakistainen eraskinak".
- Larramendi, M., (1729): *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España*, Salamanca.
- \_\_\_\_\_, (1745): *Diccionario trilingüe*, Donostia.
- \_\_\_\_\_, (1967): *Diccionario vasco-castellano*, P. Altunaren arg., *Euskera* 12, 139-300.
- Lépinette, B., (1989): "Contribution à l'étude du *Tesoro* de Sebastián de Covarrubias (1611)", *HL* 16/3, 257-310.
- \_\_\_\_\_, (1991): "Etude du *Tesoro de las dos lenguas* (Paris 1607) de César Oudin", *Iberoromania* 33, 28-58.
- \_\_\_\_\_, (1992): "La postériorité lexicographique de Nebrija. Les *Vocabularius Nebrissensis* latin-français (1511-1541)", *HL* 19: 2/3, 227-260.
- Lope Blanch, J. M., (1990): *Estudios de historia lingüística hispánica*, Arco, Madril.
- Mayoral, J. A., (1988): "Creatividad léxica y lengua poética" in Ariza (arg.), *Congreso sobre historia de la lengua española*, Arcos, Madril.
- Merrilees, B., (1988): "The Latin-French dictionarius of Firmin Le Ver (1420-1440)" in Snell-Hornby (arg.), 181-188.
- Mitxelena, K., (1958): "Introducción [Landucci-ren hiztegiari]" *SHLV* II, 762-82.
- \_\_\_\_\_, (1959): "La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)", *SHLV* II, 900-912.
- \_\_\_\_\_, (1960): *Historia de la literatura vasca*, Madril. 2. arg., Donostia 1988.
- \_\_\_\_\_, (1961): "Euskal iztegitilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan", *SHLV* I, 361-372.
- \_\_\_\_\_, (1970): *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, Bilbo.
- \_\_\_\_\_, (1983): "Mendiburu eta Larramendi", *Euskera* 28, 19-23. [Orain *SHLV* II, 912-915].
- \_\_\_\_\_, (1984): "Aurkezpena" in Sarasola 1984, 11-23. [Orain *SHLV* I, 349-360].
- \_\_\_\_\_, (1988): *Sobre historia de la lengua vasca*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.
- Osselton, N. E., (1973): *The Dumb linguists. A study of the earliest English and Dutch dictionaries*, Leiden & Oxford University Press.
- \_\_\_\_\_, (1990): "Distorting the linguistic record: secondary documentation in the "Oxford English Dictionary" in Hullen (arg.), 183-193.
- Pagola, I., (1984): "Neologismos en los Juegos Florales", *ASJU* 18: 1, 53-160.
- \_\_\_\_\_, (1987): *Neologismos en la obra de Sabino Arana*. Doktorego tesi argitaragabea, Gasteiz.
- Quemada, B., (1968): *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863)*, Didier, Paris.
- Salmon, V., (1979): *The study of language in 17th Century England*, Benjamins, Amsterdam.
- Sánchez Regueira, I., (1982): "César et Antoine Oudin: étude comparative des éditions de son *Thrésor* et son importance dans le domaine de la lexicographie", *Verba* 9, 329-40.
- Sarasola, I., (1980): *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Bartzelona.
- \_\_\_\_\_, (1984hh): *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, GAK, Donostia.
- \_\_\_\_\_, (1986): "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* 20/1, 203-215.

- Sauvageot, A., (1971): *L'édification de la langue hongroise*, Klincksieck, Paris.
- \_\_\_\_\_, (1973): *L'élaboration de la langue finnoise*, Klincksieck, Paris.
- Schäfer, J., (1970): "The hard word dictionaries: a re-assessment", *Leeds Studies in English* 4, 31-48.
- Seco, M., (1987): *Estudios de lexicografía española*, Paraninfo, Madrid.
- Snell-Hornby, M., (1986): "The bilingual dictionary. Victim of its own tradition", in Hartmann (arg.), 207-218.
- Stankiewicz, E., (1981): "The genius" of language in sixteenth century linguistics" in Geckeler (arg.), 177-189.
- Starnes, T. de W. & G. E. Noyes, (1946): *The English Dictionary from Cawdrey to Johnson 1604-1755*, Berrarg. G. Stein-en sarrerarekin, Benjamins, Amsterdam 1990.
- Stein, G., (1985): *The English dictionary before Cawdrey*, Niemeyer, Tübingen.
- \_\_\_\_\_, (1986): "Sixteenth-century english-vernacular dictionaries", in Hartmann (arg.), 219hh.
- Steiner, R. J., (1970): *Two centuries od Spanish and English Bilingual Lexicography 1590-1800*, The Hague, Mouton.
- \_\_\_\_\_, (1986): "The three-century recension in Spanish and English lexicography", in Hartmann (arg.), 1986, 229-239.
- Tovar, A., (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza Ed., Madrid.
- Urgell, B., (1985): "Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*", *ASJU* 19: 1, 65-117.
- \_\_\_\_\_, (1987): "Hiztegi aldaketak Añibarroren *Esku-liburua*-n" *ASJU* 21: 2.
- \_\_\_\_\_, (1988): "Añibarroren hiztegiak", eskuizkribu argitaragabea.
- \_\_\_\_\_, (1992): "Martin Harriet Añibarroengan", *ASJU* 26/1. 221-258.
- \_\_\_\_\_, (prestatzen): Doktorego tesia, EHU.
- Urkizu, P., (arg.), (1971): "Tresora hirur linguayetakua Frantzesa, Española eta Heskuara", *ASJU* 5, 175-191.
- \_\_\_\_\_, (1989): *Pierre D'Urteren hiztegia*, EUTG, Donostia, 2 lib.
- Urquijo, J., (1907): *Obras vascongadas del doctor laborano Joannes d'Etcheberri (1712)*, Paris. Berrarg. faksim. *RIEV* 28, Bilbo, 1976.
- Verdonk, R. A., (1979): "Contribución al estudio de la lexicografía española en Flandes en el siglo XVII (1595-1707)", *BRAE* 59, 289-369.
- Villabaso, C., (1913): "El doctor Rafael Micoleta", *RIEV* 7, 568-569.
- Vinson, J., (1881): "Les premiers grammairiens basques. Notes de Sylvain Pouvreau", *RLPhC* 14, 109-119.
- \_\_\_\_\_, (1891-97): *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Berrarg. faksim. Urquijoren oharrekin (*ASJU*-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- \_\_\_\_\_, (1892): *Les petites oeuvres de Silvain Pouvreau*, Chalon-sur-Sâone. Berrarg. faksim. Hordago, Donostia, 1978.
- \_\_\_\_\_, (1893): "Les manuscrits basques de Pierre d'Urte, de Saint Jean de Luz", *RLPhC* 26, 255-269.
- \_\_\_\_\_, (1910): "Le vocabulaire de Pouvreau", *RIEV* 4, 139-141.
- Zelaieta, A., (1988): "Rafael Micoleta Çamudio. *Modo breue de aprender la lengua vizcayna*", *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta literatura* 7, 133-214.



# Telebista-albistegiak: *diversitas inter pares*

**Edorta Arana**  
EHUko irakaslea

Telebista-kanaletako albistegietan esan eta ikusten dena gero eta antzekoagoa dela esan ohi da. Horrela ote den jakiteko, informazio-saioen osagarri formalak eta edukiak aztertuz, bide bat proposatzen zaigu artikulu honetan. Bertan, albistegiaren itxuraketa homogenotutik hasi eta kanal bakoitzaren edukian aurki daitezkeen desberdintasunak aipatzen dira. Eduki-azterketaren teknikatik, kanalaren arteko ñabardurak definitu ahal izateko diskurtso informatiboaren testuingurua nola eraikitzen den ikertzea gomendatzen da.

It has been said that there is a huge similarity between what can be seen and heard on different TV channels. In order to check whether that is true or it is not, this article proposes a way to analyze the content and the formal aspects of news programmes. The formal similarities in the way the news is presented on every channel are contrasted by clear differences in the content of the news. Using the technique of content analysis, we try to prove the need for the intensive study of the context of every news programme, in order to be able to identify and to analyze differences among various TV channels.

Ezagunak ditugun telebista-albistegien artean antzekotasunak nagusi direla gaitza da ukatzea. Pantailaratzen dituzten notizi saioetan ageri diren gaiak, pertsonaiak eta, hauen guztien gainera, kontatzeko modu bertsuak agertzen zaizkigu, behin eta berriro. Itxura guztien arabera, esan eta erakusten zaizkigunaz gain formalki ere parekatu daitezke kanal bateko zein besteko albistegiak. Ondoko lerroetan ikusiko dugunez, albistegien edukien zein osagarri formalen azterketa sakonak, antzekotasunak erakusteaz gain, desberdintasunak egon badaudela adieraziko digu. Telebista-albistegien edukia eta forma ikertuz egin diren lan batzuk ekarriko ditugu hona, berdintasunak zenbaterainokoak diren agerian uzteko. Baina, aldi berean, kanal bakoitzaren bereizgarritasunak nola ezagutu eta zelakoak diren jorratuko ditugu.

### **Osagarri formalaren garrantzia**

“El formato de la información en las televisiones europeas” izeneko artikuluan Saperas-ek eta Gifreu-k (1995) hamar telebista-kanaletako albistegien egituraketaren berri ematen digute. Iraupena, notizi kopurua, zenbat aurkezle dituen edo berri nagusien sumarioa egiten ote den aztertzeaz gain, aipaturiko artikulua albistegien osagarri formalaren garrantzia azpimarratzen du. Telegunkarien arteko antzekotasunak aipatzeaz gain, Saperasek eta Gifreuk osagarri formalaren garrantzi kognitiboa gogoratzen digute, beraz.

Orain arte hedabideei egotzi zaien eragina (gizabanakoengan zein kolektibitateengan pentsaera eta portaerak sortu edota bultzatzea) baino indartsuago bat aipatzen dute: hedabideen logika gizarteratzea. Mass medien kultura

zabaldu egin da erabat eta zipriztindu ditu, dagoeneko, gure eguneroko bizitzaren alderdi gehienak, guztiak ez badira. Mass medien kulturarekin batera beraien logika barreiatu egin da gizarte osoan eta kontzientzia kolektiboaren osagarri nagusietako bat izatera heldu da. Egungo kohesio politiko eta soziala aipaturiko *media logic* hori barik ulertzerik ez dagoela diote. Altheide-k eta Snow-ek (1991: 9) idatzi dutenez, medien logika aipatzean “mediek informazioa aurkeztu eta transmititzeko erabiltzen duten prozesua” ulertu beharra dugu. Orainsu arte, ikerketa gehienak hedabideak esaten zituztenak aztertzeri dedikatu izan dira. Edukian oinarrituriko lan horietan buru-belarri ari ziren, osagarri formalaren garrantzia alboratuz. Hedabideen forma, formatu eta logiken garrantzia baztertuta zuten, beraz.

“...komunikazio-tankerak ez dira agintean daudenean erabiltzen dituzten *errekurtso* hutsak bezala ikusiak izan behar (...); erretorika, esparru eta edo zelako edukiaren formatuak osatzeko ezinbesteko ereduak dira, baita boterea, ideologia eta eraginarenak ere” (Altheide eta Snow, 1991: X)

Aipaturikoaren ondorioz, osagarri formalak berebiziko eragina du edukian. Esango denaren esparrua (*framework*) erabakiz eta nola aurkeztua izango den eskainiz, interpretaziorako irizpideak ere mahaigaineratzen dira. Ikusentzutera ematen denaren baldintzatzaile soila baino egituratzailea da albistegien formatua.

Formatua ez da edukiak aurkezteko elementu formalekara mugatzen (jakintzat hartzen badira ere) hori baino esangura zabalagoko pretentsioa duen kontzeptua da: komunikagarritasun-baldintza da, errealitatearen pertzepzio-eta interpretazio-esparrua da, elkarre-

kintza sozial modu bat da eta kohesio sinbolikorako erritual modu bat ere. (Saperas eta Gifreu, 1995: 36)

Telebista-albistegiaren osagarri formalak aztertzerakoan, bi dira Mancini-ren ustez arretaz landu beharreko esparruak (1985: 48). Albistegiak bere osotasunean sortzen duen makroformatua da bata, eta bere baitan kokatzen diren notizia soilak bestea, alegia, mikroformatuak izendatuko ditunak. Biak, mikroformatua eta makroformatua, telebistetxeen produkzio-moduen erakusgarri eta emaitzak dira. Mikroformatuen kasuan, gertatzen diren etatik zeintzu notiziatu eta nola aurkeztu erabakitzea izango da kontua (Epstein 1974; Golding eta Elliot 1979; Tuchman 1983; Schlesinger 1978). Makroformatuen kasuan aldiz, erredakzioan landuak izan diren berriei nolako esparru, ordenaketa eta aurkezpen orokorra emango zaien ebatzi beharko da.

Albiste soilen sailkatze hutsa baino askozaz gehiago den notizi saioen produkzio-lanetan hainbat pauso eta eginbeharreko automatizatu egiten dira. Ikusentzuleen zein kazetarien aldetik hartuta, albistegiaren hainbat faktore mekanizatu egiten dira. Denbora-presio handiaz burutzen den produktu konplexu honen lana errazteaz gain hartzaileekiko elkarrekintza ahalbidetzen duten ohitura bilakatu diren hainbat prozedura. Telebista-kanaletako albistegiek (baita notizia soilen tratamenduan eta) egun duten formatu berdintsuen ondorioa da esaniko ohitura bilakatze hori. Telebistaren aurrean eseri eta pantailaratzen zaigun programa albistegi bat dela, eta bertan eskaintzen zaizkigunak nola ulertu behar diren ere automatizatuta edukitzea ohitura horren ondorioa da. Egunerokotu dugun mekanika horren interakzio-

-elementu nagusietako bat albistegiaren formatua da.

Hasieran aipatu dugun bezala, Saperasek eta Gifreuk Europako zazpi estatutako telebisten emaitza informatiboak aztertu dituzte, beraien artean eguneroko albistegiaren dauden antzekotasun formalak agerian utziz. Formatu aldetik beraz, kanalaren arteko desberdintasunen gainetik parekotasunak dira nagusi hamar telebista-albistegi horietan.

Ikus ditzagun ondoren aztertutako albistegiaren agertzen diren amankomuneko elementuak:

-Ordu erdiko programazio-blokea betez, 22 eta 32 minutu bitarteko iraupeneko informatiboak aurkitzen dira nagusiki laginean. Luzeena Kataluniako TV3koa da 36,4 minutuz eta laburrena Eskoziako STVkoa, 17,1ez.

-Notizi saio bakoitzean, 17 eta 22 berri artean aurki daitezke. Hemen ere goian aipatu ditugun albistegi luzeena eta laburrena izateak erlazioa edukiko du bertako notizi kopuruarekin.

-Albistegiari hasiera emanez, nagusizat hartu dituzten albisteez sumario bat egitea guztiz zabaldua dago. Hirutik seira dira "garrantzi informatiboaren" arabera antolatutako atal txiki horretan kokatzen dituzten notiziak.

-Sumarioaren erabileran homogeneoak diren bezala, notizi saioaren amaieran antzerako zerbait egitekoan ez dira denak ados jartzen. Telebista-kanal gutxi batzuetan egiten dute titularrak amaieran ere aipatu, eta hori egiten den kasuetan hasierako sumarioaren errepikapen hutsa izaten da ala, esate baterako Eskoziako STVren

kasuan, gormutuen lengoaia erabiliz burutua.

-Albistegiaren aurkezleak paper garrantzitsua jokatzen du informazio-saio guztietan; berari dagokio programa aurkeztu eta gidatzeaz gain, informazio-saioa pertsonalizatzea. Egungo albistegi-formatuan bazterrezina den aurkezleak igorle eta hartzailearen arteko lotura egiten du.

Saperasek eta Gifreuk 1993ko albistegiekin buruturiko ikerketa, bi urte lehenago Hego Euskal Herriko notizi saioetan (Arana: 1995) agertu ziren parametroekin bat dator. Televisión Españolaren Telenavarra eta Telenorte eta Euskal Telebistaren Teleberri aztertuz, formatu aldetik homogenotasuna ageri da toki askotatik. Notizi saioen iraupenak ordu erdiko tarteetan moldatzen dira. Informazio-tratamenduaren arabera albiste-kopurua aldatu egiten da baina beti 12 eta 20 albiste bitartekoa izaten da. Hego Euskal Herrian egiten diren notizi saioetan, hasierako sumarioa (titularrak) beti ageri da, eta sarri (Telenavarra eta Telenorte) amaierakoa "notizia nagusien" euskarazko bertsioa emateko erabiltzen da. Zalan-tzarik gabe, hiru albistegi hauetan aurkezlearen papera nagusia da. Berari dagokio ikusentzule eta enpresa igorlearen arteko harremana mantentzea, betiere "objektibitatez", "zerbitzu publiko bat eskaintzen ari" den profesionalaren autolegitimitate-geruzaz babesturik.

Ikusi dugun bezala, Europako telebista askotan albistegiaren formatu aldetik ematen diren antzekotasunak

agerikoak dira. Beraz, notizi saio bakoitzaren berezitasunak identifikatu ahal izateko bestelako esparruetan mugitu beharra dugula ikusten da. Osagarri formalak eta edukia bateratu egiten diren guneak isolatu eta aztertzea iruditu zaigu biderik aproposena.

Gertaera sozial desberdinen interpretaziorako esparru modura formatuak duen garrantzia birgogoratu ere, gure ustez, formatua eta edukiaren arteko lotura aztertzea oparagoa izan daiteke.

Ildo honetatik, BBC, RAI, RTP, TVE edo ZDFko albistegiaren formatu azalekoena (iraupena, notizi kopurua, zenbat aurkezle eta sumarioa erabili ala ez) oso antzerakoa dela esatea baino interesgarriagoa da jakitea nola antolatzen dituzten notiziak albistegiaren baitan.

Gure inguruko albistegietan, bost bat dira albiste desberdinak egituratzeko (multzoak eginez aurkezteko) ikus daitezkeen moduak. Albistegian erabiltzen den notizi egituraren bidez igorleak "mundua" oratzeko duen ikuspegia erakusten du, horrek dituen inplikazio kognitiboak eta guzti.

-Gaien arabera<sup>1</sup>: albistegian "politika", "ekonomia", "gizartea", "eguraldia", "kirolak" eta abarren bidez sailkatzen dira berriak. Modu honetan notizien aukeraketa, karakterizazioa eta hierarkizazioa eskaintzen dira. Albisteak harreman- eta interpretazio-esparru batean kokaturik eskaintzen dira, gaiaren arabera egiturak interesgune sozial eta politikoak mugatu eta ezagutarazten dituelarik.

---

1. "Politika", "ekonomia" edo "gizartea" bezalako hitzen bidez erredakzioetan erabiltzen den hizkera kopiatu besterik ez dugu egin. Jakin badakigu, esate baterako, politika hitzaren esangura telebista-albistegietan ematen zaiona baino zabalagoa eta kasu batzuetan desberdina dela.

-Lurraldearen araberakoa: notiziak esparru lokalenetik hasi eta mundu-mailakora hel daitezkeen multzoetan antolatuta ageri dira. Informazio-egituraketa honen bidez lurralde-esparru desberdinen definizioa egiten da. Gainera, telebista-kanalak propiotzat duen lurraldea informazioz zehazten eta zabaltzen du.

-Gaurkotasunaren araberakoa: albistegiaren arduradunek aintzakotzat hartzen dituzten notizien sailkatzea gaurkotasunaren arabera eginikoa da. Antolaketa-modu honetan gizartean suertatzen diren gertaerak periodizatu eta tenporalitatearen erreferentziaz zedarriztaturik agertzen dira. Tenporalitate kronologikoaz gain, gaurkotasuna "faktore periodistiko" modura harturik uler daitekeenez, bere atzetik kazetariaren praktika profesionalaren ondorioz sorturiko hierarkizazioa ere erakusten da.

-Atal formalen araberakoa: albistegiaren barruan antolatzen diren sailtxoen bidez ordu erdiko saioari antolaketa formala eskaintzen zaio. Albistegietan, besteak beste, izenburuak (titularrak), bloke nagusia, notizia laburren sorta edota beste hizkuntza batean eginiko amaierako laburpean oinarrituriko egituraketa da zabalduena. Formatu honetan, besteren bat txerta zitekeen, baina ikusi ahal izan dugunez egituraketa irmoa bezain malgutasun gabekoa da.

-Bestelakoen araberakoa: aipatu ditugun lauetatik batena baino gehiagoren zerbait erakusten duena dugu hau. Esate baterako atalka antolaturiko albistegia baina gero gaurkotasunaren araberako faktorea ere txertatzen duena atal bakoitzean.

Bost egituraketa posible hauetatik Saperasek eta Gifreuk atalen araberkotik elementu bakar batzuk besterik ez dituzte jorratu, albistegiaren edukia aztertu ahal izateko beharrezkoa zen jautzia eman gabe. Formatua eta edukiaren arteko zubia eginez gero, albistegia bere osotasunean "presentazio eta interpretazio" esparru bezala azter daiteke, esaten dena eta nola esaten den lotuz.

### **Edukiaren estratuak**

Albistegiaren formatu orokorrean arreta jarritz, gehienbat antzekotasunak azaltzen direnez, beharrezkoa iruditu zaigu bestelako pauso analitikoak ematea. Lerro batzuk gorago proposatu dugunez, albistegiaren barne-egituraketa oso interesgarria da kanalen arteko desberdintasunak ikusi ahal izateko. Halere, aipatu bezala, makroformatu eta mikroformatuen arteko zubia egitea aberatsa izango bazaigu ere, "notizia" mailako ikerketan azalduko zaizkigu kanalen arteko desberdintasunik markatuenak. "Zertaz" eta "nola" esaten diren notiziak da kanalen arteko berezitasunak bilatzeko bide oparoenatarikoa. Zeharbide ugari dituen eduki eta formaren lurraldean gabilza beraz, orain telealbistegiaren edukian zentratuko garelarik gehienbat. Hemen ere, geroxeago ikerketa aplikatuen bidez azalduko dugun bezala, homegeneizazio-elementuak nagusi diren telealbistegiaren munduan ibiliko gara.

Garcia-k eta Perales-ek (1992) "Los informativos de televisión: un modelo más allá de las diferencias" izeneko artikuluan, albistegiaren edukia azterterakoan-estratu desberdinak landu

beharra dagoela adierazten dute “zer eta “nola” esaten denaren arteko azterketak bateratuz.

Hiru dira markatu dituzten ikerketa-estratuak edo -mailak:

-Sakoneko maila: telebistaren gaien agenda eta agente sozialen zerrenda aztertzen dituena. Maila honetan, kanalen arteko antzekotasunak agerian gelditzen dira. Izan ere, telegunkari gehienetan eskaintzen diren gaiak eta sozialki aktiboak izateko “legitimazio informatiboa” eskuratzen dutenak berberak izaten dira. Bi hauen bidez, gai-agenda eta errolen banaketan instituzio politiko-administratibo eta ekonomikoen partehartze handia agerian gelditzen da. Ikerketa kuantitatibo hutsak datu asko eskaintzen ditu sakoneko estratu honetan.

-Erdiko maila: gertaeraren testuingurua eskaintzen duena. Ikerketa-maila honetara heltzen garenerako jakinak dira, dagoeneko, zeintzu diren gai-multzo nagusienak eta agente nabarmenenak. Maila ertainean, ordea, ezaguna den informazio horri bestelako elementuak gehitzen zaizkio: deskribatzen diren ekintzak eta bere arazoak; jasotzaileak; joko-arauak eta ezagutarazten den esparru geopolitikoa, besteak beste. Erdiko mailan kokatzen dira notizien arteko harremanak eta loturak eta kausalitate-erlazioak. Maila honetan ikus daitezke telebista-kanal anitzen arteko desberdintasunak. Kanal bakoitzak bere testuinguratze-lana egiten du, albistegi bakoitzaren sistema axiologikoa erai-kiz. Informazioei emaniko tratamendu berezitua, zentzu eta esangura-proposamen propioak agertzen dira maila honetan. Hemen ere teknika kuantitatiboak erabil badaitezke ere, ikuspegi

kualitatibotik eginiko ikerketak ere oso oparoak dira.

-Azaleko maila: irudia eta ahozko informazioaren arteko harremanak aztertzen ditu, enunziatzaileen agerpena, notiziei emaniko tratamendu formala, eta abar. Maila honetan, kanalen arteko antzekotasunak dira nagusi. Duda barik, diskurtso informatiboaren homogeneizazioa eta estandarizazioa daude antzekotasun hauen oinarrietan: aurkezpen-patroiak, informazioaren tratamendua, kazetaritza-generoak eta euskarri tekniko-espresiboen erabilera parekoa. Sakoneko mailaren kasuan aipatu dugun bezala, hemen ere ugaria-goak dira ikuspegi kuantitatibotik erabilitako eduki-azterketarako teknikak.

Garcia eta Peralesek diotenez, lehen eta hirugarren mailetan albistegien arteko antzekotasunak agertuko zaizkigu nagusiki eta bigarrenen bakarrik somatuko ditugu kanal bakoitzaren desberdintasunak. Ikus dezagun, beraz, bi autore hauek proposaturiko estratuen (palinpsestoaren azterketarako pausoak) aplikazioak nolako emaitzak eskaintzen dituen. Estatu espainiarreko informazio-telebistagintzari buruz eginiko hainbat ikerketa eta hauen emaitzak ekarriko ditugun arren, bereziki, Hego Euskal Herritik emititzen diren notizi saioretan jarriko dugu arreta (Arana, 1995), aipaturiko mailakako azterketa eginez.

### **Betikoari buruzko albistegiak**

Telediarrietan, tokian tokiko eta garaian garaiko desberdintasunak egon arren, jorratzen dituzten gaiak eta ageriarazten dituzten pertsonaiak oso antzekoak izaten dira kanal bata zein bestea izan.

Notizi saioetan aipatzen dituzten berrien gaiari kasu eginez politika-mundukoak dira nagusi. Tematikoki multzo honetan kokatzen dira instituzioei buruzko berriak (gobernua, parlamentua, judikatura, e.a.), alderdi politiko eta sindikatuen zeregina, eta abar. Gainera, biolentzia politikoari buruzko gaia duten albisteen portzentaia gehituz gero, batezbeste % 32 lortzen du politikak Hego Euskal Herriko telebista-albistegietan (kopuru horrek gora egiten du Teleberriren kasuan: % 42,9). Gizartea + Teknologia buruzko berriek ere leku dexentea eskuratzen dute gure inguruko albistegietan. Beste bi multzo hauek ere portzentuarki aipagarriak dira: Ekonomia (% 19,7) eta Kirolak (% 15,6).

1. Taula: Hego Euskal Herriko telealbistegien gaien edukia.<sup>2</sup>

	Politika	Biolentzia politikoa	Gizartea eta Teknologia	
<b>Teleberri</b>	34,3	8,6	20	
<b>Telenavarra</b>	16,7	2,1	29,1	
<b>Telenorte</b>	25	10,9	21,9	
<b>HETIO</b>	24,5	7,5	23,8	
	Ekonomia	Kultura	Kirolak	Eguraldia + Trafikoa
<b>Teleberri</b>	14,2	5,8	14,2	2,9
<b>Telenavarra</b>	18,7	4,2	29,2	-
<b>Telenorte</b>	23,5	10,9	6,2	1,6
<b>HETIO</b>	19,7	7,5	15,6	1,4

Baina, goiko taulan ikus dezakegun bezala politikak gai-modura duen notizien presentzia handia bada ere, ezin dugu ahaztu politikagintzak beste-

lako eragin-modu bat ere baduela albistegietan. Alegia, nahiz eta tematikoki bestelako esparruetan mugitu hainbat eta hainbat albiste, oso sarri “ukitu politikoa” ematen dien elementuren bat aurkezten dute. Adibidez, kulturarekin zerikusia duen berri batean (Guggenheim museoaren eraikuntza-lanak) politika-munduko pertsonaia bat erakusten/aipatzen dutenean (Joseba Arregi). “Ukitu politikoa” izendatu dugun honek “busti” batzuetan eta sarritan “fagozitu” egiten ditu hainbat notizia.

Notiziak bere osotasunean hartuta, politika gai nagusi modura dutenen portzentaia altua dela esan badugu ere, politika-munduak albistegietan agertzeko bestelako bide batzuk ere baditu. Esate baterako notizia bakoitzaren baitan miatuta hitzez esaten dena aztertuz (informazioaren subjektuak, jasotzaileak, aipatzen den gaia/ arazoa...) politikak pisu ikaragarria hartzen du, baina baita irudietan ageri diren elementuen bidez ere (politikariak, banderak, instituzioetako eraikinak, irudi sinbolikoak...).

“Gizarte eta Nazio errepresentazioa telebista-albistegietan” izeneko ikerketan aipatzen dugun joera hau, politikaren superpresentzia erakusten dutenak, eskura izan ditugun bestelako lanetan ere soma daiteke. Izan ere Peñafiel eta Beste-ren (1995) *De Qué Informa La Televisión* izeneko lanean Estatu espainiarreko zazpi kanalen albistegiak landu dituzte eta guztietan politika da gai erabiliena. TVE-1, ETB-2

2. Taula hau Euskal Herriaren errepresentazio informatiboa nolakoa den ikertzen duen lanean oinarritzen da. Teleberriren eduki-azterketa egiterakoan, eta Telenavarra eta Telenorteren datuekin konparatu ahal izateko, Estatu espainiarreko zein nazioarteko berriak alboratu ziren. Beraz, ikuspegi globala egiterakoan bi esparru horietan kokatzen diren berri politikoak ere kontuan hartu beharko lirakeke, politikaren presentzia puztuko litzatekeelarik oraindik ere gehiago.

HETIO laburdurak Hego Euskal Herriko Telebistagintza Informatiboa Orokorrean esangura du, eta bertan batezbeste hiru kateen datuak eskaintzen dira.

eta Canal Plus-en kasuetan hama-  
rretik seitik gora albistek politika dute  
hizpide. Vidal-Beneyto-k 1984an gida-  
tzen zuen ikerketa-taldearen emaitzak  
ere bide beretik doaz orduko TVE-1 te-  
lediararioak ikertzen zutenean. Albisteen  
% 47,6 politika zuten gai modura.

Baina esan dugun bezala, politikaz  
gain, Gizartea + Teknologia, Ekonomia  
eta Kirolak dira gairik erabilienak,  
albistegien izakera eta mamia erabat  
baldintzatuz, han eta hemen. Esparru  
tematikoa da, zalantzarik gabe, kana-  
len elementu homogeneizatzailerako  
bat.

Pauso bat aurrera emanaz, ikus  
dezagun, sakoneko ikerketa-maila  
honetan aipatu dugun beste elemen-  
tua: informazioaren agenteen presen-  
tzia (hitzez eskaintzen den informa-  
zioan subjektu modura ageri diren  
pertsonaiei buruz ari gara jasotzaileei  
buruz baino). Albistegietan aipatuak  
(ahozko informazioa) izaten diren  
pertsonaiak eta irudietan (informazio  
ikonikoa) ikusten ditugunen artean ere  
antzekotasunak daude kanale gehie-  
nen artean.

Ondoko taulan, eta adibide gisa,  
albistegietako ahozko informazioan  
aipatuak izaten diren subjektu nagu-  
sien presentzia ikus daiteke. Sub-  
jektua, noski, kontatzen ari denaren  
agente nagusia da, berak pertsonifika-  
tzen du gertaera eta markatzen du  
ekintzaren nondik norakoa.

2.Taula: Hego Euskal Herriko tele-  
albistegietako ahozko informazioaren  
subjektuen nortasun sozio-politikoa.<sup>3</sup>

	Instituzio politiko- adminis.	Erakunde politikoak	Gizabanako espezialduak
<b>Teleberri</b>	20,6	29,8	28,7
<b>Telenavarra</b>	21,4	30,1	32,8
<b>Telenorte</b>	23	27,8	19,8
<b>HETIO</b>	21,9	29,5	26,9
	Gizartea	Besteak	
<b>Teleberri</b>	16,8	4,1	
<b>Telenavarra</b>	12,2	3,5	
<b>Telenorte</b>	25,4	4	
<b>HETIO</b>	18,3	3,4	

Politika gai-modura eta aginte-  
egituran boterearen "harmailetan" koka  
daitezkeen pertsonaien presentziak  
(subjektu-paperean gainera) itxuratu  
egiten du albistegia. Telediararioen  
edukiak ezagutzen duten forma hartze  
horretan ikerturiko albistegiek homoge-  
neizaziorako joera bera erakusten  
dute. Konparazio modura, Santiagok  
(1990) eginiko ikerketan, ETB-2 eta  
TVE-1eko albistegietan subjektuen  
% 47,7 instituzio politiko-administratibo  
gehi erakunde politikoetakoak dira.

Esan dugun modura, jorratzen ari  
garen sakoneko maila honetan zein  
geroko utzi dugun azalekoan agertzen  
dira albistegiek dituzten amankomu-  
neko elementuak. Guztietan aurkitzen  
diren osagarrien artean, lehen ere  
aipatua bezala, tematikoki zein agen-  
teen kopuruari dagokionez instituzio

3. Bost etiketa hauen barruan sailkatu ditugu definitu ditugun subjektu guztiak. Insituzio politiko-administratiboan baitan administrazio zentral zein autonomikoak eta bere ordezkariak sartu ditugu, baita judikatura, legebiltzarra, etab. ere.

Erakunde politikoak kontsideratu ditugu alderdi politikoak eta sindikatuak.

Gizabanako espezialduak delako sailean kazetariak, berezilarriak eta bestelako pertsonaia koalifikatuak kokatu ditugu.

Azkenik, Gizartea izeneko multzoan pertsonaia solte, jende pila ez-antolatua, talde marjinalak eta abar kontsideratu ditugu.



politiko-administratiboen gainpresentzia dago. Errepresentazio hauen bidez egungo botere-egitura eraikitzen da, elementu desberdinen funtzionalitate soziala markatuz eta, betiere, instituzio politiko-administratiboentzat zentrala gordez. Albistegie-tan nagusi diren instituzio politiko-administratiboen parte-hartze nabarmenaren bidez, harreman sozial gehienen antolaketa proposatzen da eta "joko-arauak" plazaratzen dira. Instituzio hauek lortzen duten nagusitasun eta irmotasunaren beste puntan Gizarte soila (populazioa, gizabanakoak, talde ez-antolatuak...) ageri da. Artikulazio sozial gehiegirik gabe eta egituraketa handi barik, gizarte soila, gertaera eta ekintza modifikatzaile eta negatibizatuen egile modura ageri da. Aginte-egituretatik datozen ekintzen destinatarioa da Gizarte eta, dagokionean, desordena eta estabilitaterik eza dakartzaten gertaeren egilea ere bada.

### **Berrien zergatiak eta ondorioak azaltzen direnean**

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, albistegietan jorratzen diren gaiak eta azaltzen diren pertsonaiekin ezin da kanalen arteko desberdintasun gehiegirik somatu. Izan ere, badirudi notiziarioak egiterakoan guztietan erabiltzen direla lehengai berberatsuak.

Garcia eta Peralesek proposatzen duten ikerketa estratifikatuaren bigarren mailan ordea albistegien arteko desberdintasunak egon badaudela frogatu ahal izango dugu. Hau da, albistegia zertaz den edo nortzuk azaltzen diren baino, maila honetan notiziarioa eta bere baitako albisteak egiterakoan eskaintzen zaizkigun testuinguru eta argumentazioak ezagutuko ditugu.

Albistegiaren formatu orokorrari buruz jardun dugunean esan dugu Europako hainbat telebista kanaletako informatiboetan antzekotasuna dela nagusi. Baina, lehen ere aipatu bezala: albistegiaren barruan notiziak nola egituratzen diren (gaiaren arabera multzoak eginez, kausa-ondorioei kasu eginez, gaurkotasunaren ardatza segituz...) adierazgarria bezain garrantzitsua da. Esate baterako, Bilboko San Frantziskoko bizilagunek beren auzuneko dekadentzia (urbanistikoa, ekonomikoa, soziala, ea.) salatzen dutenean albistearen testuingurua aldatu egingo da "ekonomia" ala "gizarte" sailetan kokatua izaten bada. Notiziaren gaia berbera izanik ere, izan ditzakeen tratamenduaren lehen adierazgarria da tematikoki non kokatua izanen den. Albistegia antolatzeko orduan egituraketa geografikoa erabiltzen bada, hemen ere notiziaren testuingurua aldatu egingo da esparru batean ala bestean kokatua izaten bada. Alegia, Telenortek Estatuko zein nazioarteko berriak sartuko balitu bere albistegian, aldatu egingo litzatekeen erabat Nafarroa edo Iparraldeari buruzko berrien tratamendua.

Beraz, albistegiaren egituraketa (tematikoa, geografikoa, gaurkotasunaren arabera, etab..) notizia soilei testuinguru baten marka ezartzeko lehen pausoa da, baina ez bakarra. Berriak makrogertaera interpretatiboetan integratzea (informazio-argumentazio kateak sortuz, antzekotasunaren arabera, etab.); zergatiak eta ondorioekin janztea; kazetariaren/aurkezlearen parte-hartze baloratiboaren bidez; eta, bestelako parametro koalitatibo erreferentzialak erabiliz sortzen da albistearen testuinguru berezitua, desberdina kanal bakoitzean.

Garciaren eta Peralesen sailkapenari jarraiki, erdiko maila honetan, eta albistegien arteko desberdintasunak non aurkitzen diren azaltzerakoan, bigarren parametroari ekingo diogu orain: testuinguruaren eraiketa.

Lehenago ere esan ditugunak berriro harira ekarriz, albistegiaren egituraketa orokorrak eta notizia batek aurretik eta atzetik dituen beste batzuen bidez ere aurkituko du eraikia bere ingurune interpretatibo berezia. Baina, berri soilaren kasuan badira beste elementu batzuk ebaluazio, azalpen eta interpretaziorako osagarri gisa funtzionatuko dutenak. Gure ikerketan, Vidal-Beneytoren (ZZ.AA, 1984) zuzendaritzapean eginiko metodologiaren aplikazioa erabiliz, notizia bakoitzaren ahozko edukia aztertzerakoan esaten denaren zergatiak eta ondorioak ote dituen maitu dugu. Albistean hitzez esaten dena (jorratzen den gaia/arazoa edozelakoa izanik ere) non duen jatorria edo zelako ondorioak dituen ikertzea interesgarria da. Baina, praktikan ikusi ahal izan dugunez: notizien eraikuntza argumentatiboa egiterakoan zergatiak eta ondorioak ez dira oso sarri eskainiak izaten.

Ondoko taulan ikusiko dugunez, Hego Euskal Herriko albistegietan notiziatua izaten den gertaeraren “non-dik norakoak” oso gutxitan azaltzen zaizkigu.

3. Taula: Hego Euskal Herriko telealbistegietako ahozko informazioaren gaiari buruzko zergatien (motibazioa) presentzia.

MOTIBAZIOA	Teleberri	Telenavarra
Bai	14,7	12
Ez	85,3	88
MOTIBAZIOA	Telenorte	HETIO
Bai	15,4	14
Ez	84,6	86

Baina, albistean kontaktzen denari buruzko kausalitatea eskaintzen ez den bezala, bere ondorioena are eta gutxiagotan azaltzen zaigu.

4. Taula: Hego Euskal Herriko telealbistegietako ahozko informazioaren gaiari buruzko ondorioen (efektua) presentzia.

ONDORIOA	Teleberri	Telenavarra
Bai	6,4	5,5
Ez	93,6	94,5
ONDORIOA	Telenorte	HETIO
Bai	5,4	5,7
Ez	94,6	94,3

Ikusia bezala notizietan eskaintzen den ahozko informazioan subjektua, ekintza eta batzuetan jasotzailea nor den esateaz gain, ez dirudi testuingurua osatzeko askozaz ere elementu gehiago eskaintzen denik. Albisteak isolaturik bezala aurkezten zaizkigu jatorri eta ondoriorik gabe.

Baina, sakonago begiratzuz gero, informazioaren testuinguratze bat egon badagoela konproba daiteke, maila diskurtsiboan. Albistegien arteko desberdintasunak kazetarien/aurkezlearen esplizitazio eta enfatizazioen bidez egiten dira, baina, bereziki, koalitatiboki oso pisutsuak diren beste parametro diskurtsiboen bidez, berehalaxe azalduko dugun bezala.

Kazetariak albistegietan duen presentzia nagusiaren bidez, igorlea eta ikusleen arteko lotura egiteaz gain, lehenaren testuinguru ebaluatibo eta interpretatiboa zabalduko du. Aktualitatearen “transmititzaile hutsa” izatearen argumentazioaz jantzirik, aurkezleak albisteen azalpen baloratzaileak eskaintzeko joera gero eta nabarmenagoa somatzen da. Lehen, albistetan enfatizatzeke modu neutroagoak

erabiltzen baziren ere (gaurkotasuna edo pertsonaiaren kargua aipatuz edota titularretan aterata eta notiziari luzera gehiagoz emanaz) enfatizazio zuzen eta zehatzak erabiltzeko joera zabaldu da gainetik: berria ona/txarra modura kalifikatuz, iritzia esplizitatuz, adjektibazioa, eta abarren bidez.

Baina, zalantzarik gabe, albiste bakoitza egiterakoan erabiltzen diren elementu diskurtsiboen presentzia eta ordenaketaren bidez soma daitezke hobekien kanalen arteko berezitasunak. Notizia gorpuzterakoan aipatzen diren zehaztasunak, elementu argumentalak, erreferentzialak eta konparatiboen bidez jaso daiteke igorlearen sistema axiologikoaren berri.

*Gizarte eta Nazio errepresentazioa telebista-albistegietan. Euskal Herria Teleberri, Telenavarra eta Telenorte albistegietan* izeneko ikerketan ikusi ahal izan dugunez, Hego Euskal Herrirako emititzen diren albistegietan aipatzen diren gaiak edota ateratzen dituzten pertsonaietan baino eskaintzen den esparru diskurtsibo orokorrean agertzen dira desberdintasunak. Gure kasuan, euskal gizarte eta nazioa definitzerakoan ematen diren berezitasunak ikertzea izan denez, parametro koalitatibo zehatz batzuk markatu genituen. Telebista-kanal bakoitzak erabiltzen duen testuinguru diskurtsiboaren bidez, besteak beste, honako hauek nola ageri ziren aztertu dugu:

– Lurraldetasuna: lurraldetasun geografiko eta politiko-administratiboaren arteko harremanak; esplizitazio geopolitikoaren erabilera (“Pais Vasco”, “Euskadi”, “Euskal Herria”, “España”...); notizigarritasun-esparrua; medioa geografikoki non kokatzen den (, “la autovía que une Pamplona con San Sebastián”, “La situación de nuestros

cielos...”); erreferentzialtasun- eta konparazio-elementuak non/norekin bilatzen dituen (“...en el resto de España...”, “mejores resultados de nuestros equipos”, “más parecidos a los europeos”) etab..

– Nortasun kolektiboa: euskalduntasunaren definiziorako elementuak (izaera indibiduala eta kolektiboa, ohiturak, nekazal tradizioa...); gehien-goia eta marjinaturiko taldeen arteko erlazioak (ijitoak, prostitutak...), etab..

– Izaera kulturala: euskal kultura *versus* kanpokoak; euskararen garrantzia, ohitura zaharrak, hiria *versus* baserria, etab..

– Egituraketa politiko-instituzionala: instituzio politiko-administratiboak eta herritar soilen arteko harremana (“...las instituciones navarras como representantes de la voluntad popular”, “...con métodos antidemocráticos...pretenden coaccionar la voluntad popular”); instituzioen legitimazio-moduak; gizabana-koa eta kolektibitatea, ea.

– Kontsentsua eta gatazka: bi parametro kontrajarri hauen bidez gizartearen baitan dauden indarren arteko gora-beherak errepresentatzen dira. Telebista-kanal bakoitzak bere modura zirriborratzen du gizartearen baitan bi indar horien presentzia.

Parametro koalitatibo hauen bidez (ikerketaren helburuen arabera definitu edo moldatu beharrekoak, bestalde) telebista-kanale bakoitzak bere planteiamenduen barruan kokatzen ditu gertaera sozialak testuinguru bat eskainiz. Modu honetara kontakizun informatiboa eraikitzeaz gain zentzua eta interpretaziorako elementuak zabaltzen dira.

## Hitzez eta irudiz notiziak gorpuztuz

Albistegien arteko desberdintasunak markatzerakoan aurkezlea, dekoratua, kareta edota sintonia aipatzen badira ere, esanikoak oso azalekoak diren berezitasunak markatzen dituzte. *Marka bereizgarriak* izaten diren osagarri horiek, sakonagoko homogenotasuna disimulatu besterik ez dute egiten.

Notizi saioen arteko desberdintasunak aztertzerakoan, hirugarren estratuan, azalekoena deitu dugunean, ez da zeresan gehiegirik aurkitzen. Guztietan, aurkezlea/kazetaria ageri zaigu enunziatzaile nagusi modura berari eskaintzen zaiolarik leku/denbora gehien: notiziak erakutsi ala entzuteko baino bere bertsioa eskaintzeko.

Teoriak kontrakoa esaten badu ere, irudia informazio berbalaren osagarri hutsa baino ez da albistegietan. Hitzez esaten denak markatzen du notizia bakoitzaren ardatza gero irudiz jantzi-ko dena. Ahozko informazioak du ikonikoak baino zehaztasun eta indar gehiago, aberatsagoa da, zalantzarik gabe. Garciak eta Peralesek dioskunez, "eraikitako naturalismoan" mugitzen gara zeinean irudiek ez duten gertaera edo bere osagarri funtsezkoenak erakusten baizik eta elementu lagungarriak, akontentzialitate faltsu bat sortuz. Oso sarri, albistegietan ikusten ditugunak ekintza sinboliko eta erritualak dira, eta akzio performatiboak baino diskurtsiboak izaten dira. Beste hitz batzuetan esanik, notiziatua izan den gertaeraren irudiak (automobil-istripua) baino garabiak eramaten duen apurtutako automobila eta zaurituak laguntzera joan denaren deklarazioak erakusten dizkigute, honek bai

erreportariak istripua izan den lekutik *statement*<sup>4</sup> bat eskaintzen digula.

Azaleko maila honetan, non albistegi gehienak pareka daitezkeen, diskurtso ikoniko-berbala oso antzerakoa da, aurkezpen eta tratamendu informatiboaren patroiak estandarizatu egin dira, genero periodistikoak modu bereztsuan tratatzen dira eta oso era pobreak lantzen dira telebistak eskaintzen dituen baliabide tekniko-espresiboak.

## Konklusio gisa

Igorleak pantailaratzen dituen mezuak direnez albistegiak, bere osakeran eta aurkezteko moduan egilearen markak daramatzate. Hala ere, gaur egungo albistegietan, desberdintasunak baino gehiago antzekotasunak dira nagusi.

Formatu aldetik, gure inguruko albistegi gehienak oso parametro berdintsuetan mugitzen dira. Mundua eta gure herria ulertzeko eskaintzen dituzten ikuspegia, formalki, homogenotuzatu egin dute. Errealitatearen ispilu omen dena telebistan notizi saioetan erabiltzen duten aurkezpen-eredua antzekotasunez josita dator.

Formatuan parekotasunak nagusitu diren moduan, edukian ere eskaintzen dizkiguten patroiak zabaldu egin dira kanal guztietara. Albistegietan aipatzen dituzten notizien gaiak eta erakusten dizkiguten pertsonaia tipologiak badirudi kanal batetik bestera ibiltzen direla. Berdinak edota antzerakoak dira guztietan. Kasu gehienetan botere-egituraren goiko postuetan kokatzen diren pertsonaiak dira. Ekintza

4. Kamara aurrean kazetariak eginiko azalpenari ematen zaio izen hori.

sinboliko eta erritualak egiten ikusten ditugularik, egitura sozialaren patroia ezartzen digute. Patroi horren emaitzaz, sozialki aktiboak izateko legitimitatea dutenen kopurua oso mugatua da, horien artean biztanleria soila eta herritar arruntek lekurik aurkitzen ez dutelarik. Instituzio politiko-administratibo eta erakunde politikoen ordezkariak dira pantailan entzun eta ikusten ditugunak, beraiei dagokielarik iharduera sozialaren pertsonifikazioa izatea. Beraiegiengandik datozen ekin-tzak jasotzea da herritarren aukera/zeregin bakarra. Botere-egituraren barruan kokatzen diren pertsonaia hauen super-presentziak baldintzatu egiten ditu albistegietan jorratzen diren gaiak. Oso sarri, notizi saioek politika dute hizpide, albistearen gaia bestelakoa izanik ere elementu politikoak aurkezten dituelarik askotan.

Edukian beraz, lehen maila horretan antzerakoak dira telebista-kanal desberdinetako albistegiak. Beste estratu batean, non gaiak, pertsonaiak, ekin-tzak eta destinatarioak testuinguratuak izaten diren, ageri dira kanale bakoitzaren ezberdintasunak. Diskurtso informatiboaren maila honetan, telebista-kanalak propioa duen testuinguru territoriala, politiko-administratiboa, ideologikoa, komertziala edo dena delakoa erakusten du. Hemen ageri dira notizi saioak beretzat hartu duen sistema axiologiko eta interpretatiboa. Estratu honetan, notiziaren zergatia eta ondorioak eskaintzeaz gain, uler-

tua izateko elementuak erakutsiko dituzte. Hemen agertuko dira medioaren lerrotze territoriala, erreferentzialtasun sozio-politikoa, inbrikazio ideologikoa eta abar.

Gertaera soziala notizia bilakatua izateko bidean, ezagutuko duen beste maila bat, azalekoena, informazio berbala eta ikonikoaren lotura egingo duena da. Hemen, telebidezko diskurtsoaren estandarizazioa nagusitu da. Eskura diren irudien bidez jantzen den informazio berbalak, ikonizitateak eskaintzen dituen aukerak zein gutxi erabiltzen diren agerian lagatzen du.

Beraz, telebista-albistegiak formalki homogenotu egin dira, kanalen arteko berezitasunak edukinaren maila batzuetan aurki daitezkeelarik. Kanal bakoitzaren notizi saioak dituen ñabardurak ezagutu guran gainera, notizien gaiak eta ageri diren pertsonaiei arreta jartzea baino interesgarriagoa da albistearen osakeran erabiltzen diren parametro diskurtsiboi begiratzea. Informazioaren testuingurua egiten denean igorleak ingurune sozio-politikoa, territoriala, ideologikoa eta informatiboa nola ulertarazten dituen agerian jartzen du. Maila honetan kokatzen dira telebista-albistegien arteko desberdintasunak: gertaerak notiziatzerakoan gertaera-kateetan kokatuz eta jatorri eta ondorio batzuk itsatsiz, alegia, esparru interpretatiboa eskainiz.

## Bibliografia

- Altheide, D.L. eta Snow, R.P., (1991): *Mediaworlds post journalism*, Mouton de Gruyter, New York.
- Arana, E., (1995): *Gizarte eta Nazio errepresentazioa telebista-albistegietan. Euskal Herria Teleberri, Telenavarra eta Telenorte albistegietan.*, EHUko Argitarapen Zerbitzua, Leioa.
- Epstein, E., (1974): *News From Nowhere: Television and the News.*, Random House, New York.
- Garcia, B. eta Perales, A., (1992): "Los informativos de televisión: un modelo más allá de las diferencias", *REIS*, 57, 137-147.
- Golding, P. eta Elliot, P., (1979): *Making the news.*, Longman, Londres.
- Mancini, P., (1985): *Videopolitica. Telegiornali in Italia e in USA*, ERI, Tori.
- Peñafiel, C. eta Beste, (1995): *De Qué Informa La Televisión.*, Leioa, EHU-ko Kazetaritza Saila, (argitaratu gabea).
- Santiago, S., (1990): *Teleberri-Telediario 2. Analisis comparativo*. Deustua, Deustuko Unibertsitatea, (argitaratu gabea).
- Saperas, E. eta Grifeu, J., (1995): "El formato de la información en las televisiones europeas. Elementos comunes y peculiaridades significativas". *Telos*, 42, 35-47.
- Schlesinger, P., (1978): *Putting "Reality" together: BBC News.*, Constable, Londres.
- Tuchman, G., (1978): *Making news: A study in the construction of reality.*, Free Press, New York.
- Zenbait autore, (1984): *TV NEWS and the Production of Reality.*, International Sociological Association (ISA)-Committee on Communication, Knowledge and Culture, Sevilla, (argitaratu gabea).

# **Heziketa-praxia, sexu-desberdintasunaren uste-sistemak eta genero-identitatea: haurtzaroan izandako opariek uste-sisteman eta genero-identitatean jokatzeko errolari buruzko ikerketaren enpirikoa**

**J. Valencia; L. Gil de Montes; I. Arruti; A. Carbonell.**  
EHUko irakasleak

Haurtzaroan pertsona batek izandako opariek bere sexu desberdintasunarekiko uste-sisteman eta genero-identitatean jokatzeko errolari buruzko ikerketa bat aurkezten dugu artikulu honetan. Ikerketan, "Azalpen soziala", "Balio eskala", "Jarrera eskala" eta "Bem-en Genero-Identitatea eskala" kontzeptuak neurtu genituen, BBBko 120 ikasleko lagin bat erabiliz, eta emaitzek argi erakusten digute nola txikitzen izandako opari maskulino versus femenino edo neutroek eragina duten gazteek dituzten sexu desberdintasunarekiko uste-sisteman eta genero-identitatean.

The present study investigates the effect that toys received during the process of socialization play on the belief systems about sex differences and on gender identity. A sample of 120 subjects of secondary school and measures of social explanations, value differences, attitudes towards sex roles and Bem's gender identity inventory were used. Results show that masculin versus feminin and neutral toys received during childhood have an effect on belief systems about sex differences and on gender identity.

## Sarrera

Genero-desberdintasunaren eraldaketan eta, zehatzago, "generoaren uste-sisteman" praxi sozialek duten eragina ikertzea du helburu lan honek.

Azken 25 urteetako generoaren ikasketak hiru aldi izan dituela esan daiteke: sexu desberdintasunen ikuspegia, sexu-errolaren ikuspegia eta generoaren uste-sistemaren ikuspegia (Ferre & Hess, 1987). Azken ikuspegi honen arabera, harreman, portaera eta kognizio sozialeko printzipio antolatzaileak hartzen da generoa. Hain zuzen ere, genero-sistemaren funtsezko elementuetariko bat gizonezko eta emakumezkoen berdintasunaren aurkako tabua da, "tabu honek sexuen arteko desberdintasun biologikoak areagotzen baititu, ondorioz generoa sortzen duelarik" (Rubin, 1975). Era honetan, generoaren uste-sistema gizonezko eta emakumezkoen inguruko uste eta iritzi-saila izango litzateke. Hain zuzen ere, uste-sistema honek bere barnean hartuko litzuke gizonezko eta emakumezkoen inguruko estereotipoak, errol egokien inguruko jarrerak eta gizabanakoen inguruko jarrerak. Beraz, genero uste-sistemak elementu diskribatzaileak eta preskribatzaileak izango litzuke (Ferre & Kite, 1987). Uste-sistema hauek eta "herri-ereduak" (Holland & Davidson, 1983) antzekoak lirateke; azken finean "gestalt kognitiboa" litzateke, zeinak gizabanakoen inferentzia-burutzapena, informazio-bilaketa eta munduaren alderdi jakin batekiko ekintza ere gidatuko bailituzke (Holland & Davidson, 1983). Beraz, uste-sistema hauek funtsezkoak dira gizabanakoen genero-definizioan.

Uste-sistemen sortze-, aldatze- eta birrekoizte-prozesuan, sozializazio prozesuan zehar ematen diren praxi

sozialak funtsezkoak dira. Familia-errolen banakuntzan aldaketa nabariak gertatu dira azken urteetan bai praxi sozialetan bai eta uste-sistemetan ere (EEBBetan Mason, Czajka & Arber, 1976; Australian Rowland, 1977).

Praxi sozial eta hautemate sozial hauek, halere, ez dira "hutsune sozialetan" gertatzen. Hain zuzen ere, frogatu izan da haurren genero-hautemateak aldatu egiten direla testuinguru sozia-laren, adinaren, klase sozial eta abarren arabera (Zammuner, 1980; 1981). Hala ere, aurrekoaz gain frogatu izan da haurren sexu-errolaren egokitasunaren arau-barneratze prozesuan zerikusi handia izan dutela haurtzaroan izaniko jostailu, jokoek eta jolas-iharduerek (Brown & Tolar, 1957; Perloff, 1977; Zammuner, 1987).

orokorrean, esan daiteke, azken urteetan (ikerikuntza desberdinek) ekarpen berriak planteatu dituztela genero-harremani buruzko uste eta haurtzaroan izandako praxiei buruzko elkarren arteko erlazioaren inguruan, ekarpen berriak planteatu dituztelarik azken urteetan (Antill, 1987; Deaux & Kite, 1987; Hess & Ferre, 1987; Shaver & Hendrick, 1987; Zammuner, 1987).

Antillek (1987) berriki sexu desberdintasunaren eraldaketarako eredia planteatu izan du. Eredu honek ondokoa adierazten du: 1) Gurasoen generoaren uste-sistemak euren oinarritzko ezaugarri, esperientzia eta nortasun-ezaugarrietatik eratortzen direla. 2) Gainera, haien uste, balio, jarrera eta nortasunak eragina dutela haurrak hezten dituzten moduetan. 3) Azkenik, haurren generoaren uste-sistemek (generoarekiko usteak, jarrerak, balioak, etab.) alde batetik, haurtzaroan izaniko praxi sozialak, eta bestetik gurasoen uste eta balioak isladatzen dituztela.



Antillek (1987) proposaturiko eredu-  
duan oinarriturik, ikerketa honetan,  
batetikgazeengan jadanik ezarririk  
dauden uste-sistemak eta balioak, eta  
bestetik sexu-desberdintasunei buruz-  
ko jarrerak eta genero-identifikatzeari  
buruzkoak, bi aldagai-multzo hauek,  
sozializazio prozesuan zehar buruturi-  
ko eguneroko praxiekin erlazionatu  
nahi ditugu. Era berean, praxi hauek  
testuinguru zabalagoetan gertatzen  
direla pentsatzen dugu, joera kolektibo  
hedatuagoetatik eratoritzen direla,  
famili-egitura nuklear edo tradiziona-  
letatik hain zuzen ere.

Hemen aurkezten den ikerketak  
helburu ilustratiboa du, ikerkuntza zaba-  
lago batetik eratoritzen da; sozializazio-  
-praxiak neurtzeko jostailu tipiko  
maskulino, femenino edo neutroekiko  
eskalak erabiliko ditugu bakarrik.

### **Hipotesiak**

Ondoren, ikerketa honen hiru  
hipotesi nagusiak azalduko ditugu,  
frogapean jarriko ditugarik.

1. Praxi sozialak testuinguru sozia-  
len arabera (familia-motaren arabera  
hain zuzen ere) aldatzen dira.

2. Bai generoen arteko desberdin-  
tasunei buruzko uste-sistemetan bai  
eta generoen arteko balio-sistemetan  
ere desberdintasunak aurkituko ditugu,  
sozializazioan zehar izandako hezike-  
ta-praxien arabera.

3. Generoen arteko desberdintasu-  
nei buruzko jarrera eta genero-eske-  
matizazioetan desberdintasunak ager-  
tuko dira, sozializazioan zehar izaniko  
heziketa-praxien arabera.

## **2. Metodologia**

### **Lagina eta Diseinua**

Lagina BBBko 120 pertsonaz osatuta  
zegoen; adinaren batezbestekoa 17,82  
urtekoa izan zen eta desbiderapen  
estandarra 0,76koa. Adinen arteko  
heina 17 eta 20 urte bitartekoa izan  
zen. Subjektuen % 50 (60 lagun) gi-  
zonezkoa zen eta gainerakoan (beste  
60 lagun) emakumezkoa.

Ikerketaren diseinua koerlazionatua  
izan zen eta pasazioa subjektuen  
eskola-ordutan burutu zen.

### **Materialak**

#### *Usteak eta balioak*

Sexuen arteko desberdintasunei  
buruzko usteei dagokienez, ondoko 4  
galderei erantzuteko eskatu zitzaien  
subjektuei (Antill, 1987), 7 puntuko  
Likert eskalaren arabera (1=Oso  
Desados, 7= Oso Ados): Zergatik  
gertatzen dira sexuen arteko des-  
berdintasunak? 1) Euren arteko egitu-  
ra genetiko eta biologikoak desberdi-  
nak direlako; 2) Neskek eta mutilek  
garapen desberdina dutelako, eta  
garapen hormonal desberdina ere bai;  
3) Heziketa eta sozializazio-praxi des-  
berdinen pean ari direlako; 4) Arrazoi  
historiko eta sozialak direla medio.  
Item hauek faktore-analisan sarturik  
2 faktore agertu ziren nagusi, elkarren  
artean bariantzaren % 75a azaltzen  
zutelarik. Lehenengoa, azalpen biolo-  
giko eta hormonelez definiturik zegoen  
eta bariantzaren % 42a azaltzen zuen.  
Bigarrena azalpen historiko eta sociali-  
zazioarenaz definiturik zegoen, zeinak  
bariantzaren% 33,6a azaldu zuen.

Balioei dagokienez, ondoko balioak ordenatzeko eskatu zitzairen subjektuei, *eurentzat, euren bizitzarako gida-printzipio gisa* (Rokeach, 1973). Balioak ondokoak izan ziren: 1) Bizitza kitzikagarria, Bakea Munduan, Berdintasuna, Famili Segurtasuna, Askatasuna, Zoriontasuna, Maitasun heldua, Nazio-Segurtasuna, Plazerra, Salbazioa, Norberarekiko Errespetua, Onespen soziala, Benetako Adiskidetasuna.

Galde-sortaren bukaeran, aurreko balio berberak antolatzeke eskatu zitzairen subjektuei, beste sexukoentzat, *haien bizitzarako gida-printzipio gisa*.

Spearman-en Ro estatistikoa erabili zen Balio-sistemen arteko distantzia-indizea egokitzeko.

#### *Hurtzaroen buruturiko praxiak*

Zammuneren (1987) ikerlanetan oinarriturik, subjektuei bi iharduera-motaz galdetu zitzairen. Alde batetik, hurtzaroen izandako oparietaz eta bestetik hurtzaroen buruturiko iharduerez.

Ikerketa honetarako lehenak baka-rik erabiliko ditugu.

Jostailuei dagokienez ondokoa eskatu zitzairen subjektuei: zein neurritan jaso zituzten opariak hurtzaroen. Bai ala ez erantzun behar izan zuten, ondoko 13 opariak agertu zirelarik: 5 opari tipikoki maskulinoak (futbol-baloia, lasterketa-autoa, trena, hegazkina, eraikuntzarako brik-ak, gerlariak, pistolak, eskopetak, ezpatak), 5 opari tipikoki femeninoak (panpina eta osagarriak, saltorako soka, goma, makilajeak, lepokoak, sukaldeak, garbiketarako tresnak) eta 3 opari tipikoki neutroak (musika-tresnak, puzzleak, liburuak, ipuinak).

Aldagaiak faktore-analisan sartu ziren eta 3 faktore sortu zituzten, % 59ko bariantza azaldu zutelarik. Lehen faktorea opari femeninoen ekarpenez osatuta zegoen, positiboki zamatua, eta opari maskulinoen ekarpenez, negatiboki zamatua. Lehen faktore honek % 40ko bariantza azaldu zuen. Bigarren faktorea opari neutroen ekarpenez osatuta zegoen, eta % 11,3ko bariantza azaldu zuen. Azkenik, hirugarren faktorea ere agertu zen, eta oso albokoa izanik liburu edo ipuinen itemez osatuta zegoen, % 8,6ko bariantza azalduz.

#### *Jarrera eta genero-identifikazioaren aldagaiak*

Hemen bilduko ditugu uste-sistematik eratorzen diren aldagaiak, hain zuzen ere sexu-desberdintasunei buruzko jarrerak (Thorton et al. 1983), eta sexu-errolei buruzko usteen eskala (Bem 1981).

Generoen arteko desberdintasunei buruzko jarrerari dagokienez, Thorton et Al.en (1983) eskala erabili zen, zeina, 6 item izateaz gain, Likert-motakoa zen, 7 puntukoa (1 = Oso Desados, 7 = Oso Ados). Faktore-analisiak faktore bakarra sortu zuen, zeinak % 45eko bariantza azaltzen zuen.

Genero-identifikazio neurbideari dagokionez 40 itemeko eskala erabili zen (Bem, 1981) eta itemak 5 puntukoak izan ziren (1 = Oso Desados, 5 = Oso Ados). Faktore-analisiak bi faktore sortu zituen, % 45eko bariantza azaltzen zutenak. Lehen faktorea item maskulinoez eraturik zegoen eta bigarrena item femeninoez. Eskematizazio-teoriari jarraikiz, Bem-en arabera lau talde eratu genituen: a) *A-Eskematizatuak*: uste maskulinoetan eta femeninoetan baxu puntuatzen

zuten ikasleak; b) *Eskematizatu maskulinoak*: uste maskulinoetan altu eta femeninoetan baxu puntuatzen zutenak; c) *Eskematizatu femeninoak*: uste maskulinoetan baxu eta femeninoetan altu puntuatzen zutenak; eta d) *Androginoak*: uste maskulinoetan eta femeninoetan altu puntuatzen zutenak. Sexua bider Genero-identitate-taularen gurutzaketa egiterakoan ikusi zen ( $p < 0,001$ ) ikasleen sexua era desberdinetan banatzen zela lau kategoria horietan, alegia, emakumeek hartzen zuten lehen kategoria Eskematizatu femeninoa zen (% 42), bigarrena androginoa (% 22), hirugarrena eskematizatu-gabea (% 20) eta azkena eskematizatu maskulinoa (% 14). Gizonezkoen ekarpena desberdina zen, hartzen zuten lehen kategoria eskematizatu maskulinoarena (% 34) zen, bigarrena androginoa (% 30), hirugarrena eskematizatu-gabea (% 26) eta azkena eskematizatu femeninoa (% 10).

### Background aldagaiak

Antilli (1987) jarraituz, euren familia-motaz galdetu zitzaizen subjektuei. Eta honela operazionalizatu zen, alegia, 1 = Familia Nuklearra (2 edo anai-arreba gutxiago) eta 2 = Familia Tradizionala (3 anai-arreba edo gehiago).


Era berean, Backgroundeko neurriak jarri ziren galde-sortan, subjektuen eta bere gurasoen ikasketa-maila, lanbidea eta erlijioari buruzkoak.

## 3. Emaitzak

### 3.1. Familia-mota eta Haurtzaropraxiak

Gure planteamenduaren arabera, Familia-mota zen gakoa, ingurune honetan haurtzaroko praxi jakinak ger-

tatzen zirelarik. Hipotesia frogatzeko asmoz, Aldagai Anitzeko Bariantzak-Analisia (Manova analisia) burutu genuen; bertan aldagai aske gisa Familia-mota hartzen genuen eta menpeko aldagai gisa, haurtzaroan izaniko heziketa-praxiari zegozkionak; hau da, opari maskulino eta femeninoen eta opari neutroen dimentsioetatik sorturiko faktore-puntuazioak erabili genituen.



Lehenengo aldagai askearen, hau da, Familia-motaren efektu orokorra aurkitu genuen, haurtzaroan izandako opariei dagokienez (Pillais Value,  $F_{(1,118)} = 6,20$ ;  $p < 0,000$ ). Familia-mota Nuklearrak opari femeninoen indize areagoa eman zuen ( $\bar{X}=0,048$ ) Familia Tradizionalak baino ( $\bar{X}= -0,063$ ), eta Familia-mota Nuklearrak opari neutro indize areagoa ( $\bar{X}=0,107$ ) Familia-mota Tradizionalak baino ( $\bar{X}=-0,140$ ).


Oro har, esan daiteke, Familia Nuklearrak opari ez-estereotipatu erabilpena sustatzen duela, hau da, opari femenino eta opari neutro gehiago eskaintzen dituela eta Familia Tradizionalak opari estereotipatu gehiago

eta opari neutro gutxiago eskaintzen dituela.

### 3.2. Heziketa-praxiak eta Uste-Sistemak

Hautzaroen jasotako praxiek uste-sistemetan eragina dutela planteatzen genuen. Harreman hori frogatzeko Aldagai Anitzeko Bariantza Analisi desberdinak burutu genituen. Bertan aldagai aske gisa, lehen analisian, opari femenino - opari maskulino indizea erabili genuen (1 = opari maskulino gahiago femenino baino; 2 = opari femenino gehiago opari maskulino baino) eta menpeko aldagai gisa ondoko aldagaiak erabili genituen: Azalpen sozial Biologiko-Hormonala; Azalpen sozial Historiko eta Sozializaziokoa; sexu-desberdintasunarekiko jarrerak; eta genero-identitate maskulino eta femeninoari buruzko usteak. Bigarren analisian, menpeko aldagaiak berberak izan ziren baina aldagai askea aldatu egin zen: opari neutroaren indizea erabili genuen (1= opari neutrorik ez; 2 = opari neutroak bai).

Lehen analisiari buruzko emaitzak ondokoak izan ziren:




Oro har, opari maskulino eta femeninoek eragina dute uste-sistemetan, efektua adieragarria izanik (Pillais Value,  $F_{(1,118)} < 2,380$ ;  $p < 0,001$ ).

Lehenik ondokoa aurkitzen du-gu, alegia, opari maskulinoen erabilpen areagotuak zerikusia duela azalpen biologikoen azpimarratze handiagoarekin. Opari femeninoen erabilpen handiagoak, aldiz, genero-desberdintasunei buruzko azalpen biologikoak gutxiago azpimarratzen ditu. Bigarrenik, azalpen sozio-historikoei dagokienez alderantzizkoa aurkitzen dugu. Hain zuzen ere, opari maskulinoek, genero-desberdintasunei dagokienez, azalpen biologiko, genetiko eta hormonalak gehiago sustatzen dituzte opari femeninoek baino, eta azalpen sozio-historikoak eta sozializazioari dagozkionak gutxiago.

Bestalde, opari maskulinoen erabilpen areagotuak generoen arteko azken balioen arteko desberdintasun handiagoa sustatzen du, opari femeninoen erabilpenak desberdintasun hori urritzen duen bitartean.

Gainera, opari maskulinoen erabilpenak generoen arteko desberdintasunei buruzko jarrera negatiboagoak sustatzen ditu, opari femeninoen erabilpenak generoen arteko desberdintasunei buruzko jarrera liberalagoak sustatzen dituen bitartean.

Azkenik, opari maskulinoen maiztasun handiagoak, genero maskulinoaren bereizgarrii buruzko usteak sustatzen ditu, opari femeninoen maiztasun handiagoak uste horiek urritzen dituen bitartean. Alderantzizkoa gertatzen da genero femeninoaren bereizgarrii buruzko usteen kasuan.



Oro har, opari neutroen efektu orokorra uste-sistemetan aurkitzen dugu (Pillais Value,  $F_{(1,118)} = 3,20$ ;  $p < 0,001$ ), hau da opari neutroek eragina dute gazteek dituzten uste-sistemetan.

Lehenik ondokoa aurkitzen dugu, alegia, opari neutroen erabilpen handiagoak generoen arteko desberdintasunei buruzko azalpen biologiko-genetikoetan azpimarratze urriagoa egiten duela eta azpimarratze gehiago azalpen sozio-historikoetan eta sozializazioetan; alderantzizkoa gertatzen da opari neutroak erabiltzen ez dituztenekin. Hain zuzen ere, opari neutroek urriago sustatzen dituzte, generoen arteko desberdintasunei dagokienez, azalpen biologiko, genetiko eta hormonalak, eta gehiago azpimarratzen du azalpen sozio-historiko eta sozializazioaren eragineko azalpenean.

Bestalde, opari neutroen erabilpen handiagoak generoen arteko azken balioen arteko desberdintasunaren murrizketa sustatzen du, eta opari neutroen erabilpen urriak balio horien arteko desberdintasuna areagotzea sustatzen du.

Gainera, opari neutroen erabilpenak generoen arteko desberdintasunei buruzko jarrera liberalagoen agerpena sustatzen du, eta opari neutroen erabilpen urriagoak generoen arteko desberdintasunei buruzko jarrera kontserbatzaileagoen agerpena eta finkapena sustatzen du.

Azkenik, opari neutroen maiztasun handiagoak, generoko usteen bereizgarrii dagokienez, genero maskulino eta femeninoko usteak, biak, sustatzen ditu, nahiz eta elkarren arteko desberdintasuna adierazgarria ez izan.

### 3.3. Heziketa-praxiak eta Genero-identitatea

Hipotesien arabera ondokoa ikusi nahi genuen, alegia, ea sozializazio prozesuko heziketa-praxien arabera genero-identitatean desberdintasunak agertzen ziren. Harreman hori aztertzeko asmoz taula-gurutzaketa bidezko hainbat analisi burutu genituen, eta lehen analisisan honela landu genituen aldagaiak: genero-identitatea batetik eta opari maskulino versus femenino aldagaia bestetik. Emaitzak ondokoak izan ziren:

#### Opari maskulinoak vs femeninoak

IDENSEX	Maskulinoak / Femeninoak		Total
	Tot Pct		
A-ESKEMATIZATUAK	25,6	20,6	
FEMENINOAK	10,6	40,0	
MASKULINOAK	36,0	14,2	
ANDROGINOAK	27,0	26,5	

Aldagai biren arteko taula-gurutzaketak estatistikoki adierazgarria zen  $X^2$ -a ( $V = 22,02$ ;  $p < 0,001$ ) sortarazi

zuen. Gainera, opari maskulinoak jaso zituztenen arteko ekarpen nagusia eskematizatu maskulinoaren kategoria da eta kategoria urriena eskematizatu femeninoarena. Alderantzizkoa gertatzen da opari femeninoak jasotzen dituztenekin. Subjektu gehien hartzen duen kategoria eskematizatu femeninoarena da eta urriena eskematizatu maskulinoarena. Androginoen eta eskematizatuen artean ez dago desberdintasunik.

Aurrekoaz gain, opari maskulino vs. femeninoak eta genero-identitate kategorien arteko erlazio honetan sakontzeko asmoz, genero-identitate kategoriak dummy aldagai bihurtu genituen (non 1 = ez eta 2 = bai, ziren). Ondoren, genero-identitate kategoria bakoitza eta opari-indize artean gamma koerlazioak burutu genituen. Gamma koerlazioak estatistikoki adierazgarriak izan ziren tipifikatu maskulino (Gamma = -0,70; t = -3,24) eta tipifikatu femeninoentzat (Gamma = 0,75; t = 3,45), eta ez adierazgarriak androgino (Gamma = 0,11; t = 0,54) eta A-eskematizatuentzat (Gamma = -0,12; t = -0,57). Beraz, koerlazio-analisiak aurrekoa frogatzen du, nolabait esanez, erlazio estuagoa dagoela genero-eskematizazioa eta opari maskulino versus femeninoen artean, eta ez androginia eta opari maskulino eta femeninoen artean.

Opari neutroak

IDENSEX	Ez	bai
	1,00	2,00
A-ESKEMATIZATUAK	28,8	17,0
FEMENINOAK	27,8	21,3
MASKULINOAK	25,0	23,4
ANDROGINOAK	18,4	38,8

Taula-gurutzaketaren emaitzak estatistikoki adierazgarria den  $X^2$ -a ( $V = 10,06$ ;  $p < 0,05$ ) sortarazi zuen. Gainera zera aurkitzen dugu, alegia, opari neutroak jaso zutenen lehen kategoria androginoa dela, beste kategorien artean desberdintasun nabaririk ez dagoelarik. Opari neutroak jaso ez zutenen artean ekarpen urriena duen kategoria androginiarena da eta beste kategorien artean ez dago desberdintasun nabaririk.

Aurrekoaz gain, opari neutro eta genero-identitate kategorien artean gamma koerlazioa burutu genuen, koerlazio-indizea adierazgarria izan zelarik (Gamma = ,31; t = 2,43). Aurrekoan bezala, koerlazio konkordun hau aztertzeko, genero-identitateko dummy kategoriak erabili genituen. Gamma koerlazioak estatistikoki adierazgarriak izan ziren androgino (Gamma = 0,57; t = 2,88) eta A-eskematizatuentzat (Gamma = -0,49; t = -2,55), eta ez adierazkorrak tipifikatu maskulino (Gamma = 0,12; t = 0,44) eta femeninoentzat (Gamma = 0,13; t = 0,46). Beraz, koerlazio-analisiak aurrekoa frogatzen du berriz, hau da, erlazio estuagoa dagoela genero androginia eta opari neutroen artean eta ez tipifikatu maskulino eta femeninoen artean.

Arestian esan dugunaren arabera, ikerketa honen helburua ilustratiboa zen (lagin-urritasuna eta aurreko belaunaldiko datuak ez ditugulako). Beraz, maila aurreikusgarrian ari ez bagara ere, maila ilustratiboan, orokorrean esan daiteke jostailu maskulino eta femeninoak eskematizazio maskulinoa versus femeninoarekin lotuta dauden bitartean, opari neutroak direla androginiarekin elkartuta daudenak.

Laburbilduz, ikerketa honen inguruan iradokizun interesgarriak agertzen direla esan daiteke. Batetik, sozializazio prozesuan zehar ematen diren praxi sozialak, oparien erabilpena kasu honetan, kategorio soziologikoe-tan banatzen direla; hain zuzen ere, familia tradizional eta familia nuklearraren artean desberdintasun nabariak gertatzen direla. Bestetik, praxi sozial horiek gazteen uste-sistemetan eragina dutela esan daiteke; hain zuzen ere, opari maskulino eta femeninoen eta opari neutroen eragina desberdina da generoaren desberdintasunari buruzko azalpen sozialak erabiltzerakoan, azken balioen arteko desberdintasunak adierazterakoan, generoen arteko desberdintasunari buruzko jarrerak azaltzerakoan eta genero-usteak agertzerakoan. Azkenik, praxi sozial horiek, hau da, oparien erabilpenak, harreman estua du genero-identitatearekin. Opari maskulino versus femeninoak eskematizazio maskulino versus

femeninoarekin du harremana eta opari neutroak androgi-niarekin.

Hala ere, arestian aipatu ditugun gabezia metodologikoez gain, emaitza hauek ez diote aurre egiten oparien eta generoen uste-sistemen arteko erlazioa frogatzeko, benetako arazoari alegia, noraino jokatzen dute haurren txikitandiko esperientziek eta gurasoen "ideiek"? Alde batetik, Goodnow-ek dioenez(1984), gurasoen "ideiek" etorkizun interesgarria aurkezten dute haur-heziketa egokiago baterako. Bestetik, ezin dugu ahaztu, haurren heziketak berak ere eragina duela gurasoen "ideietan". Beraz, ikerkuntza gehiago behar da emakume eta gizonen inguruko uste-sistemen inguruan, azken finean, eta Rubinek dioenez, "genero-identitatearen oposizioa desberdintasun naturalen adierazpena baino berdintasun naturalen desagertarazpena baita" (Rubin, 1975; 179-80).

## Bibliografia

- Antill, J. K. (1987) Parents' Beliefs and Values about sex roles, sex differences, and sexuality: Their sources and implications.
- Bem, S. (1981a) *Bem sex role inventory professional manual*. Palo Alto: Consulting Psychologists Press.
- , (1981b) Gender schema theory: a cognitive account of sex typing. *Psychological Review*, 81, 506-520.
- , (1987) Gender schema theory and the romantic tradition. in Shaver, PH & Hendrick, C (ED) *Sex and Gender*, New York: Sage.
- Brown, D. G. & Tolar, A. (1957) Human figure drawings as indicators of sexual identification and inversion. *Perceptual and motor skills*. 7: 199-221.
- Deaux, K, & Kite, M (1987) Thinking about gender. In B. Hess & M. Ferre (EDS) *Analyzing gender. A handbook of social science research*. Beverly Hills: Sage.
- Ferre, M. & Hess, B. (1987) Introduction. In Hess, B. & Ferre, M. (Ed) *Analyzing gender. A handbook of social science research*. Beverly Hills: Sage.
- Holland, D, & Davidson, D. (1983) Labeling the opposite sex: Metaphors and themes in American folk models of gender. Paper presented at the conference on folk models. Institute for Advanced Study. Princeton Univ. May.

- Mason, K. O; Czajka, J. L. & Arber, S. (1976) Changes in women's sex-role attitudes, 1964-1974. *American Sociological Review*. 41: 575-596.
- Perloff, R. M. (1977) some antecedents of children's sex-role stereotypes. *Psychological Reports*. 40:463-466.
- Rokeach, H. (1973) *The nature of human values*. NY: Free Press.
- Rowland, R. (1977) Australian data on attitudes toward women scale: Norms, sex differences, reliability. *Australian Psychologist*. 112: 327-331.
- Rubin, G. (1975) The traffic in women: Notes on the political economy of sex. In R. Reiter (Ed): *Toward an Anthropology of Women*. NY: Monthly Rev. Press. 157-120.
- Shaver, PH & Hendrick, C (1987) *Sex and Gender*, New York: Sage.
- Thornton A.; Alwin, D.; & Camburn, D. (1983) Causes and consequences of sex-role attitudes and attitude change. *American Sociological Review*. 48: 211-227.
- Zammuner, V. L. (1980) *Dutch children's judgment of, and preference for, sex-stereotyped toys*. Idazki ez argitaratua. Univ. of Padova.
- , (1981) Le preferenze dei bambini rispetto ai rouli sessuali. *Etá Evolutiva*. 9:38-52.
- , (1987) Children's sex-role stereotypes: a cross-cultural analysis. in Shaver, PH & Hendrick, C (ED) *Sex and Gender*, New York: Sage.



# Schengeneko Europa Berria.

## Asilatu- eta errefuxiatu-estatutuaren eskatzaileen egoera

**Igone Urtizberea Sein**  
**Eusko Jaurlaritzako bekaduna**

1995eko martxoaren 26an Schengeneko akordioa indarrean sartu zen. Honek, Europan ezartzen ari diren zenbait politika zalantzan jartzera eramaten gaitu, hau da, asilatu eta atzerritarrentzat ezartzen ari diren politikak hain zuzen ere. Era honetan, Europa, lege murriztaileen erabileraren bidez, hirugarren mundutik datorren emigrazio masiboaren arazoari erantzun bat emateko, gaztelu edo gotorleku bilakatu zaigu, kanpoan daudenei sarrera eragozten dielarik. Honela, giza eskubideak alde batera uzten dituzten lege eta hitzarmenak sortzen ari dira. Era berean, lege hauek era berean nazioarteko hitzarmenek betearazten dizkigun betebeharrak minimoak urratzen dituzte, adibidez gisa Schengeneko akordioak aipatu ditzakegularik: Ginebrako akordioak ezarritako zenbait xedapen urratzen ditu. Zer egin dezakegu honen aurrean? Gure ustez, lehenengo urratsa, egoera jakitera ematera litzateke.

Bestetik, Europak mugak istearen bidea aukeratu du, adibidez hirugarren mundutik datorrenari bisatuaren ukanbearra ezarritik. Bide honetatik hurrengo galdera planteatu dezakegu: medio errepresiboak al dira giza sustrai bat duen egoera honi irtenbidea emateko biderik egokiena?

In 26 march 1995 the Schengen agreement entered into force. This event makes us doubt about the current policy on emigrants and asylum seekers. In this matter, Europe has answered to the increasing immigration movements with a restrictive legislation, becoming a fortress which obstructs the possible entry of aliens.

On the one hand, the acts and agreements taken are not respectful to human rights: for example, some contents of Schengen's agreement do not respect Geneva's agreement. The first step for changing this situation would involve making everybody conscious about the situation.

On the other hand, Europe has decided to close its borders with a repressive answer. For example, the decision of demanding a visa to everybody who comes from the other side of the European borders, makes us ask ourselves if the repressive way is the proper one to solve a problem which has an obvious human root.

## 1. Sarrera

Asiloa gizadiaren eskubide zaharretako bat da, eta bere herrialdetik arrazoi konkretu batzuegatik ihes egin behar dutenengan elkartasunaren adibide gorenena.

Hau izan zen mende honetako 80ko hamarkada arte estatuek jarraitu zuten bidea. 80ko hamarkadan ikuspegia aldatu egin zen eta asiloari buruzko araudia gogortzen joan zen asilo-eskatzaileri gero eta oztopo gehiago jarri.

Honen ondorioa estatuen politika murriztaile eta gogorrak izan ziren. Schengeneko akordioak politika murriztaile hauen barnean sailka daitezke; Europa gaztelu edo gotorleku bezala azaltzen zaigu kanpoko hiritarrei ateak ixten zaizkielarik.

Gai honetan sakontzen hasi baino lehen gaur egun gai honek duen garrantzia ikusteko, datu batzuk aurretirako ditugu. Gaur egun 5.700 milioi biztanle daude munduan. Horietatik 100 milioi errotugabeak edo sustrai-gabeak, 19,4 milioi errefuxiatuak, eta 24 milioi desplazatuak dira. Honetaz gain egunero 10.000 pertsona gehiago pasatzen dira errefuxiatu-zerrenda hori osatzera. Afrika adibide gisa hartuz, esan daiteke bost afrikarretik batek jasaten duela errefuxioa eta munduko 130 pertsonetik bat asiloan bizi dela.

Datuak alde batera utziz, gaia arautzen duten instrumentu legalak aztertuko ditugu.

## 2. Instrumentu legalak

### 2.1. Schengeneko akordioen arazo tekniko formalak

Schengen, Luxenburgon dagoen herri txiki baten izena da, Frantzia eta Alemaniaren mugan kokaturik dagoena, eta akordio hauek, bertan sinatu zirenez, beraren izena hartu zuten.

Schengeneko akordioak bi dira:

I) 1985eko ekainaren 14koa.

II) 1990eko ekainaren 19koa, 1985eko akordioaren aplikazioari buruzko akordioa.

I) 1985eko akordioa bost estatuk sinatu zuten, Beneluxeko hirurak (Belgikak, Holandak eta Luxenburgok), Alemaniak eta Frantziak. Akordio hau oinarritzko akordioa da, baina edukia- ren aldetik 1990eko aplikazioari buruzko akordioa garrantzitsuagoa da.

II) Aplikazioari buruzko akordioa, hasierako bost estatu horietaz gain beste hainbat estatuk sinatu zuten, hala nola Italiak (1990ean), Espainiak eta Portugalek (1991n) eta Greziak (1992an). Beraz, oraingoz bederatzi estatuk sinatu dute.

Schengeneko akordioek, lerro gutxitan esanda, estatu partaideen barne-mugen desagertzea eta kanpo-mugen indartzea suposatzen dute.

Schengeneko akordioan (1990eko aplikazioari buruzko akordioaz ari gara, akordiorik garrantzitsuena baita) hainbat atal daude. Batetik, kanpo-

-kontrolen desagerpena, pertsonen zirkulazio librea, bisatuak, egoitza-baimenak, asilo-politika eta sistema informatikoa arautzen ditu. Bestetik polizia-elkarlaguntza, asistentzia judiziala, estradizioa e.a. Artikulu honetan, hemendik aurrera, Schengeneko akordioaz hitz egitean, lehenengo zati horri buruz arituko gara.

Schengeneko aplikazioari buruzko akordioa 1995eko martxoaren 26an sartu zen indarrean. Dena den akordioa zazpi estatuentzat bakarrik sartu zen indarrean, hau da, Grezia eta Italia ezik beste estatu sinatzaile guztientzat.

Dena den bere jadanekotasunak arazo ugari planteatzen ditu. Arazo horien artean nagusia tratatu edo hitzarmena bera da, kontraesan ugari baititu. Adibide gisa, eta bere jadanekotasunari dagokionez, bi xedapen dira azpimarratzekoak:

Azken aktan, 139. artikuluari buruzko deklarazio amankomunak dioenez, tratatua ez da indarrean sartuko estatuek, akordioaren aplikaziorako beharrezkoak diren aurretiazko baldintzak betetzen dituzten arte, eta kanpo-mugen kontrola eraginkorra izan arte. Aurretiazko baldintzak ondokoak dira:

1- Aireportuei dagokionez, bi sektore fisiko bereiztu behar dira: bata, Schengeneko espazioko hiritarrentzat eta bestea gainerako guztientzako.

2- Bisatuaren beharrari dagokionez, bisatu ukanbearra ezarriko zaien estatuei buruzko akordio bat hartu beharra dago.

3- Asilo-eskubidearen arazoan estatu partaideen arteko gutxieneko adostasun bat lortu nahi da, homogeneotasun baterantz abiatzeko.

4- Drogaren arazoari dagokionez, Holandatik sartzen den droga da gai honetan puntu garrantzitsua.

5- Kanpo-mugen kontrolak eraginkorra izan behar du.

6- Sistema informatikoari dagokionez Schengeneko espazioan sarrera debekatzen zaien pertsonen zerrenda bat dago, hau da, onargarrien ez diren pertsonen zerrenda.

Lehenengo bost baldintzak, teorian behintzat, betetzen direla esan daiteke. Aldiz, sistema informatikoa izan da arazo gehienak ekarri dituen. Dena den, azken baldintza hau, teorian ere ematen dela esan daiteke, akordioa martxoaren 26an indarrean sartu baitzen. Baina tratatuarekin zerkusia duen guztia isilpean eraman denez, ez da erraza jakitea zein baldintzatan sartu den akordioa indarrean.

Hau honela izanik eta akordioak duen zailtasuna azpimarratzeko, 139.2 artikulua da aipagarri; honela dio: azken berrespen-instrumentua aurkezten denetik, bigarren hilabetearen lehenengo egunean indarrean sartuko da akordioa. Beraz ez da lehen aipatutako 139. artikulua deklarazio amankomunaren irizpidea mantentzen, azken honek akordioa indarrean sartzeko bi ukanbearra eskatzen baititu: aurretiazko baldintzak betetzea eta kanpo-kontrola eraginkorra izatea.

Berrespenen arazora bueltatuz, Espainia eta Portugalek akordioa berretsi egin zuten, aldiz Grezia eta Italiak, nahiz eta akordioa sinatu, ez dute oraindik berretsi eta beraz ez da oraindik indarrean sartu. Italiak ez berresteko arrazoia ondokoa da: Italiak itsas muga oso garrantzitsua du eta Albaniatik Italiara joaten diren atzerri-

tarren sarrera eragozteko muga-kontrol eraginkorra falta zaio.

Beste alde batetik, Frantziaren kasua daukagu. Frantziak nahiz eta Schengeneko akordioa sinatu eta berretsi, akordioaren aplikazioa, berari dagokionez, oraingoz atzeratzea erabaki du. Hasieran epe bat eman zitzaion, baina badirudi epe hori luzatu egin duela, aplikazioaren atzerapen hori eskatzeko arrazoi nagusienak ondokoak izanik:

1- Kanpo-kontrolen eraginkortasuna zalantzan jartzen du<sup>1</sup>.

2- Drogaren arazoa, bereziki Holandatik sartzen den droga, barne-mugak desagertzean trafikoa librea izango baita<sup>2</sup>.

3- Delitugileen kontrolerako Espainia eta Portugaleko sistema informatikoak Frantziaren ustez ez du ongi funtzionatzen.

4- Orokorrean, sistema informatikoaren funtzionatze eza argudiatzen du.

Bestetik, Austria eta Danimarkako kasuak ditugu, hauek negoziaketak jarraitu dituzte epe laburrean akordioa sinatzeko asmoz. Era berean Suediak eta Finlandiak laster sinatuko duten ustea dago.

Beste arlo batera pasatuz, Europako Komunitateak gai honetan jokatzen duen papera ikusiko dugu. Hau da, Europako Batasunak gai hau ez arautzeko arrazoa zein den. 1992ko Ba-

tasuneko Tratatua hiru zatitan dago banaturik:

1- Europako Elkartea.

2- Kanpo eta Segurtasuneko politika (V Titulua).

3- Justizi eta barne-gaietan elkarlagentzari buruzko xedapenak (VI Titulua).

Hiru zati hauei zutabeak deitzen zaie; asiloa eta emigrazioa hirugarren zutabearen daude. Hirugarren zutabeko K1 artikulua interes amankomuneko gaiak zein diren azaltzen digu, horretarako gai hauetan gobernuen arteko lankidetzak bultzatuko dela ezarri. Helburua estatu desberdinen araudien koordinazioa edo homogeneotasuna lortzea izango da. Honen ondorioz, instituzio komunitarioek ez dute, oraingoz behintzat, K1 artikuluko gaiak arautzeko aukerarik izango. Dena den, K9 artikulua igarobide-artikulu bezala jokatzen du K1 artikuluko zenbait gai, instituzio komunitarioek arautuko duten gaien artean sartzeko aukera ematen baitu (100. artikuluan), baina horretarako aho batez onarturiko kontseiluaren erabaki bat eskatzen du. Gai honetan, gaur egun Britainia Handiak duen jarrerak oztopo handia suposatzen du.

Bestetik, K9 artikuluko gaiak VI Tituluan egoteak Europako Elkarteko Justizi Auzitegiaren eskuduntzatik kanpo geratzea suposatzen du, eta beraz, Auzitegiak ezingo ditu ("L" artikulua dioen bezala) gai hauek aztertu. Giza Eskubideen Europako

1. Hain zuzen ere Italiak duen mugaren kontrola ez dela efektiboa aipatzen dute eta Serbia eta Montenegro ez dietela bisatu ukan behar hori ezarri.

2. Arazoa 1993an Madrilan egin zen bileran landu zen; orduarte puntu hau akordioaren blokeo puntua izan zen denbora luzean Holanda eta beste estatuen artean, baina Madrileko bileran konpromezu batera iritsi ziren.

Auzitegia izango da gai hauek ukituko dituen bakarra eta ondorioz errefuxio-eskatzaille eta asilodunek bigarren Auzitegi honetara bakarrik jo ahal izango dute.

Hau guztia ikusi ondoren, errefuxio-eta asilo-eskatzailleen egoera arautzen duten beste akordio eta instrumentuak ikusiko ditugu.

## **2.2. Zuzenbide orokorretik zuzenbide erregionalera**

### *2.2.1. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala*

Nazio Batuen mailan, 1948ko Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsalak honela dio: “*denek dute errefuxioa eskatzeko eta errefuxioaz gozatzeko eskubidea*”. Hemen ez da beraz estatua ezertara behartzen, hau da, asilo edo errefuxioaz gozatzeko eskubidea dago baina ez emateko betebeharra<sup>3</sup>.

### *2.2.2. 1951eko errefuxiatu eta aberri-gabekoen estatutuari buruzko Genevako akordioa, eta 1967ko New Yorkeko Protokoloa.*

Nazio Batuen mailan jarraituz, 1951ko errefuxiatu eta aberri-gabekoen estatutuari buruzko Ginebrako akordioa<sup>4</sup>, eta honen 1967ko New Yorkeko protokoloa dauzkagu.

#### *a) Errefuxiatuaren kontzeptua. De factoko errefuxiatuak. Desplazatuak*

Akordio honen ekarpenik garrantzitsuena errefuxiatuaren kontzeptua da.

3. Hemendik jarraituz eta deklarazio unibertsalaren xedapenek balio lotesle zuzenik ez dutela kontuan hartuz, hori garatzen zuen instrumentu bat beharrezkoa zenez, 1977 urtean “asilo lurraldetarraren deklarazio” bat egiteko saiakera bat eman zen. Bertan, estatua, zenbait baldintza betetz gero errefuxioa ematera behartzen zen. Baina azkenean saio honek porrot egin zuen.

4. Akordio hau munduko estatu gehienek sinatu dute, India, Errusia, Polonia eta Estatu Batuek izan ezik; azken honek protokoloa bakarrik sinatu du.

Bere 1.2 artikulua dioenez, errefuxiatuaren definizioa ondokoa da: zenbait arrazoiengatik jazarria izatearen beldur oinarritu bat duen pertsona, beldur horren ondorioz nazionalitatearen herrialdetik kanpo dagoena eta bere herrialdearen babesa jaso nahi edo ezin duena.

Arrazoi horiek ondokoak dira: arraza, erlijioa, nazionalitatea, giza talde baten barnean egotea edo iritzi politikoa.

a) Arraza. Kasu hau eman daiteke bai etnia baten barnean egoteagatik eta bai azal-kolore desberdina izateagatik ere. Adibidez, Hegoafrikan *apartheidekin* gertatutakoa.

b) Erlijioa. Honen adibide garbia Pakistanen *Alhamiren* kasua da, hauei Mekarako emigrazioa debekatzeko baitzaie.

d) Nazionalitatearengatik. Hemen ere lotura etniko eta linguistikoa dira garrantzitsuenak.

e) Giza talde baten barruan egoteagatik. Hau gerta daiteke, adibidez, gobernu baten ustez, giza talde baten jarrera bere nahiak aurrera eramateko oztopo bezala suertatzen bada.

Emakumeen arazoak ere hemen sailkatuko lirateke. Adibidez, emakume iraniarrak, beren ohitura sozialak ez betetzeagatik jazarriak izaten direnean.

f) Iritzi politikoa. Hau adierazia izan behar da eta estatuak iritzi horren berri izan behar du.

Arrazoiak azaltzen dituen zerrenda honek garrantzi handia du, guda eta arma-gatazketatik edo huts egin duen politika ekonomiko batetik ihes egiten dutenak, definizio honetatik kanpo gelditzen baitira. Azken kasu honen adibide gisa gosete edo ezbehar naturalatik ihes egiten dutenak ditugu. Hauek *de factoko* errefuxiatutzat hartuko dira. Beraz, errealitateak sortzen dituen hainbat betebeharrri erantzun bat emateko, kategoria berri bat sortzen da.

Genevako akordioak ematen duten errefuxiatuaren definiziora berriro bueltatuz, aztertzen jarraituko dugu. Definizioak honela dio: zenbait arrazoiengatik beldur oinarritu bat duen pertsona eta "*bere herrialdeetik kanpo daudenak*". Hemen errefuxiatuak eta desplazatuak bereiztu behar dira. Biak, funtsean, berdinak dira (arrazoi berdinak dituzte), baina desplazatuak bere Estatuko lurraldearen beste toki batean geratzen dira eta honen ondorioz ez dira Genevako akordioaren babespean sartzen.

Bestalde, Genevako akordioak esanbidez dioenez, definizio honetatik kanpo ondoko kasuak geratuko lirateke:

1. a) Bakearen aurkako ekintzak.
1. b) Gudako ekintzak.
1. c) Gizadiaren aurkako ekintzak: erahilketa, genozidioa.

2-Delitu arrunt astunak. Hemen zailtzan dago terrorismoa delitu arrunta ala politikoa den. Frantziak terrorismoa delitu arruntzat jotzen du eta beraz pertsona hauei ezin izango zaie errefuxiatuaren estatusa aintzatetsi.

3-Nazio Batuen xede eta printzipioen aurkako ekintzen errudunak.

Esan behar da OUAk (Afrikako Batasunerako Organizazioak) kontzeptu hau hedatu egin duela, eta guda eta desastre naturalatik ihes egiten dutenei ere aplikatzen zaie.

*b) Non refoulement printzipioa. 1951ko Genevako akordioen 33. artikulua*

Beste elementu aipagarri bat *non refoulement* printzipioa da. *Refoulement* kontzeptuak legearen aurka sartu dena mugan jartzea suposatzen du, beraz printzipio honek *refoulement* kontzeptua ezeztatzen duenez, printzipio honekin ezin izango da mugan jarri edo kanporatu legearen aurka sartu dena.

Adibide gisa Pasaiaiko kasua ikusiko dugu. Pasaiaiko portuan 1995eko iraillean bost polizoi sartu ziren itsasontzi batean ezkutaturik; polizoi hauek *non refoulement* printzipioaren arabera bere eskaerari erantzun bat eman arte bertan gelditu ahal izan zuten eta ezin ziren kanporatuak izan. Hau da, printzipio honek egitatezko denborazko asilo bat suposatzen du. Kanporatzea eta deportazioa aldiz egoitza legala dutenei aplikatzen zaie.

*Non refoulement* printzipioa 33. artikuluan jasota dago eta honela dio: ezin izango da errefuxiatu bat kanporatu, arraza, erlijio, nazionalitate, giza talde baten barrukoa izateagatik edo iritzi politikoengatik bere bizia eta askatasuna arriskuan jartzen badira.

Baina printzipio honek baditu hainbat salbuespen: ezingo du errefuxiatu batek printzipio honen babespean sartu, pertsona hori herrialde horren segurtasunerako arriskutsua izan litekeela pentsatzeko arrazoi inarrituak

baldin badaude, ez eta ere delitu bereziki astunagatik behin-betiko kondena bat baldin ba-dauka, eta herrialdearentzat mehatxu bat suposatzen badu<sup>5</sup>.

Bestetik 31. artikulua dioenez, legegaren aurka sartzen diren errefuxiatuei ezin izango zaie zehapenik ezarri. Printzipio honek, gero ikusiko dugunez, Schengeneko akordioak aztertzerakoan garrantzi handia izango du.

### **2.3. 1950eko Giza Eskubideen Europako Ituna**

Beste arlo batera pasatuz, hau da, zuzenbide orokorra alde batera utziz, Europako zuzenbide erregionala daukagu: 1950eko Giza Eskubideen Europako Itunari dagokionez aipatzekoa da ez duela ezertarako errefuxioa aipatzen, baina bere 3. artikuluan tratatu ez gizatiar eta degradanteak debekatzeko ditu. Beraz errefuxiatu bat bere bizitzarako arriskua izango duen tokira bidaltzea 3. artikuluan horren barruan sartzen dela kontsideratu du Auzitegiak.

### **2.4. Schengeneko eta Dublineko akordioak**

#### *a) Schengeneko akordioak*

Bestetik, ildo beretik jarraituz eta Europa-mailako zuzenbide erregionalean jarraituz, Schengeneko eta Dublineko akordioak ditugu; hauek Genevako akordioa errespetatu behar dute.

Schengeneko akordioak inmigrazioa geldiarazteko saiakera bat dira, bisatu egokirik ez daramatzatenei sarrera eragotziz, eta errefuxioarekin ez du salbuespenik egiten.

Schengeneko aplikazioari buruzko akordiotik, edukiaren aldetik akordio garrantzitsuena, bi ideia nabarmendu behar dira:

I) Itsas edo aire-konpainiek ezartzen dituzten zehapen eta isunak.

II) Bisatuaren ezartzea.

I) Lehenengo gaiari dagokionez, itsas eta aire-konpainiak erantzuleak izango dira atzeritar bat gaizki dokumentatua dagoenean. Hau da, mugan onartuak ez direnean, konpainia bera izango da erantzule eta gainera isun bat jasoko du.

Egoera honetan, errefuxiatuari gelditzen zaion irtenbide bakarra, bere herrialdean dauden agintari diplomatiko eta kontsularrei asiloa eskatzea izango da. Dena den ekintza hau aurrera eramatea nahikoa zaila izango da, asiloaren natura kontuan hartuz gero; hau da, jazarria izatearen beldur oinarritu bat duen pertsonak nekez itxaron ahal izango du bisatua ematea.

Hau guztia Genevako akordioaren 31. artikuluaen aurka dioa, bertan asilo-eskatzailearen sarrera ilegalak bidezkoak baita. Beraz, aire- eta itsas-konpainien zehapenak arau honen aurka dihoaz, zehapenak ezarriz, hauek atzeritarraren etorrera eragozten baitute.

Era berean aire- eta itsas-konpainiei jartzen zaizkien zehapenak ez datoz Chicagoko aire akordioarekin bat, bertan aire eta itsas konpainiei zehapenak delitu astunagatik bakarrik ezarriko zaizkiela esaten baita.

---

5. OUAk (Afrikako Batasunerako erakundeak) ordea ez du inolako salbuespenik aipatzen.

II) Bisatuaren ezarpena: Europako estatu askok 80ko hamarkadan bere politika murriztaileak aurrera eramateko bisatuaren ukanbeharra jarri zieten errefuxiatuei; honela, bisatua errefuxiatua European sartzeko oztopo argi bilakatzen zaigu. Honela, Europako estatuak zerrenda amankomun bat osatu nahi dute, eta bertan dauden herrialdeetako nazionalen bisatua eskatuko zaie.

Bide honetatik, Schengeneko akordioak bisatu uniforme baten sortzea aurrirakusten du (hiru hilabetekoa), Schengen espazioko estatu guztientarako balioa izango duena. Dena den, bisatu uniformea martxan jartzen den bitartean estatu bakoitzak emandako bisatuak balio izango du.

Era berean Batasun tratatuaren 100c artikulua bisatuaren gaia aztertzen du, Kontseiluak, 1996. urtean gehiengo kualifikatuaren bitartez gai honi buruz erabakiko duela esanez, hau da, kontseiluak ezarriko du zein diren sartzeko bisa beharko duten hiritarrak.

Gai honetan mugak zeharkatzeko baldintzei buruzko akordio-proiektua dago, baina Espainiak eta Britainia Handiak Gibraltarren inguruan dituzten arazoak, proiektua aurrera eramateko oztopo nabarmen suertatu dira.

#### *b) Dublineko akordioak*

1990eko ekainaren 15eko hitzarmen hau *ad hoc emigrazio-taldea* deituriko taldearen barnean sortu zen. Hasiera batean, estatuetakoa atzerri-ministroek *Trevi taldea* delakoa sortu zuten, taldearen helburua bakarra zen: drogararen arazoa. Ondoren, 1988ko *Rhodaseko Kontseiluan, ad hoc emigrazio-taldea* deiturikoa sortu zen eta he-

mendik atera zen Dublineko akordioa. Akordio hau 1990ean sinatu zen eta oraindik ez da indarrean sartu. Hitzarmen hau Europako Batasunaren estatu guztiek berresten dutenean sartuko da indarrean, oraindik Holanda, Belgika, Irlanda eta Europako Batasunean sartu diren hiru estatu berriak, Austria, Suedia eta Finlandia, falta direlarik Hitzarmena berresteko.

#### *c) Bi akordioen eduki amankomuna*

I) Asilo-eskaerari erantzuna emateko estatu eskuduna

Schengeneko eta Dublineko akordioek erregela berdintsuak dituzte. Horren arabera asilo-eskaerari erantzun bat emateko estatu erantzuleak ondokoak izango dira:

1- Bisatua edo egoitza-baimena eman duen estatuak.

2- Bisatu-salbuespena eman duen estatuak.

3- Mugak zaintzeko betebeharra ez betetzearen ondorioz asilo-eskatzailaren legearen kontrako sarrera jasaten duen estatuak.

4- Aurreko erregelak aplikatzen ez direnean, eta hondar-klausula gisa, asilo-eskaera aurkeztu den tokiko estatuak.

#### *II) Bi akordioen xedea*

Beraz, bi akordio hauen helburua orbitan dauden errefuxiatu eta eskaera anitzen arazoa konpontzea da.

*Orbitako errefuxiatuak* estatu batetik bestera dabilzan errefuxiatu eta asilo-eskatzailak dira. Hau da, estatu batek eskuduna ez dela esaten du eta asilo-eskatzaila hirugarren estatu batera



bidaltzen du, hirugarren estatu hori eskuduntzat hartuz. Esate baterako, Espainiak errefuxiatu bat Suizara bidaltzen badu eta Suizak bera eskuduna ez dela esanez berriro Espainiara bueltatzen baldin badu, era honetan posible da denbora luzea igarotzea arazoa konpondu gabe, eta errefuxio-eskatzaila alde batetik bestera ibiliz.

- Bestetik, eskaera anitzak daude. Kasu honetan, asilo-eskatzailak Europako herrialde desberdinetan aurkezten du bere eskaera. Esate baterako, lehenengo Espainian planteatzen du bere eskaera, eta bertan *non refoulement* printzipioaren arabera bere eskaerari erantzun bat eman arte Espainian gelditu ahal izango du. Ondoren erantzuna ezezkoa bada, Europako beste herrialde batera joko du, Frantziara adibidez, bertan prozesu berdina jarraituko duelarik (hau da, denboraldi batez Frantzian gelditzea lortuko du). Gehiegikeria hauek saihesteko lehen aipatutako erregelak ditugu, estatu eskuduna zein den esaten diguten erregelak.

Dena den Schengeneko akordioak dioenez, estatu batek, nahiz bera eskudun ez izan, eskaera bat jaso ahal izango du (bere nazionalitateko lege arrazoi partikularrengandik honela agintzen badiote).

Klausula honekin Frantziak hainbat arazo izan zituen bere Konstituzioko hitzaurreak baitzuen eskaera horiek onartzera behartzen, eta Schengeneko akordioak hori egiteko aukera ematen zion. Beraz, Frantziak bere Konstituzioa eta beste zazpi lege aldatu behar izan zituen Schengeneko akordioetara egokitzeko.

Panorama hau ikusirik, argi gertatzen da asilatu edo errefuxiatuen benetako erregulazio materiala estatuen esku dagoela (adibidez: asiloa emateko bete beharreko baldintzak edo erabili behar den prozedura e.a. Beraz, heterogeneotasun bat sortzen da, estatu bakoitzak araudi desberdina baitauka. Ondorioz errefuxiatuaren estatusa lortzeko bideak eta aukerak arrazoi geografiko, historiko edo politikoen arabera oso ezberdinak izan daitezke.

Atzerritarren gaiari historikoki begiratzuz honakoa esan dezakegu: 60ko eta 70ko hamarkadak ekonomi aldetik Euro-parentzat garai onak izan ziren, lan-eskari handia zegoen eta beraz komunitatez kanpoko atzerritarrek ongi etorriak izaten ziren eskulan merkea suposatzen baitzuten. Inmigrazio honek Europako berreraiketarako laguntza handia suposatu zuen.

Baina 1973ko krisiarekin eta Europako herrialdeak emigrazioa geldiarazteko politikak aurrera eramaten hasi ziren.

Hau Alemanian oso garbi ikusi zen. Alemania izan zen asilo-eskubidea eskubide subjektibo bezala onartzen zuen herrialde bakarra, baina 80ko hamarkadatik aurrera legezko xedapen eta politika murriztaileak agertuz joan ziren. Bide honetatik zenbait debeku jarri zituzten. Batetik asilo-eskatzailaiei Alemanian bi urte igaro arte lan egitea debekatu zitzaion. Bestetik 1981ean asilo-eskatzailaiei ematen zitzaion laguntza soziala murriztu zen, eta kontzentrazio-esparruak ziruditen toki itxietara joatera behartu zituzten. 1991 urtean lan egiteko debekua bost urtera luzatu zen. Honekin

guztiarekin batera bere Konstituzioa erreformatzera behartuak aurkitu ziren, bestela Alemania beste Europar estatuak onartzen ez zituzten eskaerak aztertzerara behartuta geldituko zen, erre-serba-estatu gisa, bere barne-legeak horretara behartzen baitzuen.

Politika murriztaile hauek Europako estatu guztietan ezarri ziren 80ko hamarkadan. Belgikan, adibidez, bisatua ezarri zuten errefuxio-eskatzailen jatorriko herrialde askotarako.

Beraz, garai honetan 80ko hamarkadan kutsu nazionalista eta erregionalistako politikak aurrera eramaten hasi ziren. Kutsu nazionalistako politikak, Europa mendebaldeko hiritarrei asiloa errazten zien pixka bat, eta beste guztiei traba gehiago jarri. Kutsu erregionalistako politikak honakoa suposatzen zuen: Afrikako errefuxiatuak Afrikan geratzea, latinoamerikarrak Latinoamerikan, e.a.

Ikuspegi hau nahikoa hipokrita kontsidera daiteke, kontuan izanik munduan sortzen diren errefuxiatu gehienak hirugarren munduan sortzen direla.

Estatuak dituzten politika murriztaile horiekin jarraituz, aipatzekoa da 1992an Londresen Britainia Handiko emigrazio-ministroak prozedura azkarra delako prozedimendua ezartzea erabaki zuela. Prozedimendu hau, eskaera nabarmenki oinarritugabea denean emango da, eta honela kontsideratuko dira, herrialde seguru bezala kontsideratuak diren herrialdeetatik datohtenek eskatutakoak, hau da, jazarria izatearen beldur seriorik ez dagoenean. Adibidez Suitzan eskaeren % 95 legearen kontra sartutako turkiarrenak ziren; hori ez gertatzeko Suizak bere legea erreformatu egin zuen prozedimendu azkarra ezarriz.

Beraz, James Hathaway izeneko autoreak dioen bezala, argi gelditzen da gobernuen arteko lankidetzak aurrera eramaten dituen ekintzek, *non refoulement* kontzeptua ez sartze kontzeptuarengatik ordezkatu nahi dutela.

Hemen egoera paradoxiko baten aurrean aurkitzen gara: batetik errefuxio-eskatzailen kopurua handituz doa, baina aldi berean errefuxiatu gisa errekonozituak diren pertsonen kopurua gutxitzen ari da.

Asilo-eskaeren kopurua izugarri handitu dela argi ikusten da hurrengo datuetan: 1970ean 2,5 milioi errefuxiatu zeuden munduan. 1993an aldiz 19 milioi zeuden. Beraz, Europan 1970ean hasi zen errefuxiatuen kopurua hazten, eta 1980tik 1987-ra asilo-eskaeren kopurua bikoiztu egin zen % 35etik % 70era. Denboran gertuago etorri 1991 eta 1992 urteetan 256.000 eskatzailetik 438.000 eskatzailera pasa zen Alemania.

Baina asilo eta errefuxiatuaren estatusaren ematea gogorki jaitsi da, eskaeren % 5ek edo % 10ek bakarrik lortzen baitute estatusa. Adibidez Espainian 1994an % 5,8k bakarrik lortu zuen asiloa (493 pertsona eta eskaeren % 94,2a ezeztatua izan zen (7.993 pertsona)). Orokorrean esan daiteke Espainia asilo-eskatzaille gutxien dituen estatuetakoa bat dela; Grezia eta Noruegia bakarrik daude atzetik. 1991 urtean Espainian 8.169 asilo eskatzaille zeuden, Alemanian 256.112, Frantzian 46.545 eta Italian 23.317.

Honen guztiaren atzean arrazakeria eta sentimendu xenofoboak daude, eta estatuaren segurtasunerako obsesio horrek, asilo-gaian Europan ematen ari diren politikak gogortzen ditu.

Dena den harridura sortarazten du errefuxiatuen aurka ematen diren gehiegizko erantzunak (erreakzioak), kontutan izaten badugu errefuxiatuen kopuruaren % 95 Hegoaldeko herrialdeetan dagoela, hau da, Hirugarren Munduan, eta % 5 bakarrik European. Hau da, munduan dauden 19,4 milioi errefuxiatuetatik 2 milioi bakarrik daude European.

Espaniari dagokionez 5/1984 legearen erreformaren ondorioz 9/1994 legea sortu zen.

Lege honek ezartzen duen lehenengo aldaketa, asilo eta errefuxioaren arteko desberdintasunaren desagertzea da; orain guztiak asilo-eskatzai-leak dira.

Bestetik legeak *“inadmisión a trámite”* izeneko izapidea arautzen du: Lau eguneko epean eskudun den agintariak kasua aztertuko du; erantzuna ezezkoa bada, hau da, asiloa ez ematea erabakitzen badu, barne-ministroarengana pasako da kasua eta honek hiru eguneko epean erantzun bat eman beharko du. Beraz, zazpi eguneko epean eskaera hori tramitean onartzen den ala ez esan beharko dute. Erantzun hori ematen den bitartean “mugako egoitzetan” itxarongo du asilo eskatzaileak, hau da, erretentitua egongo da, eta zazpi egunetan ezin izango du handik mugitu. Hau da, teoriarik ez daude detentituak baina ez daukate askatasun osoa, toki zehatz batean gelditu behar izango baitute. Bide honetatik doktrinaren iritzia azpimarragarria da; bere ustez ez dago ezer detentzio eta askatasunaren artean, ala detentitua zaude ala aske. Bestetik, askotan mugetan mota honetako dependentziarik ez dagoenez polizia-dependentzietara eramaten dira honela gerta daiteke inmigrante

bat kartzelan egotea atea zabalik duen bitartean, ez baitago detentitua.

Hau guztia Konstituzioko 17. artikularen aurka dioa, bertan esaten denez pertsona bat detentitua egon daitekeen gehienezko epea 72 ordukoa baita.

Hau oso kritikatu izan da eta konstituziokontrakotasunaren helegite bat aurkeztu da, “erretentzioa” delako horretan oinarrituz.

Bestetik zazpi egun pasa ondoren, eta eskaera ezeztatua izaten bada helegite kontentzioso-administratiboa jarri ahal izango da, baina honek ez du irazpen-agindua geldiaraziko.

Profesional, politiko eta intelektual batzuek osaturiko talde bat ere honen aurka agertu zen eta manifestu bat idatzi errefuxio- eta asilo-eskatzai-entzat berme handiagoak eskatuz. Bermerik ez badago ez dago eskubiderik eta kasu honetan ez dago administrazioa ez den beste organo judicial batera jotzeko aukerarik.

Ondorioz asilo-eskatzai-leak oso egoera txarrean bizi dira. Normalean, 2 urte itxaron behar da erantzuna lortu arte. Lehenengo sei hilabeteetan 30.000 pezetako diru-laguntza jasotzen duten arren hortik aurrera lan egiteko debekua daukate eta gainera ez dute laguntza sozialik jasotzen.

Honen guztiaren ondorio gisa honakoa esan daiteke: gaur egun asiloa legez-kontrako emigranteak European sar daitezten bide gisa erabiltzen da; ondorioz asilo-eskaerak ezeztatuak izaten dira emigrante ekonomikoekin identifikatzen direlako, eta gero eta modu hertsia goan interpretatzen dira asilo-eskaerak.

Errefuxiatua emigrante ekonomikoekin konparatuz gero desberdintasun argia dago: emigrante ekonomikoek bere bizitza-maila hobetzeko alde egiten dute beren herrialdeetatik, asilo-eta errefuxio-eskatzailleek aldiz, beldur oinarritu baten ondorioz zerbaitetik ihes egiten dute. Dena den hemen bereizketa argi bat egin behar da: gauza bat da bizitza-maila hobetzeko alde egitea, eta beste bat pobrezia edo behar gorriaren kasua (baliabide ekonomiko gabezi absolutua). Bide

honetatik, Elizaren kontseilu mundialak errefuxiatuaren definizioa zabaldu egin nahi du.

Asiloaren arazoa transnazionala da eta ezin saihestu ahal izango da ordena publikoaren ikuspuntutik begiratzen duten formula errepresibo hutsen bitartez. Gai honek giza arrazoietan oinarritutako irtenbidea behar du, helburua betiere integrazio soziala izanik edo zergatiak amaitzen direnean borondatezko berraberriratzea.

## Bibliografia

- Antón Medina, F., (1994): "Perspectivas actuales del derecho de asilo en España y en la Unión Europea", *Boletín asturiano sobre la Unión Europea*, 51-zkia., maiatza/ekaina.
- Deloire, P., (1995): "l;application de l'acord Schengen", *Les petits affiches*, 60-zkia.
- De Lucas, J., (1992): "Europa: convivir con la diferencia", *Racismo, nacionalismo y derechos de las minorias*, Tecnos, Madril.
- Giménez Pericás, A., (1995): "Los refugiados. La sorprendente novedad de un antiguo fenómeno y su capacidad para quebrar el sistema jurídico de garantías", *Eguzkilore*.
- Gortazar, C., (1992): "La Comunidad Europea: de Schengen a Maastricht", *Justicia y Paz*, Caritas, Madril.
- Goybert, C., (1995): "Police, asile, immigration: l'union est-elle en panne", *Revedu marché Comun et de l'Union Européenne*, 385-zkia.
- Guimezales, N., (1994): "Le status juridique des réfugiés", *Revue Internationale de Droit Comparé*, 2-zkia.
- Jiménez de Parga y Maseda, (1995): "Reflexiones sobre la puesta en aplicación en su totalidad, el 26 de marzo de 1995, del Convenio de aplicación del acuerdo de Schengen de 19 de junio de 1990", *Revista de Instituciones Europeas*, 3-zkia, 22 alea.
- Julien-Laferrere, F., (1992): "La Europa de Schengen: de la desaparición de las fronteras a la transferencia de los controles", *Revistas de documentación*, 2-zkia.
- López Garrido, D., (1991): *El derecho de asilo*, Editorial Trotta, Madril.
- Manzanares Samaniego, J.L., (1995): "El refugio y el asilo", *Eguzkilore*.
- Stefanini, P. Doublet, F., (1991): "Le droit d'asile en Europe: la Convention relative à la détermination de l'état responsable de l'examen d'une demande d'asile présentée auprès d'un état membre des communautés européennes", *Problèmes juridiques et institutionnels*.

## HISTORIA DE EUSKAL HERRIA, Tomo III

### El Nacimiento de una nación

Jose Maria Lorenzo Espinosa  
Txalaparta, Tafalla, 1995

#### Historiaren inguruan, zabaltze-lana eta ideologia

Lerro hauen lehen asmoa José María Lorenzo Espinosak iaz argitaratutako liburuaren aipamena egitea zen. Baina liburuaren irakurketak bultzaturiko hausnarketa gehitzea erabaki dut sarrera moduan, aspalditik kezkatzen nauten hainbat gai kaleratzeko, aipamen gisa badira ere; inoiz, asti eta prestakuntza hoberekin, azterketa sakonagoa burutuko dudalakoan.

#### 1.

Kezka horiek gehitu egin dira azken urteetan Kataluniatik heldu zaizkigun hausnarketa batzuk irakurrita<sup>1</sup>, gure eredu eta tradizioak ezberdinak izan

arren, guztiz interesgarriak iruditu zaizkit eta; besteak beste, antzeko azterketa<sup>2</sup> eta eztabaida historiografikoek ez dutelako oihartzun gehiegirik izan gure artean<sup>3</sup>. Are gehiago, Kataluniako eztabaida guneetako bat hizkuntza izanik, egile batzuek, katalanez idatzi arren, kritikatzin ari dira gutxiegia idazten dela gaztelaniaz edota atzerriko hizkuntzetan, bertako lanen eragina mugatuz. Hemen, jakina denez, gaztelaniaz idatzitako lanetan euskaraz burututakoa ez da kontutan hartzen<sup>4</sup>. Hala ere, azken urteetako ahalegin historiografiko nabarmenena euskaraz egin da<sup>5</sup>.

Euskal Herrian argitaratutako lan historikoak asko ugaritu dira azken hamar-hamabost urteetan. Argialetxe

1. Beraien azterketak erabat onartu ez arren, oso interesgarriak iruditzen zaizkit Borja de Riquer-ek eta Enric Ucelay da Cal-ek 1989ko udazkenean Gironak esandakoak: UCELAY DA CAL, E.: "La historiografía dels anys 60 i 70: marxisme, nacionalisme i mercat cultural català" eta RIQUER, B. de : "Problemes i reptes actuals de la historiografia catalana"; biak, *Quadernes del cercle* 6, 1990, 53-89 eta 91-106 orr. Riquer-ek gai berean sakondu zuen bi urte beranduago: "Apogeo y estancamiento de la historiografía contemporánea catalana" *Historia Contemporánea* 7, 1992, 117-134 orr.

2. Harro aipatu behar da, lehena euskaraz burutu zela. Izan ere, "Euskal Historiografia" izenburupean *Jakin* aldizkariaren 55. alean (Azaroa-abendua 1989) zenbait historiagileek 1960 eta 1988 bitartean argitaratutako produkzioaren azterketa burutu zuten arloka.

3. *Historia Contemporánea* aldizkariaren 7. alearen gaia historiografia izan zen eta bertan aurkitzen dira Euskal Herriari buruzko lau artikulu. Azken biek, AGIRREAZKUENAGA, J. "La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales" 257-281 orr. eta MONTERO, M., "La invención del pasado en la tradición historiográfica vasca", 283-294 orr. euskal historiografiaren jatorria aztertzen dute. Esanguratsua bertan iragarri zen mintegia ez zela burutu. Bestetik duela bost bat urte Deustoko Unibertsitateko Gaur Eguneko Historia Sailak ihardunaldi batzuk antolatu zituen "Por una historia subversiva". Historiaren izaera iraultzailea azpimarratuz. Ez dirudi ekintza honek ere ohiartzun gehiegirik izan zuenik.

4. Ezta abertzaletasunaren historia lantzeko orduan. CHUECA, J. "Euskal nazionalismoaren kontrahistoriaz" *Larrun* 23, 1994, 71. orr.

5. GARZIA-, P.-ZALDUA, I.(arg.), *Historia, zientzia ala literatura? Historiari buruzko gogoeta sorta*, UEU, Bilbo 1995.

pribatu, Unibertsitate ezberdin eta herri-erakundeen eskutik hamaika liburu eta artikuluk ikusi du argia gure inguruan. Batzuen ustez hamaikatxo. Gehiegi argitaratu baita eta, maizegi, idazlan txarrak edota interes gutxi-koak. Idatzi honen asmoa ez da kalitatearen eztabaidan murgiltzea, baina honen inguruko hausnarketaren bat egin nahi dut. Kalitate ezak hainbat arrazoiri erantzuten dio: Egileen gaitasun kaxkarrari, curriculum sendo bat azkar burutu beharrak bultzatutako argitarapen inflazioari eta, askotan kritika ezari. Inor gutxi ausartzen da liburu-errezentsioak idaztera, lagun edota ezagunenak ez baldin badira eta kasu hauetan, gainera, lana gehiago izaten da liburu-aipamena, gaia eta atal nagusiak azalduz, kritika baino, hau, agertuz gero, idazkera estilora edota bigarren mailako gaietara mugatuko da. Salbuespen gutxiarekin betetzen da arau hau<sup>6</sup>.

Beste arazo bat jorratzea dut helburu hurrengo lerroetan, ikerketa eta zabaltze-lanen arteko bereizketa, alegia. Izan ere, asko argitaratu arren, ez dirudi gure inguruan gehiegi irakurtzen denik, ez euskaraz, ez gaztelaniaz. Argitaletxeak ez dira ausartzen, orokorrean, historia-liburuak kaleratzen erakundeen laguntza edota egilearen diru-aportaziorik gabe. Horrek, ia erabat, argitarapen esparrua administrazio publikoaren eskuetara mugatzen du. Ez dut sakondu nahi bide horretan, baina geure buruei galdetu beharko genioke, zergatik eman den hutsune hori, benetan eman bada, eta zein mailataraino, arrazoia gizartearen kezka eta arduren bilakaeran egon

den, edota historioagileok aurkezten dugun eskeintza urri, espezializatu eta astunean aurkitzen den.

Arestian aipatutako bereizketak badiu beste aurpegi batzuk. Izan ere, unibertsitateetako ikerlariak burututako azterketa mamitsuak liburutegi eta dendetako apaletan hautsez betetzen diren bitartean, historialari ez-profesionalek edota amateur hutsek idatzitako hainbat lan oso errez saltzen dira. Baina kontua ez da Euskal Herrikoa bakarrik, duela gutxi zabaldu den Manu Leguineche kazetariaren Annuaireko sarraskiari buruzko liburua adibide ona dugu. Nire asmoa, hala ere, ez da korporatibismoaren defentsa itsua egitea, historialari profesionalok idatzitako lanen artean makina bat kaxkarkeria dugula ondotxo baitakit.

Orain arte esandakoaz gain, beste bi kezka ditut buruan. Bata, gure ogibidekook zer garrantzi gutxi ematen diogun liburuen itxura eta salmenta prozesuari. Berriki nire zenbait kidek lan bat argitaratu dute Euskal Herriko trenbideen historiari buruz eta ez zaie bururatu liburuari mapa bakar bat eranstea<sup>7</sup>, bere irakurketa argiagoko egiteaz gain, interesgarriago bilakatuz. Irudiaren aroan bizi garen honetan honelako faktoreak gehiago zaindu beharko genituzke<sup>8</sup>. Ondoren kontatuko dudana, agian norberaren lanak gutxitan argitaratuta ikustearen ondorioa izango da, baina duela urte batzuk nire ezagun batek erabat harrituta utzi ninduen bere azken liburuaren salmenta kostuen inolako berririk ez zuela esan zidanean. Adibide gehiago jar daitezke baina ez da hori nire asmoa.

6 *Uztaro*-n argitaratutako zenbait kritika adibidez.

7. GONZALEZ PORTILLA eta beste, *Ferrocarriles y desarrollo. Red y mercados en el País Vasco, 1856-1914*, EHU-ren argitarapen zerbitzua, Bilbao 1995.

8. ANGUERA, Pere, "Histories gráficas. Un nou estil de fer història?" *Plecs d'història local* 63, juny 1996.

Bigarren kezka, historiakotzat saltzen den liburu mordoaren kalitateari dagokiona da. Hots, nola argitaratzen diren hainbat lan, non ez diren inondik inora ikusten edozein lan historikok bete behar dituen gutxienezko baldintzak. Badakit irakurle arruntak orriaren beheko aldean jartzen diren oharrak gorrotatu egiten ditutela eta ez naiz sartuko eztabaida horretan. Baina inongo bibliografiarik gabe edota hau gaizki aipatuta zenbat liburu argitaratzen diren ikusteak samindu egiten nau. Gauza bera gertatzen zait Tokiko Historiari buruzko hainbat lanetan azken urteetako libururik ez dela ia aipatzen ikustean eta antzeko zerbait, Tokiko Historian XX. mendea apenas lantzen denean eta politikak, hauteskundeak, alderdi politikoak, gerra zibilaren ondorioak, lan gatazkek eta abarrek inongo lekurik ez dutenean<sup>9</sup>. Are gehiago, liburu horiek aldundi edo kutxa baten laguntza erraz asko lortu edo/eta salmenta ona dutenean.

Honek guztiak, nora garamatza? nolako lan historikoak idatzi diren azken urte hauetan gure inguruan aztertzea. Orokorrean, aurtan bertan, Enric Ucelay-ek<sup>10</sup> Espainiako historiografiari buruz idatzitako hitzak erabilia ez genuke oker handiegirik egingo: gai eta metodologiaren aldetik jarraipena, Unibertsitateetako ortodoxiaren atxikimendua, berrikuntza gutxi, datu enpirikoei gehiegi lotzea, atzerriko gaiei buruzko ia erabateko hutsunea eta historialari profesionalen aldetik benetako zabalitze lanik burutu ez izana. Baldintza hauetatik kanpo dauden lanek, gehienetan aldizkari zientifiko eta Kongre-

suetako akta liburuetan babesten dira, beraien oihartzuna, epe motzera, oso txikia delarik.

## 2.

Ustez, Lorenzo Espinosaren *El nacimiento de una nación* arestian aipatutako erruetatik kanpo aurkitzen da. Egilea aski ezaguna da bai ikerlari, baita zabaltzaile edo dibulgatzaile moduan. Txalaparta argitaletxeak azpiegitura sendoa antolatu du eta bere harpidedun sistemari esker lan ugari plazaratu ditu, ETArekin historia entziklopedia eta CD-ROM formatotan, besteak beste. Badirudi, beraz, beste bi tomoekin (Orella eta Estevez-enak) Euskal Herriaren historia laburtua osatzeko idatzitako lan honek oinarritzko baldintzak beteko lituzkeela, kalitate on eta salmenta hobea edukitzeko. Baina ez da horrela gertatzen, nire ustez, behinik-behin.

Liburuaren helburua 1876tik, hots, azken Gerra Karlistaren bukaeratik, 1994. urtera arteko Euskal Herriko Historia jorratzen da. 321 orrialde 8 ataletan ditu, banaketaren arrazoia batzuetan kronologikoa izanik eta besteetan tematikoa. Epilogoaren ostean, bibliografia laburra azaltzen da. Hiru dira, berriro ere nire aburuz, lan honen hutsegitearen arrazoiak: azkarregi idatzitako liburua izatea, Euskal Herriko Historiografiaren gabeziak betetzen ez saiatzea eta, batez ere, gure bilakaera historikoaren oso ikuspegi "berezia" eskaintzea.

Azkarregi idatzitako liburuak diot, idazkeran ematen diren aditzen den-

9. Tokiko Historiari buruzko lanen aipamen luzeagoa, GARAIZAR, I., GRACIA, J. eta VALVERDE, L., "Historia próxima. Metodología para una historia viva." *Eusko Ikaskuntzen XII Kongresua* "Eusko Ikaskuntzak Hezkuntza Sarean", Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995, 231-247 orr. Lanaren helburua hurbileko historiak ikasleak Historia hobeto eta errazago ikasteko duen garrantzia azaltzea da.

10. UCELAY DA CAL, E, "Introducción. La Historia en el 95", *Ayer* 22, 1996, 11-15 orr.

bora aldaketa ugariren ondoan, erru dexente daudelako. Sabino Aranaren jatorrizko testu bat euskara batuaz eskeintzeaz gain (104. or.), Eusko Ikaskuntzaren 1931ko Estatuto egitasmoari leporatzen dio Elizarekin harremanak Euskal Herriarentzat gordetzea (193. or), justu kontrakoa esaten zuenean<sup>11</sup>, Astigarrabia kanporatzen du Eusko Jaurlearitza 1948an (236. or.) Leandro Carro zenean PCEko ordezkaria<sup>12</sup>; 1975ean afusilatutako FRAP-eko hiru kideak GRAPOkoak bihurtzen ditu (261. or.) edo 1992an Barne Sailaren 40.000 milioiak Jaurlearitzaren aurrekontuaren %25 dela dio, % 10era heltzen ez zenean. Ez dira falta testuan nahasketarako lekuak, badirudi Eusko Gudarostea eta euskal miliziak gauza bera direla eta ETA (p-m)-k barik ETA (m)-ak asmatu zuela KAS Alternatiba. Adibide ugari jar daitezke, baina ez du merezi zerrenda luzatzea. Norbaitek esan lezake txiki-keriak direla, baina ez da ahaztu behar, historialari batentzat zehazta-suna ez dela bertutea, beharrezko zerbait baino.

Euskal Herriko Historiografiaren gabeziak estaltzen ez saiatzeak betetzen du arrazoiaren bigarren multzoa. Hain zuzen, oinarritzko bibliografia aipatzen badu eta azken urteetako liburu ugari, garbi gelditzen da zeintzuk diren gure inguruko historiografiak dituen hutsune nabarmenenak. Iparralderik ez dago, ezta Primo de Riveraren diktadurarik (Ierro bakar bat ere ez baitago horiei buruz); Euskal Herria Bilbo eta, batzuetan, Ezkerraldeak osatzen dute. Beste herrialdeak osagarriak dira eta inoiz ez dute kolokan jartzen eredu orokorra. Euskaldunok euskaraz egiten dugula ia ia asmatu

beharreko zerbait da, era berean norbaitek gure hizkuntzan zer edo zer idatzi ote duen, euskal idazleek ez baitute lekurik lan honetan, beste askotan gertatzen den bezala. Bide batez esan dezadan, erdaldunek ere ez dutela jaso arreta berezirik. Ikastola hitza ere ez da azaltzen testu osoan.

XX. mendeko Euskal Historiak industrializazioa, abertzaletasuna, eta langile mugimendua ditu gaitzat. Lerro hauetatik at dauden indar eta gertakariak ez dute Lorenzo Espinosaren lanean lekurik. Ezer gutxi azaltzen digu baserriar eta arrantzaleen bizimoduari buruz, ezta hirietako biztanleei buruz, edo eguneroko bizitzari buruz. Chuecaren salaketa zabalduz, Euskal Herriko gizartearen aberastasun guztia mugimendu politiko hutsera mugatzen du egileak<sup>13</sup>. Baina, hemen ere ñabar-dura ugari egin daitezke; liburu amaitu ostean, nekez jakin daiteke II. Errepublikak aurretik Gipuzkoako indar nagusien artean integrista eta errepublikazaleak aurkitzen zirela, Nafarroako Ipar-Ekialdean liberal eta errepublikazaleek oihartzun nabarmena zutela, Araban Urkijotarrek eta Datoren jarraitzaileek kontrolatzen zutela Aldundia, edo Bizkaiko Ekialdean ezkerreko taldeek ez zutela ia jarraitzalerik urte luzeetan. Ez zaigu aipatu ere egiten Errepublikako urteetako alderdien arteko indar korrelazioa, bertan garbi ikusten baita, eremu politikoaren triangulazioa, eskubi, ezkerria eta EAJren artean. Gure egunetara etorritik, azken urteetan sortutako mugimendu bakezalaeri buruz ez dago berririk; nahiz eta EAJri leporatu Nafarroa alde batera uztea, hauteskundeetako datuak ematerakoan abertzaleen nagusi-

11. ESTORNES, I. *La construcción de una nacionalidad vasca*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1990, 586. or.

12. MORAN, G. *Los españoles que dejaron de serlo*, Planeta, Bartzelona 1982, 237. or..

13. CHUECA, ibidem, 67. or.



goa aipatzen du behin eta berriro, nagusigo hori Euskal Autonomia Erkidegoan ematen zela (azken hauteskundeak salbuespena dira) ahaztuz, eta Nafarroako datuak erantsiz gero, PSOE eta PP, bakarka edota biak lotuta abertzaleen gaineratik kokatu direla une oro. E.a. luzea.

Hutsegite hauek jatorri bikoitza dute: batetik aipatutako bibliografiaren gabeziak eta, berehala ikusiko dugunez, Lorenzo Espinosak berak defendatzen duen tesia bera, bere helburua ez baita azken 130 urteetako historia jorratzea<sup>14</sup>, ezker abertzalearen “ustezko” jatorri historikoak azaltzea eta borroka armatuaren aldeko arrazoiak ematea baino.

Horregatik harrigarria da, adibidez, lehen sozialismoari buruz eskeintzen duen ikuspegia. Izan ere, Langile Mugimenduari buruzko kontzeptu klasikoa erabiltzen jarraitzen du, langilegoari buruz hitzegin ordeztu eta horrela, lasai asko azaltzen du nola sozialistek “*contaban con la ventaja de un terreno virgen en el que prácticamente no habían aparecido todavía los anarquistas,*” (137. or.), ordurakoo Bilbon errepublikazaleen inguruan eratzten ari ziren elkar laguntzarako elkarte edo erresistentzi erakundeak ahaztuz; esan beharrik ez, elizaren inguruan sorturiko erakundeei buruzko aipamen eza. Lorenzok ahaztu egiten du, gainera, langile asko, grebetan parte hartu arren, botua emateko garaian errepublikanoen alde edota eskubiko indarren alde agertzen zela. Izan ere, Bal-

maseda edota Barakaldoko barrutieta-ko ordezkariak ez ziren inoiz sozialistak izan gerra aurretik. Beraz, meategietako langileak, besterik gabe, sozialistekin parekatzea, okerra dela deritzot. Lorenzo, gainera, urrutirago doa, UGTren Bizkaiko Meategi Federakuntzak 1915 inguruan jasan zuen bazkide-beherakada azaltzeko orduan honela baitio: “*La clase obrera vasca (...) cosechaba su primera frustración...*” (141. or.), sozialisten galera euskal langilego osoaren galerarekin parekatuz. Are gehiago, edozein ikuspegitatik, baina batez ere ikuspegi abertzaleetik, ulertezina da ez aipatzea nola 1919 eta 1923 bitartean Bizkaiko sozialistek bat egin zuten eskubi espainolistarekin, EAJren aurka. Lorenzok, EAJri dion amorruek (ez dago beste hitzik<sup>15</sup>) bultzatuta, aldiz, azpimarratu egiten ditu, burukide jeltzale eta agintarien arteko loturak (156. or.).

Antzeko zerbaitek gertatzen da frankismo garaian. Badirudi lehen unetik langileak prest zeudela Frankoren aurka borrokatzeko eta gizarte gatazka eta grebak uneoro gertatzen zirela. Eta ez zen horrela izan, 1970. hamarkada arte greba gutxi eta arrazoi ekonomikoiei erantzunez burutu baitziren. Era berean, bitxia da ikustea Lorenzoren ahalegina izkutatuz 1947 eta 1951-ko greba orokorrak Eusko Jaurlaritzak eta ELA, UGT eta CNT-k, ohizko sindikatuek, deitu zituztela, nahiz eta langileen haserrean oinarritu. Bide berdinetik, ez da ulertzen zein aipamen gutxi dagoen Elizaren paperari buruz urte horietan, Frankopeko langile mugimenduari buruz.

14. Horretarako idatzita dauka beste lan bat Fernando Garcia de Cortazarrekin batera, *Historia del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 1996 (3. argitalpena). Interesgarria da ikustea zer nolako kontraesanak ematen diren bi liburuen artean.

15. EAJren kontrako erasoak alde desberdinetatik bideratzen dira. Adibide bat jartzearen, Sabino Aranaren garaian “sensibilidad religiosa y espiritual” zena, Jose Antonio Agirrerekin “nacional-clericalismo” bilakatu zen, ahaztuz Agirre lehendakaria izan zela EAJren izaera demokrata-kristaua gehien bultzatu zutenetakoa.

mendu berria militante kristau eta elizaren egoitzen inguruan antolatu zela kontutan izan da. Gauza bera esan daiteke beste maila batzuetan, ETaren zabalkundea, euskal kultura-ren garapena edota auzo elkarteen agerpena, adibidez, ezin baitira ulertu zenbait elizgizonek emandako laguntzarik gabe.

Industrializazioari buruzko aipametak dira liburuaren zatirik nabarmenak, bertan ondo azaltzen baita zein baldintzatan eta zein ondoriorekin burutu zen herrialde ezberdinetan: langileen sufrimentua, bizitza baldintzen okertzea lehen unean, kalte ekologikoak, e.a. Baita azken urteotan nola ari den burutzen garai horren amaiera, Euskal Herriko iharduerak zein bide hartuko duen ez dakigularik. Azterketa, agian zorrotzegia da enpresarioak aipatzeko orduan, inongo meriturik ez onartzeaz gain, erru guztien arduradun bihurtzen ditu eta. Gogoratu beharko genuke beste lurralde batzuetan burgesiak ez zuela inongo ahaleginik egin industria sortzeko eta bere irabaziak burtsan edota Herri-Zorran inbertitu zituela. Industrializazioak gaur eguneko Euskal Herria sortu duenean, “*que no añadió un milímetro de felicidad a nuestra Historia*” esatea gehiegi izan liteke; are gehiago, beste lan batean egile berberak zera baieztatzen duenean: “A pesar de un cierto número de aspectos poco positivos y de algunas fases de titubeo histórico, es indudable que el siglo XIX que acabamos de ver, merece una consideración general favorable”<sup>16</sup>.

Liburua irakurri ondoren, gehien kezkatu nauena, berriz, zera da, gure bilakaera historikoari buruz azaltzen duen ikuspegia. Hitz gutxitan laburtu

daiteke: 1876. urtean karlistek jasotako porrotaren ondoren, hegoaldeko euskaldunak espainiar estatuko hiritar arrunt bilakatu ziren “en las mismas condiciones en que sus hermanos del norte ya lo eran del francés, desde 1789” (7. or.). Garai beretsuan industria garapen indartsua hasi zen Bizkaiko Ezkerraldean. Bi egoera hauen aurrean Sabino Aranak abertzaletasuna proposatzen du Euskal Herriaren izaera babesteko irtenbidetzat. Aranaren abertzaletasuna elizkoia eta independentista zen, baina azken elementu hau zen bere pentsamenduaren muina. Are gehiago, langileen egoera zela, gizarte kezka eta borroka armatuaren aldeko apustua bere testuetan soma daitezke. Azken hau alde batera utzita indar nahiko bildu arte (84. or.).

Sabino hil ondoren eta, batez ere, Luis Arana kanporatu ostean, EAJeko buruzagiek, Ramon Sotaren aginduetara eta euskal burgesiaren interesak defendatzeko, independentismoa alboratu eta autonomismoaren bidea jorratu zuten, gaur egun arte, Estatu espainiarraren kolaboratzaile bilakatu. Bilakaera honen aurrean, ordea, alderdiko oinarriek jakin izan zuten Sabino-ren mezua gordetzen eta garatzen, bere alderik ilunenak zokoratuz, *maketoen* aurkako iritziak, besteak beste, gizarte arazoaren aurrean geroz eta gehiago bereganatuz ezkerreko mezua, Aberri aldizkaria, Elias Galtzategi eta Jagi-Jagi taldea izan ziren joera horren lekuko.

Frankoren garaian kezka horiek ETAn gorpuztu ziren, Aranaren mezu independentista sozialismo iraultzailearekin eta borroka armatuaren aldeko apostu gogorarekin bat eginez. ETA ez zen sortu Francoren aurka, Es-

16. GARCIA DE CORTAZAR, F.- LORENZO ESPINOSA, J.M., ibidem. 167. or.

painiaren aurka baino eta, beraz, ulergarria da bere borrokak oraindik jarraitzea. Azken finean, diktadorearen heriotzaren ostean, Espinosaren hitzetan “las condiciones de fondo y la relación de dependencia política con el Estado siguieron siendo sustancialmente las mismas que existían desde 1876 (252. or.) eta “el Estatuto no ha modificado un milímetro la situación de dependencia política, ni ha servido para autogestionar la crisis social y económica desde las instituciones vascas.” (290. or.).

Tesi honek adar asko ditu eta luze joko luke guztiak jarraitzeak. Hortaz pare bat baino ez ditu ukituko: EAJren autonomismoa eta ETaren papera azken urteetan. Lorenzo Espinosak gogor eta behin eta berriro salatzen du liburuan EAJren traizioa autonomiaren bidea aukeratzean, hori Aranaren pentsamenduari uko egitea zela azalduz, Kizkitza eta Sotaren erantzukizuna azpimarratuz. Aldaketaren une erabakiorra 1915. urtea izango zen, Luis Arana kanporatu zutenean EAJtik. Egia da une horretatik aurrera EAJK apostu garbia egin zuela autonomismoaren alde, baina Aranaren kanporaketaren arrazoia zein izan zen gogoratu behar da: honek Bizkaiko Gobernadore Zibilarekin egindako hitzarmena, zinegotzi jeltzale baten ordezkariaren monarki-koa izendatzeko. Lorenzo Espinosari, dirudienez, honelako ñabardurak azaltzea ahaztu egin zaio. Bestetik garaiko indar politikoen korrelazioa ikusirik, abertzaletasunaren eragina oso txikia izanik Bizkaitik kanpo 1918an, ulergarria da bide hori aukera-tzea, beste indar euskaltzaleak batuz bere inguruan. Are gehiago,

Kanpion-ek, Kizkitzak edota berandua-go Aitzol edota Lizardik bultzatutako Berpizkun-dea “kulturalistatzat” hartzeak, garbi adierazten du Lorenzoren tzat euskal kulturak duen garrantzi eskasa.

Ez naiz hasiko Compañía Nacionalista Vasca eta PNVren arteko zatiketari buruz ematen dituen arrazoiak azaltzen<sup>17</sup>, baina banaketa hori “reflejo a su vez de dos grandes sectores sociales vascos” (152. or.) eta Aberri taldean korrante antikapitalista bat ireki zela esatea, Gallastegi bera lantegi bateko gerentea zenean<sup>18</sup>, gehiegitxo esatea delakoan nago.

Askoz ere kezkarriagoa iruditzen zait ETA eta bere inguruari buruz esandakoak. EAJren kasuan dena kritika denean, ETaren kasuan ez baita inondik inora ikusten. Lotura zuzena azaltzen da Aberri, Jagi-Jagi eta ETako sortzaileen artean eta hauek eta gaur eguneko ETaren artean, inongo etenik nabarmendu gabe. Bestetik, testuan azpimarratzen da, mugimendu berrian, independen-tismo eta definitu gabeko sozialismo iraultzailearekin batera (ahaztuz denbora luzez azken hau marxista-leninista gisa ulertzen zela), oinarrizko ezaugarria borroka armatua dela: “Desde 1959 se inician los primeros sabotajes con explosivos (...)son más de 35 años de escalada militar permanente” (252. or.). Era horretan Espinosak alboratu egiten du ETaren sorreran EAJren politikarekin desados-tasuna zegoela, eta ez ezkerreko ideologia bat<sup>19</sup>, eta benetako borroka armatua 1970ko hamarkadan hasi zela. Borroka armatuarekiko lilura na-barmentzen da testuan, inor gutxik

17. Ikus MEES, L., *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (903-1923)*, Sabino Arana kultur elkargoa, Bilbo 1992, 308-338.

18. ERRASTI, I., “Luces y sombras sobre Eli Gallastegi (1)”, *Muga* 84, 1993, 80-87 orr.

19. TXILLARDEGI, *Euskal Herria helburu*, Txalaparta, Tafalla 1994, 186-187. orr.

onartuko lituzkeen baieztapenak eginez: “La Organización realizó en los años posteriores a 1975 sus mejores apuestas por la libertad” (308. or.). Antzeko zerbait gertatzen da hildakoen orde, “bajas” hitza erabiltzen duenean, edota ETA (p-m)ren azken atentatuak “atentados esperpento” eta “víctimas totalmente contraproducentes como los viajeros y turistas de Madrid” (289 or.) moduan azaltzen diren bitartean, “Hipercor provocó un importante número de víctimas civiles debido a no haberse desalojado el recinto” (280. or.) baieztatzen denean.

Izan ere, historian objetibotasuna aurkitzea zaila izan arren, badirudi azken atalean Lorenzo gertatutakoaren azalpena baino gehiago saiakerara hurbildu dela, bere nahiak errealtatearekin nahastuz. Hori oso agerian geratzen da amaierako orrialdeetan, euskal gizartean azken berrogei urteetako aldaketa guztiak alde batera utzita, zera baieztatzen duenean : “ Si el PNV se hubiera empleado en la dirección correcta, es decir independentista (...) es muy probable que hubiera podido contener en sus límites políticos cualquier intento de lucha armada.” (304. or.) edota : “Si el PNV hubiera utilizado su caudal social en una práctica de reclamación independentista, sin maniobras (...) es muy posible que se hubiera convertido en el partido de todos los nacionalistas sin excepción.” (307. or.). Horrela, espainiar historialari eta politologo askorekin bat eginez, muturrak

elkartuz, Lorenzorentzat EAJ eta ETAre artean dagoen ezberdintasun bakarra zera litzateke, EAJk uko egin diola independentismoari, nahiz eta hori izan bere jatorrizko helburua.

Azken orrialdeek ezinegona sortzen dute, benetako koxkari aurre egiten diotelako: Borroka armatuaren jarraipena ETA sortu eta berrogei urte pasatu direnean. Ezinegona bertan eskeintzen den azalpenarekin ez nagoelako ados; hots, euskaldunen kopuru garrantzitsuak sinesten duela bere herria okupatuta dagoela eta borroka armatua dela egoera horri aurre egiteko dagoen modu bakarrarekin. Baina, baita inork ez dakigulako adierazten nola heldu diren ondorio horretara eta, are okerrago, ez dugulako asmatzen kate hori nola eten eta arazoari irtenbidea ematen.

Liburuaren azterketa zorrotza egin dudala irudituko zaio norbaiti, berak erabilitako haria jarraitu besterik ez dut egin, ordea. Azken urteetan, hurbileko inguru akademikoetan nagusi den historiografiaren aurrean, beharrezkoa da Euskal Herria eta euskaldunon berezko nortasuna nabarmendu eta azalduko duen historia lantzea. Baina ez Lorenzo Espinosak aukeratu duen bidetik, arriskutsua baita jarraipen irudia bultzatzea hausturaz betetako historian<sup>20</sup>, are gehiago, abertzaletasunaren historiari, nire ustez ez duen lotura bat bilatzeko eta bere alderik ilunenak goraiatu eta justifikatzeko bada.

Mikel Aizpuru

---

20. LLOBERA, J.R., “Memòria colectiva, memòria històrica í identitat nacional.”, *Plecs d’història local* 64, 1996, 39. or.